

Goienkaria

2010eko irailaren 24a > Egubakoitza > X. urtea > 435. zenbakia > Doan banatzekoa

Goiena 10 URTE
www.goiena.net TOKIKOM

"Ezker abertzaleak ziklo bat amaitu du eta alderdi berria sortuko du"

Agurne Barruso
Ezker abertzaleko kidea > 08



G2a

Lazkano margolariaren lanak Bilbon > 31

BERGARA
Ur zikinak batzeko saneamendua moldatuko dute Agorrosinen > 16

OÑATI
Astelehenean itxi egingo dituzte Errekalde eta Moia, asfaltatzeko > 20

ANTZUOLA
Sagastiko biribilgunea egiteko proiektua onartu du Aldundiak > 25

AHT > EPAIKETA

Aramaioko alkatearen aldeko bilkura gaur, barikua

EPAIA AHTren galdeketagatik 7 urtez kargugabetu dute

AGIRRE "Erabaki politikoa" izan dela dio alkateak > 05

JENDARTEA > PRESOK

Elkororen aldeko martxa

Bihar egingo dute, Hondarribian hasi eta Bergararaino > 05

JENDARTEA > HEZKUNTZA

800 ikasle ari da EPAn aurten

Taldeak daude bailarako zazpi herritan > 02-03

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Iritzia > 06
Gutunak > 07
Elkarrizketa > 08
Herriak > 11-27
Kirola > 28-29
Kultura > 32-33
Gazteak > 34
Saillatuak > 35
Berri-zakua > 36
Eskelak > 36
Telebista-Irratia > 37
Non-zer > 38-39

JENDARTEA > BIDEGORRIA

Bergara-Soraluze bidegorri zatia zabalik

Bergara eta Soraluze arteko azkeneko bidegorri tartea inauguratu du asteon Aldundiak: Osintxu eta Mekolalde lotzen dituen. 1,8 km ditu eta sei hil irau dute lanek. > 04



HARATEGIAN Iker Agirreurreta eta Jose Ramon Otamendi, egindako odolosteak erakusten.

JOKIN BEREZIARTUA

300 kilotik gora buzkantza Garagartzako San Migtelektan

Bailarako hainbat herri eta auzotan ospatuko dira asteburuan San Migelak: Aretxabaletan, Oñatin, Angiozarren, Garagartzan... Arrasateko auzo horretan, Patxixena auzo-etxean, afaritarako buzkantzak jaten hasiko dituzte ospakizunak, gaur. Iker Agirreurreta eta Jose Ramon Otamendi Arrasateko harakinek eginiko buzkantzak, hain justu. 300 kilotik gora dituzte prest. > 14 ETA 32

izan ala not to be

MONDRAGON LINGUA

www.mondragonlingua.com

HEZKUNTZA > HELDUEN HEZIKETA IRAUNKORRA (EPA)

Ikasturtea hasi da 800 heldurendako

EPA Helduen Heziketa Iraunkorreko bi zentro edo zirkulu daude, Arrasatekoa eta Bergarakoa, eta beste herrietan ere taldeak dituzte

LEKU BEHARRA Arrasaten espazio handiagoa behar dute; Bergaran, Irizar etxea berritu arte, Martokoko lokal batzuetan daude

LEIRE KORTABARRIA > BERGARA

Ikasle helduendako ere hasi da gelara bueltatzeko edo lehen aldiz sartzeko momentua; izan ere, joan den egubakoitzean hasi zen ikasturtea Debagoieneko Helduen Heziketa Iraunkorrean (EPA izenez ezagunago, gaztelaniako siglak erabilia). Aurten, gainera, bailarako ikasgelak inoiz baino beteago egongo dira, Debagoieneko 800 lagun baino gehiago daudelako matrikulatuta.

Ikasgelak txiki geratuko dira, eta ez da irudi literario hutsa; izan

ere, espazio gehiago eta egokiagoa behar dute Debagoieneko zentroek.

Hori egia bihurtzeko bidean dago Bergaran: oraingo ikasturtea Martokoko eskola zaharretan eta beste lokal baten hasi dute, eta hantxe egon beharko dute betiko egoitza, erdiguneko Irizar jauregia, berritzen bukatu arte. Egun hori noiz ailegatu "irrikatan" daude Bergarako EPAko lantaldekoak: "Igogailua izango dugu, beldurrik gabe igo eta jais-teko eskailerak, bost edo sei espazio,

ikasgela gehiago, informatika gela ere bai...", esaten du Mikel Zubizarreta zuzendariak.

Hemezortzi lagunek osatzen dute lantaldea, eta eurek eramatean dituzte ere Antzuolako, Elgetako eta Oñatiko eskolak; eta, laster, Osintxun hasi nahi dute, han ere badagoelako eskaera.

Oñatiri dagokionez, alde batek bestera ibili ondoren, egoitza finko barik, azkenean lortu dute: aurten, Larraña institutuaren egoitzan emango dituzte, lau bat ikasgelatan.



Arrasateko EPAko ikasle talde bat, euskaraz lehenengo urratsak egiten.



Eskoriatzan, ingelesa ikasten.

Modaren asteak *2010eko udazkena*

GURE IRUDI AHOLKULARITZA ETA PERSONAL SHOPPER ZERBITZUAREKIN

- Haur Modaren Astea** irailaren 20tik 25era arte
- Emakumearentzako Joera Berrien Astea** irailaren 27tik urriaren 2ra arte
- Gizonentzako Joera Berrien Astea** urriaren 4tik 9ra arte
- Osagarrien Astea** urriaren 11tik 16ra arte
- Estetikaren eta Edertasunaren Astea** urriaren 18tik 23ra arte
- Festarako Modaren Astea** urriaren 25etik 30era arte

BISITATU GURE BLOG BERRIA!
www.tublogelboulevard.com

Modaz beteta. ZUTAZ beteta.



Bergarako EPAko lantaldea; ezkerrean, Mikel Zubizarreta zuzendaria.



Atzerritarrendako gaztelaniazko eskolak hartzen Arrasaten; zutik, Miren Bengoa zuzendaria.

ARGAZKIAK: LEIRE KORTABARRIA

Aurten, 400 bat ikasle dituzte; "iazko antzera", dio Zubizarretak. Eskaera handien dutenen artean, hauek: "DBHko titulua beharra dute askok, ikasten jarraitzeko; bestalde, jende nagusiagoak hizkuntzak eskatzen ditu; informatikan alfabetatu nahi duen jende asko dago; atzerritarrek ere bai..."

ARRASATEN, BI LEKUTAN

Arrasatekoa da Debagoieneko beste EPA zentroa; hango arduradunak, Miren Bengoa zuzendaria, Lurdes Jauregiartzo ikasketaburua eta Josean Arriaran idazkaria arduratzen dira ere

LABUR

"Nagusi asko hemen batzen dira"

Helduen Heziketa Iraunkorra eskola publikoa da, Hezkuntza Sailaren mende, eta udalen laguntzarekin ere. Doan da, eta ikasleek materiala bakarrik ordaindu behar dute. Hezkuntza arautua ematen du -Bigarren Hezkuntzako graduatua lortzeko ikasketak, Unibertsitatetako sarrera 25 urtetik gorakoendako eta 45 urtetik gorakoendako, Erdi Mailako edo Goi Mailako zikloetako ikasketak...- eta hezkuntza ez arautua ere -irakurtzen eta idazten; euskara, ingelesa eta frantsesa; atzerritarrendako gaztelania; eta informatika, beste batzen artean.

Beste funtzio bat ere betetzen du EPAk: "Gizarteratze eta elkartzeko gunea da; batez ere nagusiak batu eta informazioa trukatzeko; alargun asko ere etortzen dira, eta berriketaldiak egiten dituzte... 80 urtetik gorako emakume pare bat ere badatoz", esaten dute Bergarako arduradunek.

Aretxabaletan eta Eskoriatzan eskolak antolatzeaz.

Egoitza nagusia Arrasaten dago, eta Aretxabaletan (Markolen) eta Eskoriatzan (Intxaurtxuetan) ematen dituzte eskola batzuk. Herri bakoitzean bina gela dituzte. Dena dela, espazio aldetik gaizki dabilta: hala, Aretxabaletan ikasgelak besterik ez dituzte, bestelako gela barik; eta Arrasaten bertan, Ferrerias kalean orain 20 bat urte ireki zen egoitza gainezka eginda dago gaur egungo egoerarekin. Argi dago Arrasateko EPAk ere leku gehiago eta aproposagoa behar duela, eta horren adibide da informatika gela: 10 ordenagailu doi-doi kabitzen dira pasillo itxurako gelatxo luzexkan; hori, ikasleak eta irakaslea kontatu barik!

Estutasun hori pixka bat baretzeko, oraingo, ikasgela bat moldata dute IMlko lokaletan, Iturriotz kalean. Han ematen dituzte, esaterako, atzerritarrendako gaztelaniazko eskolak. Edozein modutan, gela bakar hori ez da nahikoa, eta leku on baten esperoan daude arduradunak, laster ailegatuko den itxaropenarekin.

Orain dituzten baliabideekin gogoz lanean dihardute Arrasaten ere, eta berritasunak dituzte: "Eskoriatzan, astelehenetan, 16:00etatik 18:30era bulego zerbitzua emango dugu, jendearengana gehiago hurbiltzeko", esaten du Miren Bengoa zuzendaria. Han, badute egoitza berria, Intxaurtxueta kaleko 20. zenbakian; txikia izan arren, behintzat irakasle-gela badauka.

INTERNET IKASTERA

Krisiak, lana topatzeko dauden zailtasun handiek... horrek denak jendea inoiz baino gehiago animatu du EPAra joatera. Lurdes Jauregiartzo ikasketaburuak dioenez, "eskaera handia

DATUA

32
LANGILE

Arrasaten 14 eta Bergaran 18 lagunek dihardute zazpi herritan EPA aurrera eramaten. Administrazioa, eskolazain, idazkari... lanak ere eurek egiten dituzte.

ESANAK

"Eskoriatzan bulego zerbitzua ipini dugu, astelehenetan, jendea EPAra hurbil dadin"

Miren Bengoa > Zuzendaria

"Goi Zikloko ikasketek eskaera handia dute; langile askok hobeto prestatu nahi dute"

Lurdes Jauregiartzo > Ikasketaburua

dago ikasketak jarraitzeko. Goi Zikloko ikasketek demanda handia dute orain. Lantegietan dabiltazen asko konturatu dira hobeto preparatu gura dutela, eta ikasten jarraitzera etorri dira. Aha! legin handia egiten dute, epe jakin batzuk dituztelako". Bergarako arduradunak bat datoz, eta gaineratzen dute langabe gehiago apuntatu dela azkenaldian.

Behar berriak agertu dira, Jauregiartzok dioen moduan: "Informatikan alfabetatzeko dator jende asko. Orain, Internet oinarri-oinarrizkoa da, eta defenditzen ikastera etortzen dira".

izan ala not to be triLINGUA

ez izan zalantzarik
eta zatoz triLINGUA komunitatera
Zatoz MONDRAGON LINGUAra!

Ingelesa,
euskara, alemana,
italiera, txinera,
frantsesa... ikasi,
metodo moderno eta eraginkorrenaren bidez

Adin guztietarako

Maila guztietarako

- Ikaskuntza-metodo eraginkorrena da, banan-banako tutoretzak, zuzeneko eta/edo Skype (Internet) bidezko klaseak eta tresna informatiko modernoak bateratzen dituelako.

- Hizkuntza lantzeko jarduerak: antzezlan didaktikoak, lehiaketak, Interneteko ikasgaitxoak, irakasledun bisitaldi gidatuak.

- Cambridgeko azterketak gure zentroan bertan egiteko aukera.

Emaita bermatuak.

%80ek
gainditzen dituzte Cambridgeko azterketak



Adin guztietarako

Maila guztietarako



Gure zentroetara
hurbildu

www.mondragonlingua.com

ARRASATE
Araba etorbidea 4
943 71 20 55

OÑATI
Montxon kalea
943 71 20 55



Orain, **hurbilago gaituzu**
Oñatiko erdialdean

Urriaren 20a baino lehen egin matrikula eta Appleren iPad bat lor dezakezu.



Irekieran izan ziren Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua, Jose Luis Arizaga Soraluzeako alkatea eta Javier Zarraonandia Ingurumen zuzendaria.

T. MADINA

JENDARTEA

Zaldibarren zabalduko du denda Emausek

Sindesperdicio markako produktuak eros daitezke dendan

A.E. > ARRASATE

Emausek lekuz aldatuko du denda. Orain artekoa itxi eta denda berria irekiko dute Zaldibarren, datorren urriaren 1ean. Hobeto egokituta dagoen lokal batera eramango dituzte gauzak; eta, era berean, "irudi komertzialagoa eta eskuragarriagoa" izango duela azaldu dute Emausko ordezkariak.

BOST ARROPA, BOST EURO

Orain dela urtebete irekitako lehen denda itxi egingo dute, hortaz; horretarako, eskaintza berezia egiten dabilta egunotan: bost arropa, bost euroren truke.

Arrasateko Udalarena den lokal berriak erakuslelhoia izango du, eta sarrera egokitua.

GIZARTE ERAKUNDEA DA

Urtebete da Debagoiengan Emausek lehenengo denda ireki zuena; hain zuzen, Gipuzkoan duen horrelako bosgarren denda. Beste bi denda ditu Asturiasen.

Denda horien helburua hau da: gizarte talde gutxietsiekin konpromisoa, hondakinen sorreran prebentzioa erraztea eta kontsumo arduratsua posible egitea. Helburu horiek kontuan hartuta, balorazio positiboa egiten du Emausek. "Immigranteak, pertsona nagusiak edo baliabide gutxiak erosteko eta konpromituagoak diren gazteekin nahasten dira", diote Emausko ordezkariak.

Esan behar da Arrasaten egiten direla Sindesperdicio markako osagarriak, Udalaren laguntzarekin. Dendan bertan eta Internet bidez saltzen dituzte produktuak.

AZPIEGITURAK > BIDEGORRIAK

Zabalik dago Bergara eta Soraluze arteko bidegorri zatia

Milioi bat euroko kostua izan dute 1,8 kilometro dituen bidegorriko lanek; sei hilabete iraun dute

T. MADINA /A. EZKIBEL > BERGARA

Bergara eta Soraluze arteko ibilbidea oinez edo bizikletan eta arriskurik gabe egin gura duenak erabilgarri du dagoeneko bi herrien artean Aldundiak egin duen bidegorria. Martitzenean, Mugikortasun Iraunkorraren Europako Astearren barruan inauguratu zuten bidegorri horren azken zatia, Osintxu eta Mekolalde lotzen dituen, hain zuzen. Ekitaldian, Carlos Ormazabal Garapen Iraunkorreko diputatua eta Soraluze Udaleko ordezkariak egon ziren, ez hala Bergarakoak. Adierazi digutenez, ez zuten garaiz gonbidapenik jaso.

SEI HILABETE ETA ERDI LANEAN

Sei hilabete eta erdi iraun dute Osintxu eta Mekolalde arteko 1,8 kilometro dituen bidegorriaren

lanek. Egindako lanak, baina, ez dira bidegorririra mugatu; izan ere, zati hori Soraluze eta Bergara arteko bidegorriaren parte da, denera lau kilometro dituen bidegorria. Ibilbide osoan zehar hesiak eta seinaleak hobetu dituzte, baita argiak jarri ere. Kontsu-

moan aurrezteko baliagarriak diren LED argiak dira jarri dituzte, hain zuzen ere. Foru Aldundiak 1.080.816 euro inbertitu ditu lanok egiten.

GEHIEN ERABILTZEN DEN ZATIA

Ingurumen diputatuak gaineratu zuen 2003an eraiki zuten Soraluze eta Osintxu arteko zatia dela gaur egun Aldundiaren bidegorri sarean gehien erabiltzen den

zatiaren bat. Bidegorri horrek hainbat industrialde zeharkatzen ditu, eta, Aldundiaren esanetan, helburua da autoa etxean utzi eta, ahal den heinean, lanera bizikletan joatea. Ormazabalen berbetan, "mugikortasun iraunkorrerako azpiegitura bikaina izateko" eta ibilbidean dauden enpresetara joateko garraibide bihurtzeko aukera ematen du bidegorriak.

EGUNERO 515 ERABILTZAILE

Diputatuak eman dituen datuen arabera, 2010eko lehen hiru hilabeteetan 46.307 erabiltzaile izan zituen Soraluze-Osintxu tartean, egunero 515 erabiltzaile batez beste. Bizikleta erabiltzen dutenen portzentajea %16 da lanegunetan eta %20 jaiegunetan.

Gaineratu du obra "krisi betean" egin dela; hala, Gipuzkoako Foru Aldundiak apustu sendoa egin duela mugikortasun iraunkorraren alde.

DEBAGOIENEN BIDEGORRIAK

Beste bi bidegorri zati dabilta egiten

Mekolalde-Osintxu zatiak Debagoieneko bidegorri sarea osatu eta handitu egin du. Gaur egun, beste bi zati dabil egiten Diputazioa: bata Antzuolan eta bestea Eskoriatzako hilerrian. Antzuolako lanak atzeratuta dabilta. Matz-erreka ondoan hasi eta Galartzako zubiraino egiten dabilta bidegorria. Gainera, Lapurzubi inguruko zatia behin-behinekoa izango da; izan ere, Beasain-Durango errepideak bidegorriaren zati bat hartuko du. 1,52 kilometroko zatia da aipatutakoa. Bestalde, Eskoriatza eta hilerria lotuko dituen bidegorri zatiko -0,3 kilometroko- lanak laster amaituko dituzte. 797.572 euroko aurrekontua du Diputazioak.

> EUSKARA

Urriaren 3an kilometroetara joateko autobusa jarri dute

Debagueko euskara elkarteek urriaren 3an Lezon egingo den kilometroak 2010era joateko autobusa antolatuko dute. Txartelak datozen egunotan jarriko dituzte salgai euskara elkartetan bertan. Izena ematea, baina, beharrezkoa izango da. Hortaz, dei egin dute euskara elkartetatik pasatzeko.

> EZBEHARRA

Gizonezko bat hil da motorrekin istripua izan ondoren

Arrasate eta Aretxabaleta arteko saihesbidean (GI-627) gertatu zen istripua eguaztenean. Ertzaintzaren arabera, bi autok eta motor batek izan zuten istripua: Peugeot 307 eta Suzuki Vitara autoak eta Suzuki Marauder motorrak. Motor-gidaria, 38 urteko gizonezko arrasatearra, Agustin Davila Sanchez, bertan hil zen.

Carrascal aroztegia

SUKALDERAKO ALTZARIAK
BAINURAKO ALTZARIAK
HORMA ARMAIRUAK
BESTELAKO ARMAIRUAK

Ekutio 4, Pab. 14-15 • Uribarri Auzoa • Tel./Faxa: 943 79 01 82 • scarrasc_1@infonegocio.com

AZPIEGITURAK > BEASAIN-DURANGO AUTOBIDEA

Deskargako tunela egiteko lanak enkatera atera dituzte

Diputazioak aurreikusi du 2,7 kilometro luze duen zatia egiteko 68 milioiko inbertsioa behar dela

MIRIAN BITERI > BERGARA

Aurrera doaz Beasain eta Durango lotuko dituen autobideko lanak. Gipuzkoako Foru Aldundiak, Beasain-Bergara ardatzaren harira, Urretxu-Legazpi eta Antzuola lotunearen zatiaren eraikuntza lanak atera ditu astenon enkatera. Bidegiren bitartez eraikiko den errepide zati hori 2,7 kilometro luze izango da eta 68 milioi euroko inbertsioa eskatuko du. Besteak beste, 680 metro

luze izango den tunel bat eraikiko da zati horretan, Deskargako gaina saihestearren.

URTEA AMAITU BAINO LEHEN

Diputazioaren aurreikuspenen arabera, lehiaketa irabazten duen enpresak urtea amaitu baino lehen hasi behar du lan horiek egiten eta 30 hilabeteko epea izango du bukatzeko.

Beasain eta Bergara arteko ardatzak Gipuzkoa barneko ekial-

de-mendebalde lotura indartuko du. N-1 (Beasain) eta AP-1 (Bergara) errepide nagusiak zuzenean lotuko ditu. Tarte horrek 23 kilometroko luzera izango du eta lan horietan 300 milioi inguru gastatuko dituela aurreikusi du Diputazioak.

Ardatz horretako obren egoerari dagokionez, Beasain eta Zumarraga arteko zatia zabalik dago; eta Zumarraga eta Urretxu-Legazpi lotunean lanean dabilta. Azkenik, Antzuola eta Bergara lotuko dituen errepide zatia eraikitzeke proiektua dagoeneko onartuta dago.

AHT > EPAIKETA

Agerraldia egingo dute gaur Aramaion, alkatearen 7 urteko kargugabetzearen harira

M..B. > ARAMAIO

Atera da Aramaio alkate Asier Agirrerren kontrako epaiketaren sententzia: 7 urteko kargugabetzea eta epaiketaren kostua bere gain hartu beharra. Horixe da herritarrek antolatutako Abiadura Handiko Trenaren gaineko galdeketa egiteagatik jarri dioten zigorra.

Agirrek baieztatu digu dagoeneko aurkeztu dutela epai horren kontrako helegitea. Epaia irmoa jakin bitartean lanean jarraituko duela azaldu du: "Ez dakigu epaia noiz irtengo den, bitartean lanean jarraituko dut. Kentzen baldin banaute, saiaturko naiz herriaren alde lan egiten".

Haren esanetan, "zigorra erabaki politikoa izan da, Aramaio-aren hitzaren eta Euskal Herriaren kontrako. Herriak galdeketa egiteko erabakia hartu zuen eta beste hainbat herri bide horretatik



Aramaio alkate Asier Agirre, eguaztanean.

ANDER MONEDERO

jotzeko asmoa zuten. Baina beldurra sartzen dute; buruak mozteten dituzte". Dena dela, nabarmendu du herriak "galdetzen eta erantzuten" jarraitu behar duela.

Horren harira, aramaioarrek elkarretaratzea antolatu dute gaurko, 20:00etan, plazan. Bestalde, Aralarrek erabakia "gogor eta irmo" gaitzetsi du.

etxeko leihotik



Goiatz Arana > 'goarana@goiena.com'

Bizikleta, gero eta garraiobide ohikoagoa

noiz bizikletaren gainean berbarik entzun ez diodan lankide bati bizikleta bat oparitu diote urtebetetzean, berak hala eskatuta. Nire herrian, Ormaiztegin, ama bat baino gehiago ikusi dut umea eskolatik txirrinduarekin jasotzen; bi errubera gainean aurrez inoiz ikusi gabeko amak. Moda kontua izango da. Baina nago hori baino gehiago dela.

Aste honetan, Diputazioako ordezkariak bidegorrien eta horien erabiltzaileen gaineko hainbat datu eman dituzte: bidegorri sarea guztiz eginda egotetik gero eta gertuago dago

–Debagoienean bertan, inauguratu dute Osintxutik Mekolaldera arteko zatia– eta erabiltzaile kopuruak gora egin du; txirrinduarekin egiten diren hamar desplazamendutatik hiru lan arrazoiengatik egiten dira, gainera. Nahiko nuke nik ere, baina ezin! Bizikletarekin lasai joateko moduko bide erosorik ez, hain sasoi onik ere ez eta... Beasain-Durango autobidaren zain egon behar!

Beste datu bat ere eman dute: bizikleta dela garraiobiderik azkarrena, bost kilometro inguruko ibilbideetarako. Eta honekin, anekdota bat gogoratu dut: Eskoriatzatik Arrasatera gendotzen, halako baten gida-baimena atera zuen lankide bat eta biok, bere autoan. Ilara, semaforo eta beste, gu baino lehenago egin zuen ibilbide bera bizikletan zetorren mutil batek. Hura desilusia nire lankideak eraman zuen! Haiek barreak nik bota nituenak!

> Debagoieneko

bidegorri sarearekin jarraituz: Bergara eta Antzuola artekoaren bi fase eta Eskoriatzako hilerrikoa urri amaierarako bukatuta egongo direla jakinarazi du Gipuzkoako Foru Aldundiko Iraunkortasun arduradunak.

> Julia Robertsen

defentsan nator orain; ez dute ederki jarri zenbaitzuk! Niri, Donostia saria emateko ekitaldian, iruditu zitzaidan benetakoa zela bere irribarrea, benetakoa bere emozioa, eta gustura ikusi nuen *Eat Pray Love*.

POLITIKA > 'JOSE LUIS ELKORO LIBRE' PLATAFORMA

Elkororen askatasuna eskatzeko kirol martxa egingo dute bihar Gipuzkoan barrena

Hondarribian hasi eta hainbat herri igaro ostean Bergaran amaituko da

M.B. > BERGARA

Jose Luis Elkororen askatasuna eskatzen duen *Jose Luis Elkorolibre!* herri plataformak beste ekimen bat antolatu du biharko, zapatua. Oraingoan, kirolariak izango dira egun osoa iraungo duen *Mugituko da* kirol martxaren protagonistak. Bergaran amaituko den ekimenak korrika, itsasontzian, igerian, bizikletan, piraguan eta traineruetan eramango du testigua (elefante txiki bat).

Martxa 09:00etan hasiko da Hondarribian, korrika egiten.

Jarraian, itsasontziek hartuko dute elefante txikia, eta Pasaiara eraman. Igerian pasatuko dute badia eta korrika egiten jarraituko dute Martuteneraino. Han txalaparta jo eta etxafuegoak botako dituzte, Elkorok kartzela barrutik entzun ditzan, eta berehala bizikletan jarraituko dute. Hernanin zehar *Egin* egunkariko langile ohiek mugituko dute testigua.

IKURRINA AIRERATU

Zarautzera iristean, ikurrina airearatuko da *Alkateen mugimendua*

izan zena gogorarazteko, haiek izan ziren-eta 1977an ikurrina legeztatzea lortu zutenak; Jose Luis Elkororekin batera, Azpeitia, Arrasate, Hernani eta Zarauzko alkateak ere mugimendu horretan sartuta ibili ziren.

Handik ibilbideak Getariarantz eta ondoren Zumaiarantz egingo du. Deban Bergarako zikloturistek hartuko dute lekukoa eta Ondarroan, igerilariak. Lekeition, bestalde, gogoraraziko dute GALek hil zuen bere kide eta lagun Santi Brouard medikua. Lekeitio-

Pausoz pauso

16:55, Elgeta

Bizikletan iritsiko dira eta Bergarako korrikalariak hartuko dute erreleboa.

17:45, Bergara

Herritik igaroko da.

18:30, Antzuola

Korrika iritsiko dira eta lankide ohiek hartuko dute testigua.

19:20, Bergara

Palmeran batzeko dei egin dute.



Elefantea izango da testigua.

tik Markinarako bidea hartuko du; Elgoibar eta Soraluze herriak ere igaroko ditu martxak Elgetara iritsi ahal izateko. Elkorolibre! jaio zen herritik lan egin zuen herriraino, Antzuolaraino, korrikan jarraituko dute; han, Elayko lankide ohiek hartuko dute testigua.

AZKEN 200 METROAK, OINEZ

Handik Bergararantz abiatuko dira. Han antxintxikaldi txikia egingo da eta Ibargaraiko palmeratik plazaraino oinez joango dira. Jarraian, herriko elkarte gastronomikoen pintxo-poteo ederra egingo dute parte hartzen duten denondako. *Jose Luis Elkorolibre!* plataformak deialdi zabala egiten die herritarrei, kirol martxan izateko gonbita eginda. Horren harira, jakinarazi dute Elgeta, Bergara eta Antzuolako alkateek ere lekukoa eroango dutela.



zabalik

Oskar Elizburu

Aizue, adi, entzun!

Bozgorailua erabiltzeko aukeria eukitzen dot GOIENKARIA eta ez dot ba alperrik galduko. Hortaz, hor doia gaurko bandua, korneta hotsaren ostian, tutu-tutu...!

Aizue, adi! Oporraldixa amaitu da! Oraintxe dozue erabakia hartzeko ordua, ez gero etorri berandu eta aukerarik ez daguanian! Erabakizue, behingoz, zelan hobetu zuen egoeria, zelan jarri euskararekin egunian, zelan murgildu euskaldun komunitadarian.

Hemen, Euskal Herrixan, hizkuntza burruka latza daukagu, ez dozue ikusten ala? Euskaraz egin nahi eta askotan ezin dogu; gutxiagotu egin dozkie izana eta izena. Euskaldun izan nahi badozue emon ba pausua! Ez daigun gero esan gure ume eta gaztetxuek ez dabela behar beste erabiltzen, ez daiogun eskolari edo hezkuntzari edo edonori errua bota, orain daukazue eredu izateko ordua, helduen ordua!

Ikasteko aukera ugari daukazu: ezer ez badakizue, hasiera maila (esaiezue ahoz eta erderaz, hau ez dabe ulertuko eta). Zeozer ikasi dozuenok, baiña nahikorik ez, klase praktikoak, hobetze eta ohitzeko. Irakurtzen eta idazten trebatu biharra daukazuenok be, horri begirako ikastarua. Perfilak atarateko premiñia daukazuenok, berariazko klasiak. Denboraz urri bazabizte, autoikaskuntza, mintzapraktika...

Azken urteotan hainbat mezu entzun dozue, bata bestiarene ostian: *Bai euskarari, Ongi etorri euskaraz bizi nahi dugunon herrira, Euskaraz bizi nahi dut, Euskaraz bai...*

Orain erantzuna emoteko ordua dozue, nahi badozue ahal dozue. Esan BAI handi bat euskarari, egin zaitezte euskararen lagun! Esaizue ozenki: euskaraz bizi nahi dogu! Zuen ondokuek eskertuko dotzue! AEKn zain gaude!

usteak uste

Larraitz Zeberio

Gurasoei zuzendutako tertulia

Goiena Telebistaren proposamen berrietako bat da, eta asteon egin dugu lehenengoa. Nire ustez, gauza politik eman ditzake saio horrek. Gero eta gehiago dira gurasoei zuzendutako aldizkariak, webguneak, hitzaldiak eta foroak, eta zerbaitegatik izango da hori. Guraso moduan neroni ere zalantza asko sortzen zaizkit egunero. Seguruenik ez ditut tertulia horien bitartez guztiak argituko, baina gutxienez zalantzak plazaratzeko aukera izango dut. *Guraso.com* webguneaz gain, telebista saioa dugu orain lagungarri. Bada zerbaite.

marrazkiz

Alex Ugalde



blog-top

San Maurizio

Luis Aranberri 'Amatiño'

<http://eibar.org/blogak/amatiño/>

Gaur, irailak 22, Autorik gabeko Nazioarteko Eguna da. Nere gaztaroan San Maurizio eguna besterik ez zen, "tintoreroen" eguna, gure etxean beti gogoan hartzen zen eguna. Garai haietan auto gutxi zegoen eta, zaharberri beharrez, tindatu beharreko arropa asko. [...] Gauzak dezente aldatu dira. Gaur lar auto dago eta batere tindategirik ez.

[...] Autorik gabeko Nazioarteko Egunaren ideia 1974an sortu zen Europako zenbait gobernuren eraginez, ondoko iraupenik izan ez arren. [...] Hiri-barneko trafikoa murriztu beharra, autoen kutsadura eta garraio publikoaren sustapena ia-ia bart gaueko kontuak dira gure inguru honetan.

Euskal hiriburuen artean Bilbo da handiena eta baita garraio-azpiegitura publikorik zabalena duena ere, beharbada bera delako euskal metropoli bakarra. Bilboko Metroaren erabiltzailerik gehienak ez dira bilbotarrak, inguruko herrietako biztanleak baizik.

[...] Bilboko Udalak jakinarazi du 690.000 euro xahutu eta 260 bizikleta berri erosi dituela hiritarrek han-hemenka maileguz erabili ditzaten. 30.000 hiritar omen daude dagoeneko harpidetuak eta iazkoan 120 eskabide egin zituzten eguneko.

Asko? Gutxi? Auskalo... 120 hiritar autobus bitan sartzen dira. Bizikletarik gabe, jakina!

Telefono aurreratuak

Joxe Aranzabal

<http://goiena.net/blogak/faroa/>

Aspaldi nembilen -beste askok bezala, seguruenik- zelan esan smartphone hitza euskaraz. Erabili dut, bai, "telefono adimenduna", baina sekula ez naiz geratu erabat konforme, beharbada naturaltasuna falta zaiolako. Atzo arte. [...] Andoni Sagarna euskaltzain eta blogariaren artikulua bat irakurri nuen, *Tinta elektronikozko irakurgailuak*; "telefono aurreratuak" aipatzen zituen. Eta niri gustatu. Lehen kolpean egokia iruditu zitzaidan, naturala. Ez dakit zuei zer iruditzen zaizuen.

koplak

Julen Iriondo

Badatoz jaixak Oñatira

Iraila akaboten dabil ta Oñatira datoz jaixak, goizaldera ez dia faltako koplatan itteko gaixak.

Jaixei hasiera emuteko danborrak urtengo dia, askok goizian eukiko daue buruan danborradia.

Ta sokamuturrera fateko asma be badakot nik, zezenak eukiko dittugu bai, baina torturatu barik.

Puntuko herri eguna dator zelako egun polita, feria eta sagarduakin egun horretako zita.

Eta astelenian derrigor disfrazta jantzi bihako, lanetik pipar ingo dogu ta inok ez ezauketako.

Azkeneko aieauko da bixamonan bixamona baino oin horrekin pentsaittea inondako ez da ona.

Goienkaria

Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • E05 Basabe Poligonoa • 20550 ARETXABALETAKO Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi Saitetako arduradunak Leire Kortabarria (Herriak, Goienkaza eta Gehigarriak), Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea), Oinarrizko diseinua Goio Arana Maketazioa Oxel Arrieta eta Imanol Soriano Publizitatea Mireia Larrañaga, Igone Osinaga, Ziortza Martín, Ederne Gorosabel, Aintzane Muruamendiaraz Testuen zuzenketa Sergio Azkarate Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazioa Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa.

EGOITZA NAGUSIA

BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK

ARRASATE 20500 Otarola Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETAKO 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Postea-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: NA-3329/2000 • ISSN: 1577-1210 • Tirada: 20.000 ale • Difusioa: 19.724 ale.



OID erakundeak ikuskatutako astekaria

LAGUNTZAILEAK



Eusko Jaurlaritza



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiko Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioko Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagakoko Udala



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

Hauxe da espetxeetan sufritzen dugun umiliazioa

Eukene Gracia Campillo
Bergara

Berriro ere, Salamancako Topas espetxeke isolamendu-ziegatan dagoen nire senar euskal preso politikoa bisitatzera joan naiz, eta nirekin zihoazen familiarteko bi eta ni neu umiliatu eta lotsagabe-ki tratatu gaituzte, beharrezkoak ez diren arau neurrigabeekin.

Jakina denez, aspalditik arau neurrigabeak inposatzen dizkiete euren ziegetan urtetan giltzaperatuta egotearekin nahikoa zapalduta dauden euskal preso politikoa bisitatzera doazen lagun eta familiartekoiei.

Aste bukaeraro, bisitetara sartzeko orduan, familiartekoie araketa bikoitza egiten digute, eta euren helburu maltzur eta zitala da etengabeko umiliazio horren ondorioz gu behera etortzea eta preso bisitatzeari uztea, preso bere horretan abandoatzea.

Ez zaie nahikoa iruditzen, euren borazitatea asebetetzeko, hango isolamendu-ziegan gutzit zapaltzea; izan ere, ordu gutxi irtetan da handik, sare metalikoz estalitako eta arantzaz inguratutako patio batera, eta batzuetan denbora luzeegiz, ondoan berba egiteko kiderik ez du-eta, bakartasun krudelean egoten da.

Hasieran, eta denbora batez, uko egin genion araketa bikoitzari, eta, horren ondorioz, ezin genuen bisita-

rik egin eta gure familiartekoa orduan eta isolatuago uzten genuen. Denbora baten ostean eta gauza guztiak ondo baloratuta, Salamancako Topas espetxean araketa bikoitza pasatzea erabaki genuen; hori bai, argi eta garbi utzi genien errefusatu egiten genuela beharrezkoa ez den arau neurrigabe hori, umiliazio hutsa da-eta. Gure iritziz, gure familiartekoa nahikoa isolatuta dago are gehiago isolatu nahi izateko. Hori ez dugu onartuko eta horregatik pasatzen dugu araketa bikoitza, nahiz eta ez dugun onartzen.

Bisitatik irtetean, espetxean bertan, salatu egin genuen puntuz puntu, eta nabarmendu egin genuen arau horren konstituzio-kontrakotasuna, gure ohorerako eta intimitate-rako eskubidea urratu egiten du-eta.

Euskal Herrian ere berriro salatu genuen epaitegian, eta haren babesa eskatu.

Baina bata bestearen ondoren datozenez, orain, eta azken bi hilabeteetan, metal-detektagailuz eta araketa manualaz gain, horiek pasatu eta sufritu ostean Guardia Zibila sartzen da oihuka eta modu txarrean eta paretaren kontra jartzen gaituzte eta gure inguruan txakur bat pasarazten dute behin eta berriro.

Hala ere, duin eta tinko segitzen dugu. Uste eta espero dugu euren miserien azpian beste arauen bat gehiago egongo dela. Beste bat gehiago gainditzeko.

Ezin ditugu gure begiak itxi euskal preso politikoen inguruan gertatzen ari den guztiarekin, inpunitate osoz krudelki zapalduak izaten ari dira eta.

Izan ere, ez dago ezer txarragorik utzikeria eta pasibitatea baino, bere miseriengatik itsututa dagoen estatu krudel eta mendekati baten aurrean. Erantzun dezagun tinkotasunez eta duintasunez. Ez daude bakarririk eta ez dira egongo gure euskal preso politikokoak.

Gora, Euskadi askatuta!

Jon Abril dela eta...

Garikoitz Iturbe
Aretxabaleta

GOIENKARIAk Jon Abril Aralarreko kideari eginiko elkarrizketaren parte da galdera-erantzun hau: "Bi alkate ditu Debagoienean Aralarrek. Zer espero duzue datorren hauteskundeetan?... Bi alkate horiek egonkortzea izango litzateke helburua... Egingarriak diren helburuak dira, baina herritarrek erabakiko dute".

Zuk ondo dakizun moduan, Aretxabaletako herritarrek ANVren aldeko erabakia egin zuten eta Aralarrek herritarren nahia ez zuen errespetatu. Sarri entzun izan ohi dizuet Alderdi Legearen aurka zaudetela eta zuek Aretxabaletan Alderdien Legeari esker alkatetzaz baliatu zineten.

Zuek ere orduko emaitzak ontzat eman zenituzten eta herritar guztiak udaletxeetan ez egoteko aukera legitimatu zenuten. Estatu espainolari ez lioke Partiduen Legeak ezertarako balioko, zuek bezalako alderdi abertzaleek beraien logikara jolastuko ez balute.

Eta hurrengo hauteskundeetarako ere helburu bera

duzuela irakurtzeak mintzen nau. Tristeza herritarren eskubideen eta Euskal Herriaren etorkizunaren gainetik, alkatetza eta poltronekin itsutzearena.

Eskerrik asko, danoi

Marga Mercader
(Txikitxu-Arrostaitz dantza taldearen izenean)
Arrasate

Irailak 11 egun hunkigarria izen zan Arrasateko Txikitxu-Arrostaitz dantza taldeantzat. Dantza taldeen azken 40 urtietan oiñak dantzan jarri ditzugun danok bildu giñen Arrasateko plazan, baina ez gu bakarrik. Egun hau aurrera eramateko, herriko lagun asko gerturatu zan laguntza emutera eta oinguen guri toketan jaku zuei danoi eskertzia.

Hasteko, eskerrak eman bihar dotzau egun horretan saheskixa, hirugierra, txistorria jan eta kiantzia edateko aukeria eman euzkuen Giokelako partaide dien Aguirre-etxe, Gorca, J.Elorza eta J. Ramon Otamendi harakiñei eta kajoi tabernia. Baita, urteurren hau posible izateko astero ensaietan dabilen eta egun hontan plazan dantzan ibili zien dantzari danei eta honeik danok saltoka jarteko ezinbestekuak dien Arrasateko gaitero eta txistulariei.

Aipamen berezi bat be bai, arratsaldien hasi eta ilunkeran ondion muxutruk lanien ibili zien guraso taldiai.

Bukatzeo eskerrrik asko egun hontan gurekin egon

ziñeten danoi eta ez ahaztu gure urteurrena ospatzeko prestatu dogun ekitaldi nagusixa urriaren 23an izango dala. Hamen be danok elkar ikusiko garelakuen, gero arte batekin agurtzen gare.

Kalea denok adierazteko toki bat da

Laurendi Ugarte
(OGA, AHTrik Ez eta Presoen Lagunen txosnen izenean)
Oñati

Badira urte batzuk Oñatiko Txosna batzordearen egitarau alternatiboa egitarau "ofizialek" kanpo geratu zela euskal preso politikoen eskubideak aldarrikatzeagatik.

Gure egitaraua herriaren aurrean ezagutzera emateko kartelak jarri ohi ditugu.

Baina gure harridurarako behin eta berriz (eta ez da lehen aldia) kartelak berehala kentzen dizkigute. Nork kentzen ditu kartel hauek eta zergatik? Jaien aurreko azken hiru hilabeteetan Oñatiko herriarentzat jaietako egitarau alternatibo bat antolatze aldera biltzen gara eta badirudi ez dugula eskubiderik herriari honen berri emateko. Guk dakigula kalea denok adierazteko toki bat da, baina ematen du batzuentzat bakarrik dagoela tokia. Ikusi besterik ez dago Oñatiko kaleak.

Honekin guztiarekin gure kartelen desagertzea salatu nahi dugu eta oñatiarrei jaietan ondo pasatzea opa dizuegu.

Jaia bai, borroka ere bai.

IRAKURLEAREN GUTUNAK Orrialde honetan ahalik eta gutun gehien kabitze aldera, ez da komeni 1.900 karaktere edo 50 lerro baino gehiagoko gutunak bidaltzea. GOIENKARIAk eskubidea du gutuna laburtzeko. Gutunarekin batera bidali beharko dira datu hauek: egilearen izen eta abizena, herria eta harremanetarako telefonoa. Egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira gutunak.



Ibarra kalea 6
20570 BERGARA



Telefonoa:
943 25 05 01



Faxa:
943 25 05 13



Posta elektronikoa:
goienkaria@goiena.com

San Migelak 2010

SAN MIGEL JAIEN JARRAIPENA MAGAZINEA-N

ARETXABALETAKO SAN MIGELAK
Astehenean, irailaren 27an, 19:45, 21:15 eta 23:30ean.

OÑATIKO SAN MIGELAK
Eguaztenean, irailaren 29an, 19:45, 21:15 eta 23:15ean.

Goitb
Goiena Telebista
Ikustekoa!



Hilabetetako hausnarketa "aberrats eta jendetsuen" ostean, ezker abertzaleak adostu duen estrategia berriarekin tinko jarraitzen dutela dio Agurne Barrusok: "Biolentziarik eta kanpo esku-sartzerik" bakoa eta "masa borroka, borroka ideologiko eta borroka instituzionalean" oinarritua. Prozesuak aurrera egin dezan jendarteratzea beharrezkoa dela dio.

Agurne Barruso > Ezker abertzaleko kidea

"Ezker abertzaleak ziklo bat amaitu du eta alderdi berria sortuko du"

ENEKO AZKARATE > BERGARARA

Bergarako alkatea azkenaldian ezker abertzaleko aurpegi ezagunenetakoa bat bihurtu da. Baikor baina zehurtiaz dihardu ireki den ziklo politiko berriaz eta ETA erakundearen agiriez.

Zazpi urteko kargugabetzea ezarri diote Asier Agirre Aramaioko alkateari AHTren gaineko herri galdeketa antolatze-agatik.

Salatu egin nahi ditut epaiketara eta epaia bera. Demokraziaren kontrako kolpe gogorra da. Munduan ez dira kasu asko egongo alkate bati zazpi urteko zigorra ezarri diotena herriari hitza emateagatik.

Ze irakurketa egiten duzu ETAren azken agiriaren gainean?

Bigarren agiri berri honek baieztatzen du prozesu demokratikoak ez daukala atzera bueltarik. Lehenengo agirian, ETAK alde bakarreko erabaki baten berri eman zuen: ekintza armatu erasokorrek etetea, baldintza eta epe mugarik barik. Gainera, kontuan izan behar da Bruselako adierazpenaren aurretik ETAK agindu ziela bere taldeei ekintzarik ez egiteko. Bigarren honetan, nazioarteko komunitatera zuzentzen da eta prozesua egonkortu egiten du.

Beste agiri batzuk etorriko dira?

Apurka-apurka urratsak egin beharko ditugu denok. Ezker abertzaleak eta ETAK eman dituzte eta eman beharko dituzte. Estatu espainolak eta frantsesak ere eman beharko dituzte, baita gainerako eragileek ere. Prozesu dinamikoak izango den heinean, urratsak egiten joan beharko ditugu denok.

Zelan baloratzen duzu Madrilgo eta Gasteizko gobernuen jarrera?

Ardura barik jokatzen dihardute. Bi gobernuak, PPrekin batera, prozesu hau sabotatzen saiatzen dabilta. Lehenengo agiria ostean, Adierazi Euskal Herriaren manifestazioa debekatu zuten eta ondoren etorri dira atxilotetarako: bederatzita militante atxilotu dituzte eta torturazko salatu dituzte.

Prozesuak aurrera egin dezan zer gertatu behar da?

Ezker abertzaleak bere estrategia finkatu zuenean, indar metaketaren aldeko apustua egin

zuen. Urrats batzuk egin dira eta ematen dihardugu. Hortaz, prozesuaren berme nagusia jendarteraren aktibazioan dago.

Ze aldatu da 2006ko azken ahalaginetik hona ezker abertzalean?

Etengabe egon gara hausnarketa prozesu baten, baita 2006a aurretik ere. Azken su-etenetik hona aldatu dena da eztabaida aberats eta jendetsuaren ondorioz estrategia aldatu dugula.

Ainhoa Etxaide LABeko idazkari nagusiak esan du ezker abertzale legez kanporatuak alderdi berria sortzeko unea iritsi dela. Hala uste duzu?

Esaten dugunean ziklo politiko berria zabaldu dela Euskal Herrian, esan nahi dugu, besteak beste, ezker abertzaleak ere ziklo bat amaitu duela eta alderdi berria sortuko duela.

Alderdien legeak dioena beteko luke alderdi berri horrek?

Ezker abertzaleak argi eta garbi esan du ze borroka mota erabiliko duen: masa borroka, borroka ideologikoa eta borroka instituzionala. Prozesua biolentziarik eta kanpo esku-sartzerik bakoa izatea nahi dugu. Bide horretatik segituko dugu.

Udal eta foru hauteskundeetan egongo zarete?

Ezker abertzalea egongo da, uste dugulako eskubidea izateaz gain herri honek ezker abertzalearen beharra ere badaukala. Gure ardura da. Nahiz eta prozesua hurrengo urteko hauteskundeak baino harantzago doan, inportantea da borroka instituzionala eta 2011n hauteskundeetan egongo gara.

Aurreikusten duzue EAekin aurkeztea hauteskundeetara?

Eurekin sinatu dugun ituna estrategikoa da, baina ikusi beharko da bidean ze erabaki taktiko hartzen den eta estrategia horrendako onuragarria bada hauteskundeetarako akordioak egitea EAekin, egingo dira eta ez bada, ez dira egingo. Momentuak eta egoerak esango du hori, ez daukagu aurreiritzirik.

Zelakoak dira harreman politikoak Aralarrekin?

Zabaldu da harreman dinamika bat. Bilguneak bultzatu nahi ditugu ezkerreko eta abertzale diren indarrek.



Agurne Barruso, ezker abertzaleko kidea eta Bergarako alkatea.

ENEKO AZKARATE

GOBERNUEN JARRERA
"Madrilgo eta Gasteizko gobernuak, PPrekin batera, prozesua sabotatu nahi dute"

BAT EGITEA

"Alderdi abertzale eta ezkertiarrekin elkarlanerako prest gaude"

EAekin sinatutako akordioa batzea aurreikusten duzu Aralar eta Alternatiba?

Akordioa oinarri bat da, baina beste akordio batzuk egin daitezke beste eragile batzuekin. Ez dago zertan batu EA eta ezker abertzalearen akordioa. Akordio eta indar batze dinamika bat bilatzen dugu.

Posible ikusten duzu ezker abertzale legez kanporatua Nafarroa Bai koalizioan?

Nafarroan, Euskal Autonomia Erkidegoan bezala, gure pres-

tutasuna agertu dugu aldaketa politikorako. Hori da helburua. Gainerako alderdi abertzale eta ezkertiarrekin elkarlanerako prest gaude. Horrek ez du esan nahi ezker abertzaleak Nafarroa Bai sartu behar duenik. Aldaketa gauzatzeko beharrezkoak direnak egiteko prest gaude.

Aldaketa politikoa etor daiteke Nafarroara?

Bai. Posible eta beharrezkoa da. Baditugu aukerak eta modu arduratsuan eta ondo jokatu beharko genuke denok. Lehen ere egon dira aukerak eta oraindik badaude, baldin eta denok ondo jokatzen baditugu gure kartak.

Ze irakurketa egiten duzu udako kale istiluen gainean?

Bergaran San Martin jaiak igaro berri dira eta lorategi oso bateko zuhaitz guztiak puskatu dituzte gauez. Horiek zabor edukiontzia ez direnez... Kontu honetan asmo jakin batzuk egon dira ekintza horiek kale borrokarekin lotzeko. Prozesua desitxuratze aldera, hedabideetan mezu jakin bat zabaldu nahi izan dute, nahita. Baina berriro diot: ezker abertzaleak, barne eztabaida sakonen bitartez, erabaki du biolentziarik eta kanpoko esku-sartzerik barik egitea bidea; hortaz, estrategia horretatik kanpo dagoena ez dator bat gurekin.

Zelan ikusten duzu EAJren eta Zapateroren arteko negoziatioa Espainiako aurrekontuei babes ematearen truke?

EAJren egoera zaila da. Bateatik, dauka espainolismo zahar hori eta, bestetik, azaleratzen dago mugimendu independentista. Eta EAJ dago erdian. Ogi apur batzuk kudeatzeko aukera ematen dion alderdi erregionalistaren papera jokatzen dihardu.

Jose Luis Elkoro Bergarako alkate izandakoa espetsxean dago, 75 urterekin.

Etxean ikusi nahiko nuke. Estatuaren beste bidegabekeria bat da. Kontu honetan lortu da herria bera eta 1976tik hona Bergarako udal hautetsi izan diren ia kide guztiak bat etortzea Jose Luis libre uztea eskatzeko. Baikorra naiz alde horretatik, baina estatu espainolak badaki maltzur eta gordin jokatzen.

goiena.net/bideoak
Elkarriketa osoa, webgunean.

LANBIDE HEZIKETA

OÑATIKO INSTITUTUAN

2010-2011

%100
DIRUZ
LAGUNDUTA



LANGILE ETA LANGABETUENTZAKO IKASTAROAK

EUSKAL HERRIKO LANBIDE KUALIFIKAZIOEN SISTEMARI LOTUTA (KATALOGO MODULARRA)

IKASTAROAK	ORDUAK	AURREIKUSITAKO DATA
MEKANIZAZIOA		
KROKIZAZIOA	40	2010 / 10 / 13
METROLOGIA – EGIAZTAPEN DIMENTSIONALA	40	2010 / 10 / 25
LAN ARRISKUEN PREBENTZIOA	40	2010 / 11 / 15
TORNU KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2010 / 11 / 15
TORNO CNC PROGRAMAZIOA	50	2011 / 01 / 10
TORNO CNC MEKANIZAZIOA	50	2011 / 01 / 31
FRESATZEKO MAKINA KONBENTZIONALEKO MEKANIZAZIOA	80	2011 / 02 / 21
FRESA CNC PROGRAMAZIOA	46	2011 / 05 / 09
FRESA CNC MEKANIZAZIOA	50	2011 / 05 / 30
MANTENUA ETA MUNTAIA ELEKTROMEKANIKOA		
MANTENTZE MEKANIKOA	60	2011 / 02 / 28
MANTENTZE ELEKTRIKOA	80	2011 / 01 / 17
AUTOMATISMO NEUMATIKO ETA ELEKTRONEUMATIKOA	40	2010 / 11 / 08
DISEINUA		
CAD 2D - AUTOCAD	40	2011 / 01 / 17
CAD 3D - SOLID EDGE I - MOD. ETA PLANOAK	40	2011 / 02 / 07
CAD 3D - UNIGRAPHICS	40	2011 / 03 / 14
SOLDADURA		
SOLDADURA ELEKTRIKOA	55	2010 / 10 / 25
SOLDADURA MIG-MAG	50	2010 / 11 / 22
SOLDADURA TIG	50	2011 / 01 / 10
SOLDADURA OXIAZETILENIKOAK	60	2011 / 01 / 31
INFORMATIKA		
MS WORD	20	2010 / 11 / 15
MS EXCEL	20	2010 / 12 / 13
MS ACCESS	20	2011 / 01 / 17
INTERNET ETA KORREO ELEKTRONIKOA	20	2011 / 01 / 31
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK		
EGUZKI ENERGI FOTOBOLTAIKOA ETA TERMIKOAK	40	2010 / 11 / 15

**IZENA EMATEKO
EPEA ZABALIK**

IZENA EMATEKO:

Oñatiko Institutua
Larrañako Lanbide Heziketa Egoitzan
San Lorentzo auzoa z/g
Tel.:943 78 21 50
09:00-13:00 / 13:30-17:30
www.onati.net

zuazola-larraña
Oñatiko b.h. institutua



EMPLEU ETA GAZTARIE
GABETZE SAHIA
DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y ADAPTACIÓN SOCIAL



Dukiena jatetxea

Azkoaga auzoa / ARAMAIO
945 44 50 86

Eskaintza

- Menua eta karta
- Jaunartze eta bataioak
- Enpresa bazkariak
- Lagun eta familia arteko ospakizunak

Berezitasunak

- Arrain freskoa laban erreta
- Etxeko postreak

Astelehenetan itxita



Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72

Eskaintza

www.errekajatetxea.eu

- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

Igande gauean eta astelehenetan itxita



Etxe-Aundi

Torre auzo 9 / OÑATI
943 78 19 56

www.etxeaundi.com

Eskaintza

- Ezkontzak
- Karta
- Asteburuetarako menu bereziak
- Eguneko menua
- Enpresentzako harrera gelak
- Aparkalekua

Egunero zabalik



Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15

www.larrinetxe.com

Eskaintza

- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

Martitzenetan itxita

Jatetxe

Gida



Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 33. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55

www.restaurantelasa.com

Eskaintza

- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Eguneko menu bereziak astewartetik ostiralera.
- Kongresuetarako aretoa.
- Parking.

Gipuzkoako bankete-jatetxe onenaren Mas Gastronomia 2009 saria.



Unzueta sagardotegia

Zabola z/g / ARAMAIO
945 44 50 95

Eskaintza

- Sagardoa txotxetik urte osoan
- Sagardotegiko menua
- Karta
- Eguneko menua
- Parking eta terraza
- 70 lagunendako tokia
- Bataio, jaunartzeak eta kintadak

Egunero zabalik



Zotz jatetxea

Zubillaga auzoa / OÑATI
943 78 35 45

Eskaintza

- Eguneko menua
- Ogitartekoak
- Hamarretakoak

Berezitasunak

- Menu bereziak egubakoitz eta zapatuetan

Igandean itxita



Kalitate turistikoa

Zumelaga jatetxea

San Antonio 3 / BERGARA
Tel.: 943 76 20 21

www.zumelaga.com

Eskaintza

- Enpresako bazkari eta afariak
- Despedidak, ezkontza eta bataioak
- Karta eta menu berezia
- Elbarriendako sarrera eta irteera egokituak

Igande eguerdian zabalik
eta astelehenetan itxita

Herriak

Arrasate > 12-15 Bergara > 16-19 Oñati > 20-21 Aretxabaleta > 22-23 Eskoriatza > 24 Antzuola > 25 Aramaio > 26 Elgeta > 27 Gatzaga > 27




> **ARRASATE**
Erraldoi eta Kilikien Konpartsak jasoko du inbutua gaur > 12



> **OÑATI**
Bost egunean itxita egongo dira Moia eta Errekalde, asfaltatzeko > 20



> **ARETXABALETA**
Euskarazko berba praktika taldeetan izena emateko aukera dago > 22



> **ARAMAIO**
Gasteizko Folk On taldeak kontzertua egingo du gaur, egubakoitza > 26

ANTZUOLA > NAGUSIAK

Eguneko Zentroak 'kartara' emango du zerbitzua, premien arabera

MEMORIA LANTZEKO

Hil eta erdian, memoria tailerra izango da, erretiratu guztiondako zabalik

EGUN ERDIAK

Nahi duenak aukera dauka zentroa egun erdiz erabiltzeko, edo bazkaltzeko bakarrik

LEIRE KORTABARRIA > ANZUOLA

Torresoroako Eguneko Zentroak hasieratik izan du herritarren beharrei egokitzeko bokazioa, eta haien premien arabera zerbitzua ematea. Bide horretan jarraituta, bere eskaintzan aukera berriak daude: batetik, memoria tailerra; eta, bestetik, zerbitzua *kartara*, norberak komeni zaizkion egun eta ordutegietan erabil dezan Eguneko Zentroa.

Berritasunon gainean hitz egiten digu Udaleko Gizarte Ongizate saileko teknikari Karmele Kortak: "Memoria tailerra urri hasieratik azaro erdialdera egingo dugu, proba moduan. Zentroaren ordutegitik kanpo izango da, 18:00etatik 19:45era. Batez ere, 60 urtetik gorako erretiratuei dago zuzenduta, taldea homogeneoa izan dadin, baina adin horretatik azpiko bateren batek beharra baldin badauka ere aztertuko genuke. Ikastaroa doan da". Kortak gaineratzen du, hasieran, ikastaro horixe egingo dutela, eta gero ikusiko dutela jarraitu edo ez.

Izenemate epea zabalik dago irailaren 30era arte, eta dagoeneko herritarren batek interesa agertu du.

Tailerrean parte hartzeko ez dago Eguneko Zentroko ohiko erabiltzaile izan beharrik: "Zentrorra gerturatzen den edozein herritarrek zabalik ditu atea, eta erretiratu guztiei eskaini nahi diegu zerbitzu hori", esaten du Gizarte Ongizateko teknikaria.



Eguneko zentroko erabiltzaile batzuk, zuzendariarekin eta osasun laguntzailearekin.

LEIRE KORTABARRIA

EGUN SOLTEETAN JOAN DAITEKE

Memoria tailerra adibide bat da; Eguneko Zentroak bere eskaintza osoa antzuolarron arabera egokitzen jarraitzen du, eta beste berritasun nagusia horixe da: "Gogorarazi nahi diogu jendeari zentroa bere beharretara erabiltzeko aukera duela. Horregatik, goizez bakarrik, arratsaldez bakarrik, egun batzuk... erabili nahi duenak hala egin dezake", dio Karmele Kortak. "Batzuk goizeko lehen orduan etorri eta 17:30

arte egongo dira zentroan, eta egunero; baina beste batzuek noizean behin, beti goizean, beti arratsaldean, pare bat egun edo bakarrik bazkaltzeko behar izango dute", gaineratzen du.

Foru Aldundiaren tarifen arabera, egun osoan erabiltzen duenak 13 euro ordaindu behar du eguneko; egun solteetan joaten denak ere tarifa bera izango du. Egun erdiz joaten denak tarifa horren erdia ordainduko du; eta jangela bakarrik erabili behar

duenak, 6 euro. Azken aukera hori jangela bakarrik ere nahi berria da: orain hilabete batzuk hasi ziren hori ematen Eguneko Zentroan.

Bakarrik bazkaltzera joan nahi dutenek arduradunekin hitz egin behar dute lehenengo: "Guri aldeztu aurretik jakinarazi behar digute ze behar izango dituen pertsona horrek: adibidez, astean egun baten, bitan... etorriko dela; edo egun jakin baten etorri behar bada ere, aldeztu aurretik abisatu behar digute", esaten du Kortak.

BERGARAKOAK ERE ANZUOLAN

Orain, Bergarako Eguneko Zentroa itxita dago, berria egiten dabilzalako -datorren hilean irekitzeko asmoa dago-, eta Bergarako erabiltzaileak ere hartzen ditu egunotan Antzuolako zentroak.

Nagusiendako lau etxebizitza tutelatu ere badaude Torresoroan.

LABUR

Autobusa eta otorduak ere barne

Irailan, hain justu, bi urte egingo ditu zabalik Torresoroako Eguneko Zentroa. Hasieratik, helburua izan da jendearen eskaerari erantzutea. "Herri txiki bateko zentroa da, eta dauzkagun aukerekin ahalik eta zerbitzu bariatuen eman nahi dugu", esaten du Udaleko Gizarte Ongizateko teknikari Karmele Kortak.

Tarifak Foru Aldundiak ezartzen ditu, eta horren barruan daude garraioa, bazkaria eta merienda, eta zentroko zerbitzu guztiak.

Han, "pertsonek arabera kopuruan" ibiltzen dira langileak; bestalde, terapia begiralea dago, fisioterapeuta bat etortzen da astean behin, eta aipatu behar da bazkaria han bertan egiten dutela, zentroko sukaldean.

ESANAK

"Eguneko Zentroa nork bere beharren arabera erabiltzeko aukera dauka, eta hori gogorarazi nahi diogu jendeari"

Karmele Korta > Gizarte Ongizate teknikaria

ESANAK

"Memoria tailerra urri hasieratik azaro erdialdera egingo dugu, eta denoi zabalik egongo da; gainera, doan da"

LAPURRETA > KIROLDEGIAN

Oraingoan Mojategi kable barik utzi dute

12.000 eurotan baloratu dute kiroldegitik lapurtutako materiala

UBANE MADERA > ARRASATE

Ia 1.000 metro kable; hori da martitzen gauean lapurrek Mojategi-ko instalazioetatik eraman zutena. Dirutan, 12.000 eurotan baloratu dute materiala, baina hor sartu barik daude eskulana eta

bestelako gastuak. Eta jakina, kopuru horren barruan sartu barik dago, baita ere, Arrasateko klubei eragingo dien kaltea.

Iturri ez ofizialen arabera, gutxienez 15 egun beharko dituzte orain kableak ordezkatzeko

KLUBENDAKO KALTE

Lapurretaren ondorioz, argi barik dago Mojategi. Argi barik egoteak esan gura du ez dutela ur berorik, ezin dituztela Mojategi aldagelak erabili eta 20:00etatik aurrera ezin dutela ez

entrenatu eta ezta partidurik jokatu ere. Futbol eta errugbi klubekoei eta atletismoa praktikatzen dutenei eragiten die horrek, baita paddle pistei ere.

IKERKETA ZABALIK

Kiroldegiko arduradunek salaketa ipini dute Bergarako ertzain etxean. Herrizaingo Saitetik emandako xehetasunen arabera, eguaztenean bertan izan zen poliziaren patruila bat lekua ikuskatzen. Lapurtutako kable kopurua ikusita (980 metro, zehatz-mehatz), Ertzaintzak uste du furgoneta bat edo kamioi txikiren bat erabili behar izan dutela kableok eramateko. Ikerketa zabalik dutela eman dute aditza, eta oraingo ezin dutela susmagarrien gaineko ezer ere esan.

bere ustez



Oihan Zubizarreta

Argia garesti ordaintzen da

Argiaren prezioa garestituko ei da. Bistan da ilunpetik ateratzeko garesti ordaindu behar dela. Eta konparazioak, kasualitateak edo kointzidentziak tarteko, gure herrian garesti daude berriz ere kontuak. Batzuk ilunpean bizi diren bitartean, gustura ei daude besteak, iluntasunak batzuei sortzen dizkien miseriaren kontura bizi diren parasitoak. Ilunpean bizitzera ohituko ziren akaso eta ilunpean bizitzera kondenatu nahi gaituzte besteak.

"Ilunpean bizitzera ohituko ziren akaso eta ilunpean bizitzera kondenatu nahi gaituzte"

Baina argi izpiak gure begien aurrean pizten hasi dira, ilunpetik ateratzeko leihoak irekitzen hasi dira. Eguzkiaren argia baino hobirik ez baitago ilunpetik ateratzeko.

Eta eguzkiaren parean jartzen dira, laino beltzak bailiran, besteoi argia kentzeko. Ordainarazi egin nahi digute, faktura garestitu.

Argirik onena ordea, gure baitan dago. Zeruertzean piztuz joan diren izar gorrietan akaso.

Eta ez ditzala argiak gure begiak erre. Gezurrak, goseak edo herioak begiak argi izan ohi dituzte... baina egiak argitan ikusten dira hoberen. Denborak eta guztion indarrak argitu dute ilunpea. Argiari egia zor.

JAIK > MARITXU KAJOIKO NOBENAIXUE

Oinaztar eta ganboatar erraldoiek dantza eginez eskertuko dute "inbutu preziatua"

18:30erako egin dute Maritxuren Nobenaixorako hitzordua; gertu dituzte ogia, gazta eta, jakina, ardoa



Oinaztar eta ganboatar bikoteen erraldoiak.

GOIENKARIA

U.M. > ARRASATE

Gonbidatu bereziak izango dituzte gaur, egubakoitz, Maritxuren Nobenaixuan: Arrasateko Erraldoi eta Kilikien Konpartsa. "Azken 25 urtietan Arrasate girozen egindako lanagatik" konpartsa entregatu behar diote gaur iluntzean aurtengo inbutu preziatua. Eta konpartsa kideek pozik hartuko dute errekonozimendua: "Pozik egotekoa da", dio Joserra Perezek, konpartsa lehendakariak. Eta esker onez hartuko dute, gainera, inbutua:

"Ahaleginak egin behar ditugu gaur egun konpartsan parte hartzen dugunetik gehienok joateko. Erraldoiak eramango ditugu dantzatzeko bat egiteko".

AHAIDE NAGUSIAK MARITXUPEIAN

Beraz, iluntzean dantzan ikusiko ditugu Gomez Gonzalez de Butron eta Elvira de Leiba oinaztarrak eta Martin Bañez de Artazubia eta Sancha Otxoa de Ozaeta ganboatarrak; oraingo honetan borroka barik jaia ospatuko dutela agindu dute ahaide nagusiek.

Konpartsa txikia Maritxu egunean

Maritxutan, berriz, konpartsa txikia aterako da: "Ordubeteko irteera egingo dute; guk egiten genuena, baina azkartxoago (19:00). Eta erreleboa txikiak hartu dutenez, lore eskaintza ere eurek egingo dute", azaldu du Joserra Perezek, konpartsa lehendakariak.

Zelanbaiteko erreleboa, beraz, badator konpartsaokendako, baina gehiago behar dute: "Oso nagusi gutxi gabiltza, Arrasateko irteerak egiteko justu, eta Arrasateko kiliki guztiak atera barik", dio Perezek.

25 urte baino antzinakoagoa den tradizioa gal ez dadin behar du laguntza konpartsak.

GARAIA
JATETXEA

MARITXUTAKO AFARIA

Sarrerak: frijituak (denetariokoak)

1. Entsalada epela, gula eta izokin ketuzkoa.
2. Bakailoa saltsa berdean, arrazio erdi.
3. Solomilloa plantxan goarnizioarekin, arrazio erdi.

Postrea: tiramisú-tarta
Edaria: kriantza, ardo gorria...
Kafea.

Prezioa: 35 €
Erreserbak: 943 71 02 28.



Ordutegia:
KAFETEGIA : 07:45-18:00.
JANTOKIA: 12:30-15:30.

Goirul (Polo Garaian Innovación)
Tel.: 943 71 02 28
garaia.ostalaritza@ext.grupogureak.com



> HILERRIA

Nitxoetako gorpuzkiak aterako dituzte urtarrilean

San Kristobal hilerriko nitxoetan 2000ko bigarren seihilekoan lurperatutako hildakoen gorpuzkiak atera egingo dituzte 2011ko urtarrilaren 1etik aurrera. Hori horrela, gorpuzki horiekin zer egin adierazi gura dutenek irailaren 30erako jakinarazi behar diote hori Udalari; bestela, San Kristobalgo hezurtegi komunean utziko dituzte gorpuzkiak.

Aukeratu bizi izateko espazio libre bat

biodantza

Rakel Ampudia

Biodantzan Euskal Herriko lehen tituluduna,
IFB ziurtagiria eta 9 urteko esperientzia.

*IFB nazioarteko erakundeak 3 urteko prestakuntza bermatzen du.

Asteazkenero
19:30etik 21:30era
Arrasate Yoga elkartearen
(Altamira)

Ate irekiak: Irailaren 25ean,
11:00etatik 12:00etara
Arrasate Yoga Elkartearen
(Altamira)

Informazioa:
679 441 229

biodanzavitoria@gmail.com
www.biodanzavitoria.com

IRAILAREN 24EN, BARIKUE EDO EGUBAKOTZA

- 19:30 Jaixen hasierie, ikurriñe igo eta etxaflero jaurtiketie.
19:30-22:00 Trikitilarixek ibiliko die kalejiran.
22:00 Dantzaldixe IÑIGOrekin.

IRAILAREN 25IEN, ZAPATUE

- 10:30 Garagartzako Leze-Txiki ekipoko gaztetxuenen artien futbol partidue
12:00 Meza auzoko hildakuen aide
12:00-14:00 Umiendako herri-kirolak AMA-LUREkin.
16:00-18:30 Garagartzako VI. Kobate Open futbol partiduek (umiendako)
18:30-20:30 Gorriti eta bere animalixak.
22:00 Dantzaldixe TITAU taldeaz.
23:00 Su artifizialak

IRAILAREN 26XEN, DOMEKA

- 11:00-14:00 SEGWAY ibilgailu ekologikuek eta umiendako, Rollerak.
11:00 Meza nagusixe.
13:00 Txikitxu taldeaz euskal dantzak.
14:00 Garagartzako auzotarren esker ona bertako bizilagun berezi bati.
14:00-14:30 Musika apur bat, TITAU taldeaz
14:30 Auzo baikaxe
Bazkalostien erromerixie, TITAU taldeaz.

BARIKUEN ETA ZAPATUEN BUZKENTZAK EGONGO DIE

ATSALDEKO ZAZPIRETATIK AURRERA, AUZOETXIEN.

IRAILAREN 29XEN, EGUAZTENA

- 19:30 Meza Samigelen oroimenez.
Meza ostian luntxa egongo da auzoetxien.

SAMIGELAK 2010 GARAGARTZA auzoan


Elizondo Kafetegia

San Migeletako ohitura onak berreskuratzeko
irailaren 24an, 25ean eta 26an
buzkantzak eta ardi-okela
eskainiko dizkizuegu.



Garagartza auzoa

943 79 15 99

 **Kobate** HARROBIA
obaundi HORMIGOIAK
Ondo pasau Garagartzako jaixetan

Tel.: 943 71 24 03. Faxa: 943 77 02 51 Posta kutxa: 85. Garagartza auzoa.



Belun

Garagartza auzoa Tel.: 943 79 61 14

UGARAN

Jatetxea

ARRETA HANDIKO
SUKALDEA
GIRO
ABEGIKORRA

Garagartza auzoa
943 79 76 58
ARRASATE

*Paraje eder
baten kokatua*



Arteaga

Landetxea

Arteaga baserria,
Garagartza auzoa, 37 zenbakia
20500 Arrasate • Gipuzkoa
Tel. 943 71 18 81
Faxa: 943 71 18 82

INGURUMENA > MUGIKORTASUN ASTEA

Udala pozik dago parte-hartze handiagatik

Ekimena arrakastatsua izan den arren, beste mugikortasun eredu bat lortzea "denon ardura" dela deritzo Udaleko Garapen Iraunkorreko Sailak

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Ipar gazi- Hego geza ikus-entzuzkoarekin amaitu zen eguaztenez Mugikortasun Astea. 15 bat pertsona bildu ziren Kulturategiko Jokin Zaitegi aretoan, nahiko jende gutxi. Hala ere, Udala pozik dago astean zehar egindako ekintzek izan duten parte-hartzearekin. Nerea Lazpiur Garapen Iraunkorreko teknikariak honela azaldu du: "Ekintza gehienek eduki dute harrera ona, parte-hartzea nahiko handia izan da. Autobusaren erabileraren datuak ez dauzkagu oraindik, baina, ikusitakoaren arabera, asko erabili da; orain, urbanoa bultzatu behar dugu".

Bizikleta azoka izan ohi da, zalantza barik, ekimeneko ekitaldirik jendetsuena. Zazpigarrenez antolatuta da aurten eta jasotako materialaren %70 saldu zen: 65 bizikleta zeuden eta 50 gutxienez saldu ziren. Dagoeneko bailara mailan ezaguna da Bizikleta azoka. Azoka zabaldu aurretik jen-



Laubide plazako bide hezkuntza zirkuituan ondo pasatuz ikasi zuten gaztetxoek. J.B.

de asko itxaroten zegoela azaldu dute antolatzaileek, eskaintza onenaren bila. Izan ere, egoera onean eta prezio merkean zeuden bizikletak azoka zabaldu bezain pronto saldu ziren.

Bestalde, domekako bizikleta bira ere arrakasta borobila izan zen: Aretxabaleta eta Eskoriatzakoekin batera 200 pertsona bizikletan, eguraldi bikaina eta tropelean giro aparta.

ERAGINA NEURTZEA, "OSO NEKEZA"

Lazpiurren ustez, halako kanpainen herritarrengan izaten duten eragina neurtzea "oso nekeza" izaten da: "Askok landu behar dira eta helburuak epe luzera lortzen dira", dio. Mugitzeko beste eredu bat lortzea "denon ardura" da, Lazpiurrek dioenez: "Ez gara konturatzeko autoen eraginaz; norbera konturatu behar da, eta horren aurrean neurriak hartu".

JAIK > SAN MIGELAK

300 kilo buzkantza pasatxo eta egitarau zabala: heldu dira jaiak Garagartzara

J.B. > ARRASATE

Garagartzako San Migel jaiak gaur hasiko dira, 19:30ean, ikurrina jasota eta etxafuegoen jaurtiketarekin. Ordurako, baina, Patxixena auzo-etxea jendez lepo egongo da, jaien bereizgarri diren buzkantzak dastatzeko irrikan egongo diren herritarrez lepo. Gaur eta bihar 19:00etan dastatu ahalgo dira.

Agirreurreta eta Otamendik 300 kilo buzkantza pasatxo eramango dituzte aurten Garagartzara. Jose Ramon Otamendik gogoratzen duenez, 1980 inguruan hasi zen Manuel Agirreurretarekin batera buzkantzak Garagartzarako egiten. Eta orduetik, euren harategietarako prestatzeaz gain, urtero prestatzen dituzte 300 bat kilo jaietarako.

EGITARAU, EKITALDIZ LEPO

Haur, gazte eta helduendako urteroko egitarau zabala izango da asteburuan. San Migel egunean -hilak 29-, bestalde, meza egongo da, 19:30ean. Gero, luntxa Patxixenean.



Aurtengo buzkantzak, gertu. J.B.

> ELKARRETARATZEA

Euskal presoen eskubideen alde, ELA, LAB eta ESK-k deituta

ELA, LAB eta ESK sindikatuek deituta, elkarretaratzea egingo da gaur Herriko plazan, 19:30ean. Ekitaldiaren helburua da, hileko azken egubakoitzetan egiten den moduan, euskal presoen eskubideak aldarrikatzea. Gaurkoa sindikatuek deitu dute, izan ere, azkenaldian eragile ezberdinek antolatu dituzte elkarretaratzeak; musika taldeak edo kultur elkarteak, esaterako.

> DANTZA

Txikitxu-Arrostaitzen zozketako lehen saria: 4.746 zenbakiarendako

Txikitxu-Arrostaitz taldearen jaialdiko zozketako zenbaki sari-tuak jakinarazi dituzte. Lehen saria 4.746; bigarrena 3.011 eta hirugarrena 2.289. Lehen zenbakiaren jabeak Zumaiako Talasozelai hotolean talasoterapia zirkuitua eta bazkaria irabazi ditu, bigarrenak Eskoriatzako Otzeta jatetxean bi pertsonarendako afaria eta hirugarrenak argazki-kamera bat.



PLAZAKO DANTZA TRADIZIONALAK

2010-2011 ikasturtea

NOIZ: Astelehenetan (urritik ekainera)
ORDUTEGIA: 1. maila 18:30 - 20:00
 2. maila 20:00 - 21:30
NON: AED (Pablo Uranga 4 - Arrasate)
HASIERA: Urriak 4
IZENA EMATEA: AED (943 77 12 28)
 aed@aedelkarte.com
 Epea: Urriak 1

Antolatzailea

PORTALOI taldea
Herri kantu eta dantza

Laguntzailea

aed
arrasate
euskaldun
dezagun

Nahi duzu umore on eta barre algaraz
Maritxu beste modu baten hasi?

Ile biltzeak
eta makillatzeak
25 €

GORKA

Etorri Gorka ile-apaindegira!

Ferrerias 35 • ARRASATE
Tel.: 943 77 13 78Bainetxe 10 • ARETXABAleta
Tel.: 943 79 20 25

Monte taberna

Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

KIMETZ

taberna

Plater konbinatuak
Ogitarteko hotz eta beroak
Hamburgesak
Pintxoak
Razioak

943 10 97 30
Maalako Errebala 15. ARRASATE



Besaideko lagunak ekainean Europako Mendietan -Peña Prieta eta Coriscao artean- egindako mendi ibilaldian. WWW.BESAIDE.ORG

BESAIDE > MENDI HAMABOSTALDIA

Pirinioetan zeharkaldi batekin hasiko dute hamabostaldia

Urriaren 9tik 12ra mendi zeharkaldia antolatu du Besaidek, eta Balaitus ingurura joango dira

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Besaide mendi elkarteak gertu du mendi hamabostaldia, eta, urtero moduan, hainbat hitzordu pres-tatu dituzte mendizaleendako. Lehenengo hitzordua urriko zubian (urriak 9-12) egingo duten mendi zeharkaldia da, Balaitus aldera: "Ibilbidea Lac d'Estaing, Walloneko aterpea, Larribeteko aterpea, Migouelouko aterpea eta Barrage de Tech izango da. Ikus daitekeen moduan, gau bakoitza aterpe batean egingo

dugu, baina izango da mendi ton-torretara igotzeko aukera ere. Paraje hauek Frantziako Pirinio-etako parke nazionalen daude, Balaitous mendiaren inguruan", adierazi du Mikel Bergarak.

Mendi zeharkaldirako izenematea irailaren 28an eta 29an izango da (19:30-20:30), Besaideko egoitzan.

BIDE ZAHARRETAN BARRENA

Urriaren 17an, berriz, Besaidek Arrasateko inguruetan mendi

irteera egingo du, *Arrasateko bide zaharrak berreskuratuz* lelopean. Hala, izenak berak dio herri inguruan desagertzean egon diren bidexkatatik ibiliko direla. Hor ez da izenik eman behar, Monterronen izango da hitzordua, 09:00etan.

Urriaren 20an, berriz, Josune Bereziartuaren bisita izango dugu, *Himalaia familiarekin* izeneko lana erakusten (Kulturate, 19:00). Eta, urtero moduan, Arrasateko mendi bizikleta martxak itxiko du mendi hamabostaldia. Urriaren 23an egingo dute, Joseba Iglesiasen omenez (09:30ean Musakolako kiroldegian).

LITERATURA

Literatura berriketetan izenematea zabalik

X.U. > ARRASATE

Datorren astelehenean, hilak 27, irekiko dute literatura berriketetan izena emateko epea eta urriaren 15era arte egongo da horretarako aukera.

Gainera, kontu horien guz-tien berri Arrasateko liburutegi-ko blogean izango duzue: www.arrasatekoudalbiblioteca.blogspot.com helbidean.

EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ

Aipatzekoa da euskal idazle-ak Arrasatera ekartzeko solasaldiotan egingo duten ahalegina (Uxue Alberdi, Anjel Lertxundi), eta gaztelaniazko saioan Josu Artegaren *Historia universal de los hombres gato* liburuaren partaidetza.

KALE IKUSKIZUNA

'Rezikletas' ikuskizuna zapatuan Seberren

X.U. > ARRASATE

Turukutupa talde gasteiztarren eskutik iritsiko da *Rezikletas* ikuskizun musika-gurera bihar (18:00).

Kale ikuskizun horretan lau aktore musikaririk perkusio kontzertu ibiltaria eskainiko dute, birziklatutako eta berrerabilitako materialen bidez erabat akustikoa den soinua lortuta.

BIZITZA IKUSPEGIA BIRZIKLATU

Rezikletas lanak ikusleari bere sormena eta egungo munduari buruz duen ikuspegia birziklatzeko aukera eskaintzen dio, eta gune publikoetan aritzeko dauden mugen gaineko kritika egiten dute.

> CAPOEIRA

Ume eta hasiberrientzat ikastaroak Eskoriatzan eta Arrasaten

Senzala Euskadi taldeak antolatuta capoeira ikastaroak antolatu dituzte haurrendako eta hasiberriendako.

Ikastaroak Gipuzkoako hainbat herritan egingo dituzte, tartean Eskoriatzan eta Arrasaten. Informazio gehiago hemen: www.senzalaeuskadicapoeira.com webgunean.

> PORRA

Espainiako Vueltako sari banaketa egingo dute gaur Monten

Frantziako Tourrean diru mor-doa banatu ostean, iritsi da urteko azken itzuli handiko sari banaketa egiteko unea.

Gaur, egubakoitza, Espainiako Vueltako sari banaketa egingo dute Monte tabernan, 19:00etan hasita. Eta, Arrasateko txirrindulari Iban Velasco egongo da sari banaketan.

UGARAN

Jatetxea

Garagartza auzoa

Tel.: 943 79 76 58

ARRASATE

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak


Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. pabilioia. 214 posta-kutxa • ARRASATE
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

PUB
HAIZEA



arbolapeta

arrasate
beinke

> JENDARTEA

Bertakoendako TAO txartela udaletxean eska daiteke

Udaletik jakinarazi dutenez, TAO zerbitzu berria dela eta bertakoendako txartela eskuratu nahi dutenek udaletxean egin behar dute eskaria, idazkaritza bulegoetan. Eskariak egin daitezke urriaren 2ra bitartean, astelehenetik egubakoitzera 08:00-14:00 eta 17:00-20:00 ordutegian eta zapatuetan 09:00-13:00 ordutegian.

Eskaria egiteko orduan aurkeztu beharreko dokumentazioa da ibilgailuaren zirkulazio baimena -originaleta eta fotokopia.

Urriaren 2tik aurrera idazkaritzako ordutegia izango da 07:30-13:30.

> JENDARTEA

Eraginkortasunez gidatzeko ikastaroa antolatu du Udalak

Ingurumen Sailak, Energiaren Euskal Erakundearen laguntzarekin, autoa eraginkortasunez gidatzeko doako ikastaroa antolatu du. Urriaren 2an izango da, 09:30-13:30 ordutegian, kultura etxean, eta izenematea zabalik dago.

Atal teorikoa eta praktikoa izango ditu eta parte hartzeko ezinbestekoa izango da B motako gidabaimena izatea, gutxienez sei hilabeteko antzinatekin. Gidatze eraginkorrak hainbat onura eta abantaila ditu. Esaterako, erregaiaren kontsumoa eta CO2aren emisioa txikitzea.

HIRIGINTZA > LANAK

Ur zikinak batzeko saneamendu sarea moldatuko dute Agorrosinen

Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza baliatuko du Udalak zeregin horretarako

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Agorrosin kirol instalazioetan saneamendu sarea moldatzeko lanak egingo ditu Udalak. Gaur egun Agorrosingo ur zikinak errekarera doaz eta Udalak egingo dituen lanekin lortu nahi dutena da ur zikinak bereiztea eta kolektorerara bideratzea.

Agurte Barruso alkateak azaldu duenez, lan horiek egingo dituzte Eusko Jaurlaritzak emandako dirulaguntza batekin. Laguntza hori da 200.092 euro ingurukoa, eta, Barruso alkate-



Agorrosin Ekintza Guneko sarrera.

GOIENKARIA

ak gehitu duenez, Agorrosin kirol instalazioetan saneamendu sarea egokitzeaz gain beste bi proiektu ere garatuko dituzte kopuru horrekin: batetik, udal langileen

gestioa egiteko programa informatiko berria erosiko dute; eta bestetik, kale-hezitzaileen eta Etxadi Kontsultoriaren zerbitzuak finantzatuko dituzte.

Barruso alkateak Agorrosingo saneamendu sareari buruz gehitutakoaren arabera, lanak esleituko dira prozedura negoziatu urteaz, dirulaguntza hori jasotzeko baldintzen arabera lanok gauden urtearen barruan egin behar direlako.

SANTA MARINA AURREKO ZORUA

Santa Marina parroquia aurreko zorua ere konpontzeko da Udala. Hori ere prozedura negoziatu bidez esleitzekoak dira eta lanen aurrekontua 35.000 euro ingurukoa dela aurreratu du Barruso alkateak. "Bideberri pasealekua eta Santa Marinako zubia txukundu eta gero, eragintzen zen Santa Marina aurrea bakarrik konpontzeko. Jende asko pasatzen den gunea da eta ingurua txukuntzen bukatu nahi genuen", gehitu du.

JAIK > SAN MIGELAK

San Migelak ospatuko dituzte gaur hasi eta martitzenera arte Angiozarren

Anselmo Vega eta Rufino Muñoz omenduko dituzte auzoaren alde egindako lanagatik

M.B. > BERGARA

San Migelak ospatuko dituzte asteburuan Angiozarren. Gaur, egubakoitza, hasiko dira jaiak, 19:00etan, danborradarekin. 19:30ean patata tortilla txapelketa egongo da eta 00:00etan karaokea. Bihar, zapatua, haurrendako jolasak egongo dira 17:00etan. 18:00etan briska txapelketa Pagomendin eta 21:30ean sardina-jana. Afarian, gainera, omenaldia jasoko dute Anselmo Vegak eta Rufino Muñozek. Hain justu ere, omenduko dituzte kanpotik iritsita ere auzoaren alde egindako lan guztiagatik: Vegak 25 urte eman ditu



lazko karaoke saioaren une bat.

GOIENKARIA

eskolaren arduradun eta Muñozek erretiroa hartu arte autobus zerbitzua eman du, "defizitarioa izan arren", antolatzaileen esanetan.

Domekan, besteak beste, meza nagusia egingo da 11:00etan

eta 20:00etan zezentxoak egongo dira. Martitzenean, San Migel eguna, puzgarriak egongo dira 16:00etan eta 20:00etan zaindaria zeruratuko dute, ohiturari jarraituz.

Egon kafetegia

ASTELEHENETAN eta ASTEAZKENETAN Euro baten!



Ugarte ardo ondua



San Miguel Selecta garagardoa

07:00etatik zabalik Berezitasunak:

ogitartekoak, sandwichak, hanburgesak eta kafeak

Ibargarai 24 • Bergara
943 76 59 28

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna

Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak

Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 76 39 53

JOXAN
ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

EDEL
TAPIZ DENDA

Etxerako artikuluetan aukerarik haundiena

Alfonbrak, kortinak, kortinoiak, koltzak, edredoiak, etab.

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14 BERGARA

JENDARTEA > NAGUSIAK

Esperientzia Eskola antolatu dute 50 urtetik gorakoentzat

Urriaren 19an hasiko dira eskolak, Miguel Altunan; ikasleek, esperientziak trukatzear gain, formazioa jasoko dute

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Urriaren 19an Esperientzia Eskola abiaraziko dute Miguel Altuna ikastetxean. Esperientzia Eskola hori 50 urtetik gorako pertsoneri zuzenduta dago eta parte-hartzaileek, esperientziak trukatzeko aukera izateaz gain, formazioa ere jasoko dute. Gipuzkoako hainbat herritan dago martxan -Arrasaten 2008a ezker- eta parte-hartzaileak jasotako formazioarekin oso gustura daude.

Bergarari dagokionez, Esperientzia Eskola hori jarri dute martxan Miguel Altuna institutuak, Bizikasi zerbitzuak, Udalak eta Mugabe elkarteak elkarlanean.

ASKOTARIKO EDUKIAK

Ikastaroan honako edukiak jasoko dituzte parte-hartzaileek: osasunaren mantentze eta hobetzea, gizarte harremanak eta komunikazio gaitasunak, memoriaren lanketa, Debagoieneko historia, filosofia, sexualitatea,

dietetika eta nutrizioa, artearen historia, informatika, ekonomia, psikologia, musika, gorputz adierazpena... Horrez gain, gizarte ekintzako proiektu bat diseinatu eta garatu beharko dute, eta horren guztiaren osagarri kultura ekintzak ere izango dituzte ikasturtean barrena: bidaiak, hitzaldiak, bisita gidatuak...

IZENEMATEA ZABALIK

Eskolak martitzen, eguzten eta eguenetan izango dira, 10:00-13:00 ordutegian. Izenemateari dagokionez, dagoeneko zabalik dago eta urteko matrikula da 275 euro -epeka ordaintzeko aukera dago.

Izena emateko edo informazio gehiagorako jo Miguel Altuna institutuan dagoen Bizikasi zerbitzura -sarrera nagusiaren ondoko atea.

DATUA

1.350

IKASLE

Esperientzia Eskola 2000. urtean hasi zen, Donostian, Matia Fundazioaren eskutik, 11 ikaslerekin. Ordutik hona, Gipuzkoa osoko 1.350 lagunek esku hartu dute.

txaloak eta txistuak



LANDER MUÑAGORRI

Seminarioko astigarrak apurtu egin dituzte



Aurreko asteburuan, zapatutik domekarako goizaldean, Seminarioko berdegunean landatu berri dituzten astigar gazteak apurtu egin zituzten. Gertakari horren harira, herritar baten baino gehiagoren kexua jaso dugu. Udalean azaldu dutenez, hamar astigarretatik zortzi apurtzeaz gain -asteburu bat lehenago beste bat apurtu zuten-, Telefonicako aldapako loreak ere apurtu zituzten.

oharrak

IKASTAROA

> **Jardunek plazako dantzen ikastaroa abiarazi du**

Irailaren 28an hasiko dira eskolak eta martitzenetan izango dira: 19:30-20:30 ordutegian izango da hastapen maila eta 20:30-21:30 ordutegian jarraipen maila. Irakaslea Patxi Montero izango da. Prezioa da 12 euro hilean -10 euro

Jarduneko bazkideendako-. Izena emateko jo Jardunera edo deitu 943 76 36 61 telefono zenbakira.

HEZKUNTZA

> **Miguel Altunan matrikulatzeko azken egunak dira**

Programazioaren produkzioa fabrikazio mekanikoan delakoa arratsalde, eskaintza partzialean

egiteko, eta sarrera probako gaiak prestatzeko ikastaroan izena emateko azken eguna irailaren 30a da.

KIROLA

> **Igeri elkarteko alebinak eta benjaminak hilaren 27an hasiko dira**

Astelehenean hasiko dute ikasturtea, igerilekuan: alebinek 17:15ean eta benjaminak 18:15ean.

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

TELEIXA BILTEGIAK

Eraikuntza materialak

Telleria (Labegaraieta)
BERGARA
Tel.: 943 76 27 93

Sugoi

ERLOJUAK,
ARTIKULU
ELEKTRONIKOAK,
KALKULAGAILUAK...

Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

SANTOS

TIEN 21

Etxetresna elektrikoak eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tel.: 943 76 26 10

Mujika
gozotegia

Bizkotxoak
Erreilenoak
Tostoiak

Artekalea 3 **BERGARA**
943 76 10 34

BERGARA MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA

Sukalde eta bainu enzimerak

Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

DRAGON ORIENTAL

Gure plateren prezioak ez ditugu igo.

Eta gainera, plater berriak dauzkagu.

Proba itzazu!

943 25 06 77

Fraiskozuri plaza 7 (Frontoi parean)
BERGARA

Xanpainazko sangria BERRIA

BEHEKO TABERNA

Menestra eta untxia dira gure berezitasunak

ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74

ARANE KRISTALDEGIA

Artekalea, 18-behea.
BERGARA
Tel.: 943 76 74 09
670 483 903

> FUTBOLA

Bergarak dirua batzeko kanpaina abiarazi du

Bergara kirol elkarteak dirua batzeko kanpaina abiarazi du, arazoak dituzte-eta aurrekontua osatzeko. Bazkide gehiago eta, besteak beste, Agorrosinen publizitatea jartzeko eskaintza egin nahi dute.

> MENDI BIZIKLETA

Boluntarioak behar dira urriaren 3ko martxan laguntzeko

Lokatzak mendi bizikleta mar-txa antolatu du urriaren 3rako, baina antolaketa lane-tan laguntzeko –egunean ber-tan eta lehenago– boluntario-ak behar dituzte. Gertu bazau-de, deitu hona: 653 73 74 77.

> ZOZKETA

Bergarako Realzale taldearen auto zozketa domekan

Bergarako Realzaleak talde-ak autoa zozketatuko du oraingo domekan, ONCEko zerbaki saritua erabilita. Hala, talde txuri-urdinaren jarraitzaileen batek auto berria estreinatuko du.



Bergarako igeriketako taldeko ordezkariek, Donostian, Kontxako badia atzean dutela.

CARMEN



Jon Muxika.

CARMEN

IGERIKETA > DISTANTZIA LUZEKO LIGA

Bergarako igerilariek harrobi ona dagoela erakutsi dute ligan

Azpirarratzekoa da Jon Muxikak C mailan lortutako bigarren postua

XABIER URTZELAI > BERGARA

Dagoeneko amaitu da 2010eko distantzia luzeko X. igeriketa liga, eta, denboraldian izan dituzten sei probetan esku hartu ostean, infantil mailako sailkapenean erretratuko neska-mutikoak

laugarren sailkatu dira. Lasterketa horiek izan dira: Getaria-Zarautz proba, Txingudiko badiako 7. igerialdia, Paseo Berriko 42. lasterketa, Irla III igeriketa zeharkaldia, Paseo Haize Orraziaren igerialdia eta Kontxa badiako 67.

igerialdia. Hala, Bergarako ordezkariek dira, goian, ezkerretik hasita: Mireia Franco, Oihana Garate, Amaia Oregi, Xabier Jauregi, Gorka Irazola, Unai Belategi, Oier Eraña, Xabat Irazola eta Joseba Osa.

Eta makurtuta daude, ezkerretik hasita, Arantzazu Lopez, Ainhoa Osa, Ane Jauregi, Ainhoa Sasieta eta Ane Eraña. Eta taldeko kide dira baina ez daude talde argazkian Monika Alberdi eta Jon Muxika.

Eta, distantzia luzeko ligan Jon Muxika izan da nabarmendu den igerilarietako bat, sailkapen orokorrean bigarren sailkatuta –hirugarren sailkatu zen Kontxako badiako saioan.

Bestalde, Bergarako igeri elkarteko gazte, kadete eta infantilek astelehenean hasi zuten ikasturtea; alebinak eta benjaminak hilaren 27an hasiko dira.



IRURAK MARGOAK

DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak**Moketa eta sintasola****Iztuku esponjatua****Paper pintatuak****Harea zorrotada****Iztuku faltsua****Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara****Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 25 99 83 / 667 54 89 16****Faxa: 943 76 09 32**

ERAKUSKETA > MARGOAK

Udaletxeko aretoan daude ikusgai Beartekoen lanak

Astelehenetik egubakoitzera eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara. Hortaz, domeketan ez da zabalik egongo erakusketa.

astelehenetik egubakoitzera 18:00etatik 21:00etara eta zapatuetan 12:00etatik 14:00etara. Hortaz, domeketan ez da zabalik egongo erakusketa.

BESTE ERAKUSKETA BATZUK

San Martin jaietako aire zabaliko pintura erakusketa ikusteko azken eguna bihar, zapatua, izango da. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan daude lanak.

Aroztegi aretoan, bestalde, kirol argazki lehiaketako lanak daude ikusgai. Domeka izango da lanak ikusteko azken eguna: gaur, 18:00etatik 20:30era; zapatuan, 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:30era; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara.

A.E. > BERGARA

Ricardo Azkargortaren Bearteko ikasleen margoak ikusgai egongo dira astelehenetik aurrera udaletxeko osoko bilkuren aretoan. Orain arte Nahikarin izan dute erakusketa eta irailaren 27tik urriaren 16ra udaletxean egongo da.

DOMEKETAN ITXITA

Erakusketa ikusgai egongo da astegunetan eta zapatuetan:

> MUSIKA

Bost taldek punk doinuak eskainiko dituzte bihar gaztetxean 21:30ean hasiko den kontzertuan

Patinazo de Neurona, Matxinbrada, Krisis, No hay Soluzion eta Klabo Oxidado musika taldeek punk kontzertua eskainiko dute bihar, 21:30ean, gaztetxean. Kontzerturako sarrera 2 euro izango da.

Bergara, Arrasate, Aretxabaleta eta Soraluzeke taldeak dira gaztetxean joko dutenak. Punka gustuko dutenendako aukerako kontzertua izango da: talde gazteak dira eta energiaz betarik etorriko dira Bergarara euren onena ematera.



Josu Bilbao aktorea sukalde-trizikloarekin.

GOIENKARIA

ANTZERKIA > KALEAN

Sukaldea triziklo gainean hartuta herriko kaleak goxatuko ditu sukaldariak

Bihar 19:00etan Fraiskozuri plazan 'On egin mon amour' lana eskainiko du Teatro Salitre taldeak

ARANTZAZU EZKIBEL > BERGARA

Kale antzerki paregabea ikusteko aukera egongo da bihar, zapatua. Fraiskozurin izango da, 19:00etan. Josu Bilbao aktoreak girotu eta goxatuko du kalea sukaldari lanetan.

Izan ere, *On egin mon amour* lana eskainiko dute Teatro Sali-

tre eta Teatro Mutante taldeek elkarlanean. Aktore lanetan Josu Bilbao ibiliko da, eta esan behar da ideia originala ere harena dela.

2009AN ESTREINATUA

Bihar eskainiko duten lana 2009ko maiatzean estreinatua

zuten. Orduetik hona hainbat ekitaldi egin dituzte eta arrakasta izugarria izan da.

Ikusle guztiei zuzendutako lana da *On egin mon amour*; iraupena 75 minutu da.

SUKALDEA GAINEAN DUELA

Sukaldea eta umorea uztartuko ditu antzerkiak. Bilbao aktorea sukaldea triziklo gainean hartuta duela ibiliko da herriko kaleetan.

Chefberezi horrek plater gozok prestatutako ditu. "Umora karraskariko mokadutxoak, zapore handikoak, mimo karamelatuz bustita, eta, horrekin batera, *clown-zopa*", horrela definitu dute Teatro Salitre taldekoek euren lana. Gaineratu dute postrea eta kafea ere egongo direla.

ZAILTASUN TEKNIKO BAKOA

Umorezko antzerki horrek ez du inongo zailtasun teknikorik. Aktore bakarrak parte hartuko du antzezlanean; eta, dekoraziorik dagokionez, triziklo bat izango du, sukalde kontuetarako.

Idea originala Josu Bilbao aktorearena da eta zuzendari lanetan Jon Ariño ibiliko da.

Aktorea izateaz gain, Josu Bilbao *casting* zuzendari lanak ere egiten ditu. Zinema, publizitate, telebista eta antzerkian ibili izan da Bilbao. Telebistari dagokionez, adibidez, telesail garrantzitsuetan egin ditu *casting*-ak: bestea beste, *La isla de los nomados*, *Fibrilando* eta *Camera café* ezagunetan.



*Neurriak
38tik 60ra*

Mirari
JANTZIDENDA

Martoko 34 Bergara 943 76 23 93

*Udazkena
Negua*

UDALA > LANAK

Asteleheneetik Errekalde eta Moiuia itxita, asfaltatzeko

Hilaren 29an, 30ean eta urriaren 1ean botako dute asfaltoa bi kaleetan

Egun horietan garajetik kanpo dauden auto guztiak kendu beharko dituzte

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Errekalde eta Moiuia auzoak eraberritzeko lanetan beste aurre-erapauso bat emango dute datorren astean. Hain justu ere, bi kaleak asfaltatu egingo dituzte, eta, horretarako, bi kaleak itxi egingo dituzte autoendako. Azken egunotan hainbat bilera egin dituzte udal arduradunek Udaltzaingoarekin epeak zehazteko. Hori horrela, asfaltatze lanak bi fasetan egingo dituzte: lehen fasean Moiuia kalea asfaltatuko dute. Hain zuzen ere, Errekalde kalearen hasieraraino. Handik aurrerako guztia, herri eskolaraino, bigarren fasean egingo dute.

Lan horiek hilaren 29an eta 30ean eta urriaren 1ean egingo dituzte.

AUTO GUZTIAK KENDU

Dena den, asfaltoa bota aurretik, kalea egokitu egin behar dute. Alde batetik, kalean dagoen harea kenduko dute. Beste alde batetik, asfalto zaharra kentzeko fresatzailea pasako dute. Lan horiekin astelehenean hasiko dira. Horretarako, baina, bi kaleak hutsik egon beharko dute. Garajetik



Errekaldeko espaloiak askoz zabalagoak dira orain.

GOIENKARIA

ESANAK

"Astelehenean eta martitzenean herri eskola autobusa bakarrik ibili ahalko da Errekalden eta Moiuian"

Angel Biain > Zinegotzia

kanpo aparkatzen diren auto guztiak kendu egin beharko dituzte. "Asfaltoa bota aurretik kaleak garbitu egin behar dira. Hori horrela, ezin izango da autorik aparkatu Errekalden eta Moiuian", esan digu Hirigintzako

zinegotzi Angel Biainek. Kaleak itxita dauden egunetan, bakar-bakarrik, herri eskolara doazen autobusak ibili ahalko dira kale horietan. "Eurekin egin dugu berba ikasleen garraioa ahalik eta ondoen antolatzeke. Umeak eskolara autoz eroaten dutenek, oinez joan beharko dute datorren astean", esan digute.

EGUBAKOITZERAKO BUKATUTA

Udal arduradunen asmoa da urriaren 1erako lanak bukatzea, baina eguraldiak zeresan handia izango du. "Euriarekin area kendu eta fresatzailea pasa dezakete, baina asfaltoa ezin daiteke bota. Jaiegunetan egin nahi izan dugu, besteak beste, herri eskolan jai dutelako", dio Biainek.

Eraberritze lanen bigarren zatia 2011n

Errekaldeko eraberritze lanen azken fasea hasiko dute datorren egunotan. Auzoak itxura berria izango du. Baina Zapaterok emandako diruarekin auzo erdia bakarrik eraberritu dute: Moiuia kaletik hasita Errekalde Herri Eskolaraino. Handik beherako kale zatia 2011n eraberrituko dute. "Auzotarren artean kezka piztu da auzoa erabat berri barik geratuko zelakoan. Horiek lasaitu gura ditut. Udalaren konpromisoa da eraberritze lanak 2011n bukatzea. Datorren urtean auzoa bukatuta egongo da", dio Idoiaga alkateak.



TXANTXIKU IKASTOLA

Eslovakiako ikasleak bisitan ikastolan

Kosice (Eslovakia) hiriko 32 ikasle eta bi irakasle Oñatin dauden egunotan. Txantxiku ikastolakoekin elkartrukea egin dute, eta domekara arte egongo dira herriko familiekin bizi izaten. Askotariko irteerak egin dituzte Oñatiko ingurueta eta Euskal Herriko txokoetara: Gasteizen katedrala eta Legebiltzarra bisitatu zituzten, Bilbon Guggenheim museoa eta Donostian Aquariuma. Ikasturte bukaeran, Txantxiku ikastolako ikasleak Eslovakiara joango dira.

> ERAKUSKETA

Auto klasikoak ikusgai jarriko dituzte unibertitate aurrean

Udana Motor taldeak antolatuta auto klasikoak ikusteko aukera egongo da etzi, domeka. 20-25 bat auto espero dituzte antolatzaileek, eta gehienak arabarrak izango dira. "Goizean, kalejira egingo dute herriko kaleetan eta jarraian, auto guztiak unibertsite aurrean aparkatuko dituzte. 12:00etatik 16:30era ikusgai egongo dira", esan digute antolatzaileek.

Oñatira etorri diren autoen artean aspaldiko modeloak ikusi ahalko dira. Gidari batzuek, gainera, autoaren garaiko arropak janzten dituzte.

KIROLA

Eskola kiroleko izenematea, zabalik

Interesatuek astelehena baino lehen eman beharko dute izena

M.B. > OÑATI

Ikasturte berriko eskola kiroleko jardunaldietan parte hartu gura duten neska-mutikoen izenemate epea zabalik dago. Astelehena baino lehen egin behar dute matrakulazioa. Horretarako, norberak ikasten duen ikastetxe-ko kontu korrantean sartu beharko du dirua, eta ordainagiria izenemate orriarekin batera entregatu beharko dio eskola kiroleko koordintzaileari. Atletismoa, gimnasia erritmikoa, karatea, futbola, pilota, txirrindularitza, tenisa eta igeriketa dira Aloña Mendik eskaintzen dituen eskola kiroleko jardunaldiak.

Gainera, askotariko kiroleko jardunaldietan parte hartu gura dutenek aurreko izenemate prozesu bera jarraitu beharko dute.

IGERIKETA IKASTAROAK

Bestalde, 8 urte arteko neska-mutikoen igeriketa ikastarotako zerrendak ikusgai daude kiroldegiko informazio-taulan. Talde bakoitzerako onartu eta baztertu dituzten urteen izenak ikus daitezke.

Aurten aldaketak egin dituzte 4 eta 8 urte artekoen ikastarotetan. Lau egunetan ordu erdiko eskolak eman ordez, bi egunetan 45 minutukoak emango dituzte. Hori horrela, talde bakoitzean ume gutxiago ibiliko dira.

oharrak

DEIALDIA

> 1970ean jaiotakoek kintada egingo dute

Bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean urriaren 16an. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte lehen-bailehen Euskadiko Kutxako 30350005340051042653 kontu zenbakian.

KIROLA

> Profesional mailako pilota partidurako sarrerak salgai

Martinez de Irujo-Laskurain eta Xala-Paskual bikoteek jokatu duten partidurako sarrerak salgai daude kultura etxean 22 eurotan. Gaur, bihar, astelehenean, eta urriaren 1ean salduko dituzte arratsaldean.

JAIK > IKUSKIZUNA

Musika, piroteknia eta argi ikuskizuna egingo dute Errosaixo Egunean plazan

Astondoa pirotekniak 11 minutuko "ikuskiun berritzailea eta berezia" egingo du udaletxeko fatxadaren aurrean urriaren 3an, 23:00etan



Euskalduna jauregiaren X. urteurreneko ikuskizuna.

ASTONDOA

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Astondoa pirotekniak musika eta argi ikuskizuna egingo du Errosaixo Egunean, urriaren 3an, 23:00etan. Udaletxeko fatxadaren aurrean "ikuskiun berritzailea" egingo dute. "Musika eta argia izango dira protagonistak. Ikuskizun berezia da, jendeak gertutik jarraitu ahalko duena. Ez dira ohiko su artifizialak. Hori horrela, ez dugu segurtasun distantziarik gorde behar. Halako ikuskizunak oso gertukoak dira", esan digu Astondoako Lourdes Ojenbarrenak.

Oñatin ikusi ahalko den ikuskizuna propio prestatu dute. Leku bakoitzeko tokiaren arabera saio ezberdinak egiten dituzte. "Oñatiko plazak aukera asko ematen dizkigu. Udaletxeko fatxada ikaragarria da, eta iluntasunean, argiz eta musikaz jantziko dugu", diote antolatzaileek.

Hainbat proba egin dituzte ordenagailu bidez, eta dagoeneko zehaztu dute nolako ikuskizuna izango den. Dena den, ez digute ezer aurreratu nahi izan. "10-11 minutu inguruko ikuskizuna izango da, eta ikusteko modukoa, herritarrek txundituta geratuko dira. Baina gehiagorik ezin dut aurreratu", dio Ojenbarrenak.

MUSIKA BEREZIA

Argiak besteko garrantzia du musikak. Ikuskizun bakoitzaren dako propio aukeratzen dute. "Batuetan pelikuletako soinu bandak aukeratu ditugu eta beste batuetan musika talde ezagunen kantuak; adibidez, Coldplayrenak. Oñatiren kasuan, ikuskizunerako egokiena zen musika aukeratu dugu. Kultura batzordekoek aukeratzeko askatasuna eman digute", diote.

OHITURA BERRESKURATU

Iaz ez zen su artifizialik egon San Migeletan. Hori horrela, hainbat herritarrek eurek kexak helarazi zituzten Udalera. "Herritarren kexak eta iradokizunak jaso genituen su artifizialak eskatuz. Ez genuen uste horren garrantzitsuak zirenik. Aurtengo jaietako aurrekontua egiterakoan ez ditugu ahaztu gura izan. Ea, bada, gustuko duzuen", esan digu Lourdes Idoiaga alkateak.

> KIROLA

San Migeletako pilota txapelketa bertan beheara utzi dute

Aloña Mendiko pilota sailak bertan beheara utzi du San Migeletako pilota txapelketa. Finalerdiak bihar jokatu behar zituzten eta finala Herri Egunean.

Txapelketan parte hartzeko gonbidatutako pilotariak Oñatira ezin zirela etorri jakinarazi zuten aurreko astean, egun horietan eskuz banakako I. Gravni txapelketa kanporaketa jokatu behar zutela argudiatuta. "Txapelketa horretan amateur mailako pilotari onenak lehiatuko dira; hain justu ere, Oñatiko txapelketan parte hartu behar zutenak. Egoera ikusita, pena handiz, txapelketa bertan beheara uztea erabaki dugu", diote pilota sailekoek.

> DEIALDIA

Mus txapelketa egingo dute bihar Antton tabernan

San Migeletako II. mus txapelketa egingo dute bihar Antton tabernan. Parte-hartzaileendako izenematea zabalik egongo da 16.15etik 16.45era tabernan bertan. Ondoren, bikoteen zozketa egingo dute, lehen kanporaketak zehazteko. Mus txapelketa 17:00etan hasiko dute.

Antolatzaileek zehaztu dituzten zeintzuk izango diren txapelketarako oinarriak: mus partida bakoitza zortzi erregetara eta zazpi hamarrekotara jokatu dute. Hiru puntu egiten dituen bikoteak egingo du aurrera.

Finala jokatu ondoren sari banaketa ekitaldia egingo dute Antton tabernan bertan.

> KIROLA

Bola-jokoa, zazpiko futbola eta eskubaloia aste bukaeran

Jaien barruan, askotariko kirol hitzorduak jokatu dira aste bukaeran. Bihar, goiz eta arratsaldean, veteranoen txapelketan diharduten taldeetako batzuek zazpiko txapelketa jokatu dute Azkoagainen. Bestalde, 18:00etan, Izarraitz taberna Aloña Mendik eta Zangozako (Nafarroa) Cantolagua taldeek eskubaloia partidua jokatu dute Zubikoa kiroldegian.

Domekan, 16:00etan, Kurtze Baltz elkarteak antolatuta bola-joko txapelketa jokatu dute San Martinen. Bukaeran, arku tiroketa erakustaldia egingo dute Oñatiko Arkulariak taldeko kideek San Martinen bertan.

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

IRAILEKO ZOZKETA

Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
Kuota: 45 euro



LIIBURU SORTA BAT

Bidali KLUBA LIBURUAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ARRIKRUTZERAKO BI SARRERA

Bidali KLUBA SARRERAK
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



ESAIT-EKO MAILLOTA

Bidali KLUBA MAILLOTA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



UMENTZAKO PUZZLEA

Bidali KLUBA PUZZLEA
[Bazkidearen zenbakia]
5195 zkra.



SARI NAGUSIA UZTAILA-URRIA

PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA

WII SPORTS RESORT PACK TXURIA

Ukabi
informatika

Sistemen salmenta eta mantenua
TPV eta enpresak kudeatzeko aplikazioak
Webguneen diseinua.

Domingo Irala z/g (Ariznoa aurrean)
BERGARA Tel.: 943 15 01 01



SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotari sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

ERRETIRATUAK > OSPAKIZUNA

Jatekoa eta dantzaldia dute gaur erretiratuek

Udalak antolatutako omenalditxo da eta Basotxo tabernaren kanpoko partean egiteko asmoa daukate arratsaldean (18:00)

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Herriko erretiratu guztiak omenduko ditu Udalak gaur arratsaldean (18:00). Urteroko ohitura da, eta, azken hiru urteotan legez, San Migel jaiak aprobetxatuta, mokadutxo eta dantzaldia eskainiko diete Basotxo erretiratuen elkarteko tabernan.



Erretiratuak Basotxoko tabernan egunotan.

M.A.

KANTUAK ETA DANTZALDIA

Erretiratu asko elkartuko dira ekitaldian; hori horrela, Udalak erabaki du kanpoan eskaintzea mokadutxo, "eguraldiak laguntzen badu, behintzat". Basotxo tabernaren ardura hartu berri duen Txukunberri enpresako kideek egindako jatekoa egongo da, gura beste egon ere, edatekoak lagunduta.

Erretiratuen abesbatzak hainbat kantu eskainiko dizkie elkartutakoei, eta, behin barrua aseta, dantzan egiteko tartea izango dute guztiak. "Iaz izugarritzko jendetza pilatu zen, eta gustura baino gusturago jardun zuten dantzan", jakinarazi dute erretiratuen elkarteko zuzendaritza batzordeko kideek.

Udal ordezkariak bertan izango dituzte lagun egiten: Araceli Herran Gizarte Zerbitzuetako zinegotzia eta Inaxio Garro alkatea. Orain dela hiru urte arte bazkaria eskaintzen zien Udalak erretiratuei. Baina kirol etxearen lanak direla-eta ez dago beste lekuri herrian eta mokadutxoarekin konformatzen dira.



JOSETXO ARANTZABAL

Herriko gazteak, skate parke berriaren eskean

Gaztetxo koadrila horrek "herriko gazte askoren eskaerarekin" bat egin eta skate parke berria egin dezatela dio. "Oraingo parkea zahartuta eta apurtuta dago eta ezin da kirol handirik egin. Horregatik, jendea beste herri batzuetara joaten da: Arrasatera, Bergarara, Gasteizera...". Kanposantura bidean dagoen parkea berritzea eskatzen dute, "lekua badago eta".

EUSKARA > BARRIKETAN

Ikasturtea hasteko gertu dago Barriketan egitasmoa

Taldeak osatzen dabilta; interesa dutenek euskaltegia joan behar dute

fonoz deitu -943 79 21 68- edo mezu bat bidali -guru@leintz.euskalnet.net.

EUSKARAZ BERBA EGITEKO

Zeini zuzendua dago Barriketan? Euskara aspaldi ikasi eta erabiltzen ez dutenei eta euskaraz berba egiteko ohiturarik ez dutenei. Euskaraz bizi direnekin ikasitakoa praktikatzeko eta berreskuratzeko aukera ematen dien proiektua da. Izan ere, erabiltzea dela hizkuntza bat ikasi edo berreskuratzeko modua diote arduradunek.

M.A. > ARETXABALETA

Udal Euskaltegiak bideratzen duen Barriketan egitasmoak ikasturtea hasiko du egunotan. Taldetxoak osatzen dabilta orain, astean ordubetez elkartzeko, eta interesa dutenei argibideak emateko gertu daude arduradunak. Horretarako, tele-



Barriketan egitasmo taldeetako bat.

LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA

JAIK > GAZTE EKIMENA

Taberna jarriko du San Migeletan Gazte Ekimenak

Durana kalean egongo da gaur eta bihar; tonbola izango dela iragarri dute

moduan- eta gaur arratsaldean zabaldu (18:00-00:00). Jaiak hasteko, gainera, bola egingo dutela iragarri dute.

IKARAGARRIZKO TONBOLA

Bihar, zapatua, egun osoan izango dute zabalik taberna hori eta "ikaragarritzko tonbola" egongo dela jakinarazi gura diete herritarrei: "Tonbola *ecijana* famatuaren antzekoa".

Sagardo freskoa izango dutela esan dute eta giro ezin hobea izango dela bi egunean ziurtatu.

M.A. > ARETXABALETA

Aretxabaleako Gazte Ekimenak taberna jarriko du gaur eta bihar Durana kalean, San Migel jaiak direla eta. Udaletxe zaharraren parean jarri dute "turbotaberna" -ekaineko hainbat egubakoitzetan egindako

> DEIA

Aretxabaleta Abesbatzak bost tokitan jarri du salgai 30 urteko ibilbidea jasotzen duen DVDa

Joan den egubakoitzean aurkeztu zuen Aretxabaleta Abesbatzak 30 urteko ibilbidea jasotzen duen ikus-entzunezkoa eta herritarren eskura jarri du orain. Bost tokitan dauzkate salgai: Ibarra tabako denda; Kioskoa; Iber loteria-denda; Belar Meta jantzi-denda; eta Arkupe kultura etxea. Prezioa 12 euro da. Domekan abesbatzak egingo duen ekitaldiaren ostean ere izango dituzte salgai.

Ikus-entzunezkoa euskaraz eta gaztelaniaz dago eta 35 minutuko dokumental historikoa du: New Yorken emandako kontzertuak; urteurren kontzertua; adituen iritziak; abesbatzako kideek esandakoak... Horrekin batera musika bideoa egin dute Aretxabaleako irudiekin eta *Maite* abestiarekin.



Errekabarren 3, behea ARETXABALETA
Tel.: 943 79 01 28 - 629 45 02 21
garbittu@euskalnet.net

Garbiketa orokorrak eta mantentze-lanak

Obra bukaerako garbiketak

Auzotarren komunitateen eta garajeen garbiketak

Kristalen garbiketak

Arropa garbiketak



ANJEL BERGARETXE

Giro aparta Urbaltzen jaiegunean

Joan den zapatuan egindako jaiarekin bukatu zituzten Urbaltz elkartearen 25. urteurreneko ekitaldiak. 200 lagun elkartu ziren herri bazkarian, eta aparteko giroa sortu. Antolatzaileak oso pozik geratu dira eta laguntzen jardundako guztiak eskertu gura dituzte. Jai giroak gau erdira arte jarraitu zuen Elviskaino DJaren laguntzarekin.

> IKASTAROA

Taila ikastaroa hasiko du Okila elkarteak urriaren 4an eta izenemate epea zabalik daukate

Okila taila elkarteak hasiera mailako tailagintza ikastaroa jarriko du abian urriaren 4an. 60 orduko ikastaroa da eta asteen hiru egunetan izango dira eskolak (18:00-20:00): astelehen, martitzen eta eguaztenetan.

Izena emateko epea zabalik daukate: udaletxean, Arkupe kultura etxean eta Okila elkartearen tailerrean.

AISSIALDIA > GAZTEAK ETA UMEAK

Gaztelekuak zabaldu ditu ateak eta ekintzaz beteta dator urrian

Gaur arratsaldean 12 urtekoek ezagutzeko egongo da zabalik eta domekan guztiendako

MIRARI ALTUBE > ARETXABALETA

Asteen zabaldu ditu ateak Atxagazte gaztelekuak. Txatxilipurdiri eman dio berriro Udalak kudeaketaren ardura eta udazkenarako egitaraua gertatzen dabilta orain. Bien bitartean, lehenengoz gaztelekura doazenei harrera egingo diete.

Gaur arratsaldean DBHko lehenengo mailako neska-mutilendako zabalduko dute gaztelekuak. Tokia erakutsiko diete arduradunek, eta bertan egiten dituzten ekintzen berri eman. Gainera, txapa tailerra, jolas erraldoiak eta merienda izango dituzte ongioterri moduan.

Domekan, ostera, 12 eta 16 urte arteko gazte guztiendako izango da zabalik Atxagazte, guztie ongioterria emateko. Datorren hilabeteko egitaraua gertatzen dabilta orain Txatxilipurdiko kideak eta iragarri dute ekitaldi asko egongo direla: eskulanak, surf ikastaroa, film labur tailerra... Astero egongo da zabalik eguenetik domekara bitartean.

LUDOTEKAN ATE IREKIAK

Bestalde, ludotekan ate irekiak egiten jarraituko dute, herriko ume guztiek ezagut dezaten. Adinaren arabera banatutako taldeak egin dituzte eta hainbat jolas

eta ekintza egongo dira astelehenetik egubakoitzera: eskulanak, jolas gidatuak, mahai jolasak... Lehenengo ordua (17:00-18:30) txikienendako izango da-Haur Hezkuntzakoak eta Lehen Hezkuntzako lehenengo mailakoak- eta bigarren ordua gainerakoendako-Lehen Hezkuntzako bigarren mailatik aurrerakoak-.



Gazte bi grafitia egiten iazko ikasturtean, gaztelekuan.

TXATXILIPURDI



Zenbaki Aholkulariak



• Juridikoa:

- Zibila: Banantzeak, Dibortzioak, Herentziak, ...
- Penala: Hutsegite epailetak, Salaketak, Zirkulazio istripuak, ...
- Administratiboa: Zigortzaile txostenak, Errekurtsoak, ...
- Merkantila: Kontratuak, Sozietateen eratzeak, ...

• Laborala:

- Ezintasuna, Erretiroa, Erreklamazioa, ...

• Fiskala:

- Etxebizitza salerosketak, Enpresen balorazioak, Bideragarritasun-Txostenak, ...

• Kontabilitadea:

- Pertsona fisiko eta juridikoak, ...

JAI ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU!

Basabe poligonoa, F-0-10 (1. solairua) ARETXABALETA

Tel.: 943 71 21 12 - Faxa: 943 71 22 68

zenbaki@zenbaki.es www.zenbaki.es

JENDARTEA > UDALA

Aisialdiarekin lotutako zerbitzu guztiak, orain, gida baten batuta

Egunotan herriko etxe guztietan banatu dute; horren helburu nagusia da eskaintzen diren jardueren berri ematea eta, bide batez, partaidetza bultzatzea

MIRIAN BITERI > ESKORIATZA

Gertu izatea komeni den gida kaleratu du Udalak: hasi berri den ikasturteko aisialdirako zerbitzu gida, hain justu ere. Udalerrian dauden zerbitzuen, ekipamenduen eta elkarte guztiak batuz horien gaineko informazioa herritarrei eskaintzea helburu duen gida hori dagoeneko banatu dute etxeetan; guztira, 2.000 gida inguru.

Edukiari dagokionez, bost atletan dago banatuta: musika, dantza, kirola, tailerrak eta beste

batzuk; azken horretan, herrian dauden ekipamenduen berri ematen da, hala nola gaztelekua, helduen heziketa iraunkorra, ludoteka eta euskaltegia.

ASKOTARIKO INFORMAZIOA

Atal horien arabera jaso da informazio guztia, eskoriatzar bakoitzari interesatzen zaiona modu samurrean topatzen laguntzeko. Esaterako, kirol jarduerak jakin bat praktikatzeko interesa duenak gida hartu eta *Kirola* atal barruan aurtengo eskaintza osoa

aurkituko du. *Defentsa pertsonala* aukeratuz gero, jarduerak horren gaineko informazio orokorra eskaintzen zaio erabiltzaileari, eta jarraian, jarduerak hori noiz eta non eskaintzen den, nori dagoen zuzenduta, izenematea non egin daitekeen eta prezioa zenbatekoa den azaltzen da, besteak beste. Bestalde, musika instrumentu jakin bat jotzen dakienak eta musika bandan sartu gura duenak ere hor izango dituzte jarraitu beharreko pauso guztiak, baita Amusma taldeak urtean zehar eskaintzen dituen ikastaroen gainean ere.

WEBGUNEAN ERE

Gida ondoan ez dutenek ere informazio hori guztia eskura izan ahal izango dute, Udalak gida horren laburpena sartu du eta webgunean: <http://www.eskoriatza.net/bizi/zerbitzuen-gida> helbidean, hain justu. Udalak eskoriatzar guztiak gonbidatu nahi ditu gida erabil dezaten eta horretan eskaintzen diren jardueretan parte hartzera.

INGURUMENA

Erreka Eguna egingo dute bihar

Deba eta Bolibar erreketara doan zaborra jasoko dute goiz partean

M.B. > ESKORIATZA

Mugikortasun Astearen harira, Erreka Eguna egingo dute bihar. Udal teknikari Saioa Alzuak azaldu digu komeni dela aurretik izena ematea, aseguruia egin ahal izateko; hain zuzen, Eskoriatzako webgunean edo telefono bidez eman daiteke.

Boluntarioak 11:00etan elkartuko dira eta, taldeetan banatu ostean, Bolibar eta Deba erreken zati jakinetara jaitsiko dira, plastikozko poltsa eta eskularruez erreketara doan zabor guztia jasotzera. Bi ordu ibiliko dira zeregin horretan; 13:00ak arte, hain justu.

Bestalde, Alzuak gaineratu du 12 urtetik beherakoek helduen ardurapean joan beharko dutela.

txaloak eta txistuak

Hondakinak ezin dira edonola utzi



Hondakinak jasotzeko egunak, orduak eta tokiak errespetatzeko dei egin du asteon Udalak.

Ondoko irudietan ageri den moduan, askotan herritar batzuek edozein modutan eta lekutan botatzen dituzte hondakinak. Horren harira, herria garbi izateko guztion kolaborazioa ezinbestekoa dela gogorarazi du.



ESKORIATZAKO UDALA



KULTURA > MUSIKA

Memo talde nafarrak joko du gaur Inkernun

M.B. > ESKORIATZA

Musika kontzertua dago gaur, egubakoitza, Inkernu tabernan. Hain zuzen, Memo punk-rock taldea igoko da agertokira, 22:30ean. 2003an sortu zen esandako taldea, Leihotikan, Cuerno de Chivo eta Gen 54 taldeetako kideekin; urtebete geroago, lehenengo diskoa grabatu zuen: *Casi perfecto*.

2006an, osteran, *Todo va bien* izeneko bigarren lana kaleratu zuen laukoteak. 14 kantuz osatutako lan hartan hainbat kolaborazio izan zituzten; tartean, Mareako Cesar eta Colibri, Leihotikan taldeko Titi, eta Patxi y sus Mariatxis taldeko Patxi. Atsenalditxo baten ostean, joan den urtean, Gor Diskakaren eskutik, *La alegría*

de molestar diskoak ikusi zuen argia; Memoren benetako ispiratua batzen duten 15 abesti.

URRIAREN 13AN, GARTZIA DE OLTZA

Bestalde, datozen hilabeteotarako egitaraua gertatzen hasi da Aitzorrotz. Urriaren 13an, esaterako, Iñaki Gartzia de Oltza mendizale nafarraren ikus-entzunezkoa izan-

go dela aurreratu digute; 19:00etan hasiko da, kultura etxean.

GATIBU, ZEA MAYS ETA AMAIUR

Abenduan, osteran, Aitzorrock jaialdia egingo dute bigarren bez. Abenduaren 11n izango da kontzertua kiroldegian. Aurten ere talde bikainak izango dira: Gatibuk disko berriaren Gipuzkoako aurkezpen kontzertua eskainiko du; Zea Maysek ere lan berria aurkeztuko du. Amaiur eta talde sorpresa ere iragarri dituzte Aitzorrotzkoek egun horretarako.

oharrak

ERRETIRATUAK

> Omenaldia egingo dute etzi

Etzi, domeka, 65 urtetik gorako eskoriatzarrei omenaldia egingo diete. 11:00etan, salda hartzeko aukera izango dute; 12:30ean, meza; eta 14:00etan, bazkaria pilotalekuan.

AISIALDIA

> Gaztelekua, zabalik

Lehen aste bukaera honetarako, DBHko 1. mailako gazteentzako egitarau berezia antolatu dute, gaztelekura lehen aldiz sar daitezkeen gazteei gaztelekua ezagutarazteko asmoz. Egubakoitzetik domekara egongo da zabalik aisialdigunea.

KZGUNEA

> Tutorea, eguaztenean

Eguaztenean, hilak 29, bisitatuko du tutoreak herriko KZgunea, 16:00etatik 20:00etara bitartean.

KIROLA

> Ume eta hasiberriendako capoeira ikastaroa

Senzala Euskadi taldeak ume eta hasiberriendako capoeira ikastaroa antolatu du. Astelehenean izango da, 19:00etatik 19:45era, pilotalekuko gimnasioan. Horren gaineko informazioa gura dutenak www.senzalaeuskadicapoeira.info webgurenera sar daitezke.

DEIALDIA > IDOLAZ

Gazte txokoan jarduteko hezitzaileak behar dituzte ikasturte berrian

Euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea ezinbesteko baldintzak izango dira

ARANTZAZU EZKIBEL > ANTZUOLA

Gazte txokoak deialdia egin du ikasturte berrirako hezitzaileak hartzeko. 2010-2011 ikasturtean jardungo duten hezitzaileak aukeratzeko hainbat baldintza hartuko dituzte kontuan. Besteak beste, ezinbestekoa izango da euskaraz jakitea eta 18 urtetik gorakoa izatea. Gainera, Antzuolako izan edo Antzuolan bizi izatea ere ezinbesteko baldintza izango da.

Bestalde, baloratuko dute begirale titulua izatea eta lan esperientzia izatea.

HEZITZAILEEN ARDURA

Gazte txokoa zapatu eta domeketan egoten da zabalik, arratsaldetik 16:00etatik 20:00etara. Hezitzaileen ardura izaten da gazte txokoan bertan egotea gaztetxoak koordinatzen.

Bestalde, hezitzaileek jokoa eta irteerak antolatzen dituzte, betiere gaztetxoaren nahi eta beharren arabera.

"Adibidez, herrian egiten diren jai eta ekitaldietan parte hartzen dugu. Besteak beste,



Herriko gazteak Sendavivan, Nafarroa.

GAZTETXOKOA

Inauterietan, Olentzero egunen... herriko beste elkarteekin elkarlanean ibitzen gara horrelako jaietan", azaldu dute gazte txokoko arduradunek. Horrez gain, kurtsu amaieran irteera bat antolatzen dute. Iaz, Senda-

vivan (Arguedas, Nafarroa) izan ziren herriko gaztetxoak.

IDOLAZEK KOORDINATZEN DU

Hezitzaile izan nahi duenak irailaren 30a baino lehen eman behar du izena. Horretarako, udaletxera jo edo mezua bat idatzi behar da bi helbide hauetako batera: gazteantzuola@hotmail.es edo liburutegia@antzuola.com. Adierazi behar dira eginko edo egiten ari zaren ikasketak, tituluak (begirale titulua, EGA...) eta esperientzia.

Gazte txokoa azarora eta ekaina bitartean egoten da zabalik, 12 eta 15 urte bitartekoendako. Esan behar da Idolaz euskara elkarteak koordinatzen duela.

DATUA

6

HEZITZAILE

Joan den ikasturtean sei hezitzaile izan zituzten gazte txokoan. Taldeka banatzen dira eta binaka egiten dute lan aste bukaeretan.

AZPIEGITURAK > ERREPIDEA

Sagastiko biribilgunea eraikitzeke proiektua onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak

A.E. > ANTZUOLA

Dagoeneko onartuta dago Sagastin biribilgunea egitea. Asteon onartu du Gipuzkoako Foru Aldundiak proiektua. Aldundiak 567.000 euro inbertituko ditu Sagastiko bidegurutzean biribilgunea bat eraikitzeke, zirkulazioa arintzeko eta bide segurtasuna areagotzeko asmoz.

GI-632 errepidearen eta Sagasti kalearen bidegurutzearen artean eraikiko dute biribilgunea. Puntu hori GI-632 errepidearen 19,250 puntu kilometrikoa da; gainera, puntu hori baino 200 metro aurrerago dagoen Antigauko auzorantz doan bidea ere berrituko dute. Hartara, Deskarra aldera doazen ibilgailuek ez dute ezkerretara egin behar izango, gaur egun egin behar izaten duten moduan.



Horrela geratuko litzateke biribilgunea.

GOIENKARIA

21 METROKO ERRADIOA

Biribilgunea berriak 21 metroko kanpoko erradioa izango du marra zuriraino; eta barruko erradioa 15 metrokoa izango da.

Bi aldeetan metro bete zabaleko bazterbidea egingo dute. Bestalde, erdiko lerro bat jarriko dute auzotik Bergara aldera doazen ibilgailuentzat.

KIROLA > FUTBOLA

Aretxabaletaren aurka jokatu dute antzuolarrek

Bihar 18:30ean izango da lehia, Ibarra

A.E. > ANTZUOLA

Ibarreko derbia jokatu dute Antzuolako mutilek zapatuan Aretxabaletan. Hirugarren jardunaldiari dagokion lehia izango da; 18:30ean jokatu dute, Ibarra futbol zelaietan.

Denboraldi hasierari dagokionez, orain arte jokatu dute bi partiduetan bi berdinketa lortu dituzte, eta ondorioz bi puntu. Etxekoen aurrean joan den astean estreinatu ziren Juanina Garairen mutilak. Etxean Mutrikuren aurka jokatu dute lehia gol askokoa izan zen: guztira, sei gol.

Bestalde, lehenengo jardunaldian Urrietaren aurka bana berdindu zuten Antzuolako mutilek.

PARTIDUZ PARTIDU JOATEA

Juanina Garai entrenatzaile arrasatearrak hartu du taldea gidatzeko ardura. Denboraldi hasieran helburu zehatzik ez dutela jarri adierazi digu entrenatzaileak, "partiduz partidua joan" eta domeketan futbolaz gozatzea izango dela euren asmoa azaldu digu. Gainera, gaineratu du etxeko partidua izango direla gakoa.

IKASTAROA > IZENEMATEA

Astelehen eta eguenetan izango dira eskulanak

Edurne Uribealgo izango da irakaslea; ikastaroetako hileko kuota 24 euro da

Ikastaroetan parte hartzeko izena eman beharra dago. Horretarako, udaletxera jo edo mezua idatzi behar da kultura@antzuola.net helbidera.

ARRATSALDEZ IZANGO DA

Ikastaroak astelehen edo eguenetan izango dira. Ordutegia ondokoa izango da: 14:30etik 16:30era. Hileko kuota 24 euro izango da. Eskulanak Olaran etxean emango dituzte.

Orain arte bezala, Edurne Uribealgo izango da eskulan ikastaroko arduraduna eta irakaslea.

A.E. > ANTZUOLA

Dagoeneko martxan dago eskulan ikastaroetan izena emateko epea. Koadroak margotu, egurrezko eta kristalezko materialak margotu, gauza zaharrak birziklatu, norberak dituen gauzak zaharberritu eta bestelako lanak egiten ikasiko dute ikastaroan.

> DEIALDIA

Eguenean urteko azken odol-ematea egingo dute eta horretarako herritarrak animatu gura dituzte

Datorren egunean, hilak 30, urteko azken odol-ematea egingo dute herriko odol emaleek. Hitzordua da Olaran etxean 17:30ean. Odol emaleen elkartekoek herritarrak animatu gura dituzte, eta deialdian parte hartzeko eskatu.

Antzuolan urtean hiru odol-emate egiten dituzte. Elkarteko arduradun Begoña Letek esan digu orain arte egin duten bi deialdietan herritarren erantzuna ona izan dela.

Arin Jatetxea

Karta • Plater konbinatuak
Ogitartekoak • Pintxoak

ETXEKO BEREZITASUNAK:
Buztana eta txuleta
(zaharrarena).

Enkarguak ere hartzen ditugu.

Astelehenetan eta martitzenetan itxita

Kalebarren 7 • 943 78 62 45
ANTZUOLA

MUJIKA HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrek eta oilaskoak

Kalebarren, 1.
ANTZUOLA
Tf. 943 76 64 34

> UDALA

Alkateari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea gaur

AHTren aldeko herri galdeketa egiteagatik zazpi urteko kargugabetzea jaso du Asier Agirre Aramaio alkateak. Jasotako zigorra salatzen eta alkateari elkartasuna adierazteko elkarretaratzea egingo dute gaur, barikua, plazan, 20:00etan. Prentsurrekoa izango da jarraian.

> MENDIA

Aitor Aranaren omenezko 14. mendi ibilaldia bihar

Bihar, zapatua, Aitor Aranaren omenezko 14. mendi ibilaldia egingo dute. Izenematea (8 euro) kiroldegian egin behar da, 07:30ean. Irteera 08:00etan izango da eta 6-8 orduko ibilbidea prestatu dute Orixelekoek: Tellamendi, Zabalundi, Orixol, San Kristobal, Asensio eta Aramaio.

> KULTURA

Zuiako Koadrilaren eskutik hitzaldia Legution barikuan

Zuiako Koadrilak antolatutako hitzaldia izango da datorren barikuan, urriaren lehen, Legutioko kultura etxean. Hitzaldiaren izenburua: *El calendario tradicional vasco: ritos mágico-religiosos y costumbres anuales*. Aunia kultura elkarteak kideek egingo dute hitzaldia, 19:00etan.



Gasteizko zazpi lagunek osatzen dute Folk On.

FOLK ON

KULTURA > MUSIKA

Folk doinuen txanda gaur iluntzean Sastiñan

Folk On taldeko kide gehienek Gasteizko Udal Folklore Eskolan dihardute lanean

Nagusiki dantzarako musika eskainiko dute; urtebete eskas daramate elkarrekin

EDU MENDIBIL > ARAMAIO

Sastiñako kontzertuekin jarraituz, folk doinuak izango dira gaurko protagonista. Gasteizko Folk On taldeak egingo du emanaldia gaur, barikua, 20:00etan. Zazpi lagunek osatutako taldea da: Roberto Alvarez (txistua), Errando Lopez de Luzuriaga (trikitia), Iñaki Alartzia (perkusioa), Ainhoa Marauri (biola), Elena Romo (fagota), Itziar Ruiz de Oña (pianoa) eta Eneko Espino (baxua).

Eneko Espinok azaldu digunez, iaz hasi ziren jotzen eta nahi baino zuzeneko emanaldi gutxiago egin dituzte. Sastiñara gogoz datozela eta nagusiki dantzarako musika eskainiko dutela aurreratu digu baxu-jotzaileak.

LAGUN KOADRILA


Ainhoa Marauri eta Elena Romo izan ezik, gainerako taldekide guztiak elkarrekin dihardute lanean, Gasteizko Udal Folklore Eskolan, hain justu. Dantza eta

Udako kontzertuen arrakasta

Ekainean ekin zion Udalak Sastiñako kontzertuen programazioari, eta, Aina Inuntziaga Kultura zinegotziaren arabera, balorazioa positiboa da: "Jendea gustura geratu da eta hurrengo udan errepikatzea da ideia. Barikuetako emanaldiek harrera ona izan dute; ibili den jende kopurua ezin da jakin, emanaldi gehienak Sastiña kanpoan izan direlako eta ikusleak joan-etorrian ibili direlako plazan". Jazz, blues eta folk doinuak izan dira nagusi; "Rock kontzertuak eta erromeriak nonahi izaten dira eta zerbait desberdina eskaini nahi genuen". Zazpi kontzertu egin dituzte Sastiñan udan; aurtengo azken hitzordua gaur, Folk On taldearen eskutik.

musika herrikoia zela eta, beraz. Oraindik ez dute kantu propiorik eta beste talde batzuen abestiak joko dituzte gaur Sastiñan, tartean Irlandako eta Eskoziako folk kantua ere bai. Eneko Espinoren hitzetan: "Folka den guztia atsegin dugu, eta, besteak beste, Kepa Junkeraren *Neguko balsa* eta Luar Na Lubreren *O son do mar* joko ditugu Sastiñan, baita arinarinak, fandangoren bat, zortziko bat, tango bat...".

Formazio ezberdina jaso dute taldekideek. Biola-jotzaileak, adibidez, Hagan (La Haya) ikasi zuen eta Alartziak Bartzelonan. Los Bomberos Blues Band taldean ere badabil Alartzia. Eneko Espino bera Gasteiz Big Bandekin jotzen du, baina ez zuen etortzerik izan aurreko barikuan Sastiñan emandako kontzertura. Gaur bai, gaur Aramaion izango da.

**Udako postal irabazlea**

Beñat Burgik irabazi du Txirritolak antolatutako postal lehiaketa. Goiko irudiaz lagunduta honako bertsoa idatzi zuen: *Bizikleta hartuta/disfruta dezagun/ elkartu atleta/ pobre ta dirudun/ bizikleta gainean/ denok gara lagun/ Andorrek Aramaio/jada du ezagun*. 15 postal jaso zituzten eta Dukiena Jatetxean bi lagunendako afaria jaso du Beñatek.

UDALA > ONGIZATEA

Lurgorriko Eguneko zentroa adjudikatzeko lehiaketa deitu du Aramaio Udalak

Eskariak urriaren 18ra arte jasoko dituzte; 2011n zabalduko dute zentroa

E.M. > ARAMAIO

Eguneko zentroko zerbitzua adjudikatzeko lehiaketa deitu du Aramaio Udalak. Zortzi lagun jasoko ditu zentroak eta bi langile arituko dira; adinekoen zaintza, bazkariak, ariketa fisikoak eta aisialdiaz arduratuko dira. "Adineko nahiko autonomoak" izango dira Aita Gabirel kaleko lokalak. Gaur, mendekotasun handia duten hiru lagun Arrasateko zentrori joaten dira eta hara joaten jarraituko dute haiek.

Eguneko zentroko kontratua, gehienez, lau urterako izango da, 178.000 euro inguruko aurrekontuarekin. Urriaren 18ra arte jaso-

Eguneko zentroko lanak udaberrian hasi zituzten, eta lokalak 130 m² ditu. GOIENKARIA

ko dituzte eskariak. Udalaren arabera, 2011ko lehen hiruhilekoan zabalduko dute zentroa.

Arabako Diputazioaren eta Aramaio Udalaren arteko hitzarmenari esker posible izan

da proiektua. Diputazioak eguneko zentroaren %80 finantzatu du eta Udalak %20. Lanak 160.000 eurotan egin ditu Najera Novoa SLk; lokala hornitzea eta zerbitzua adjudikatzea baino ez da falta.

ELGETA > ZABALA HERMANOS

Martitzenean ezagutuko dute egoera ekonomikoa

Atzo Norica Lauronako ordezkariekin bilera egin ostean, langileek bertan behera utzi dituzte martitzenera bitartean iragarritako protesta ekitaldiak

LARRAITZ ZEBERIO > ELGETA

Erregulazio Espedientean daude, hiru nomina eta udako aparteko ordainsaria zor dizkiete, eta produktu eskaera izan arren ezin dute aurrera atera materiala gehiago bidali aurretik hornitzaileek zorrak kitatzea eskatzen dutelako.

Egoera zailean daude Zabala Hermanos lantegiko 27 beharginak. Protesta ekitaldiekin hastea erabaki zuten, baina atzo Norica Laurona enpresako ordezkariak egindako bileraren ostean elkarretaratze horiek momentuz bertan behera uztea erabaki zuten. Enpresa eibartarrak agin-



Zabala Hermanos lantegiko langile taldea atzoko elkarretaratzean.

L.Z.

du du martitzenean Elgetako plantaren egoera ekonomikoren berri emango diela. Gaur, barikua, Eibarko Untzaga plazan egitekoa zuten elkarretaratzea, beraz, bertan behera gelditu da.

BIDERAGARRITASUN PLANA

Norica Laurona enpresa eibartarrak 2009ko martxoan erosi zuen Zabala Hermanos. Zuzendaritza-

ko ordezkari Angel Bollainen esanetan eskopetaren merkatuak 10 urte daramatza krisi egoeran, eta egungo krisiak nabarmen zaildu ditu gauzak. Onartu egin du Elgetako langileei dirua zor zaiela, eta esan du bideragarritasun planaren emaitzen zain daudela. "Ikusi egin beharko dugu egoera hau nola gainditzen dugun".

ELGETA > ERRETIRATUAK

80 urtetik gorako 39 bazkide omendu zituen atzo Xalbadorpe erretiratuen elkarteak

L.Z. > ELGETA

Lau urtean behin elkartzen ditu 80 urtetik gorako bazkideak Xalbadorpe elkarteak. Atzo, eguna, 39 elkartu ziren Ozkarbi elkartean bazkaria egiteko. Nagusienak Josefa Askasibar (91 urte) eta Juan Irazabal (88 urte) izan ziren.

HURRENGO HITZORDUAK

Elkartetik jakinarazi dute podologoak hilaren 30ean egingo duela iraileko bisita. Betiko moduan, aurrez txanda hartzea ezinbestekoa da. Bezperan, berriz, hilaren 29an, bakardadeari buruzko hitzaldia egingo dute udaletxean.



Atzoko bazkarian elkartutako 80 urtetik gorako erretiratu taldea.

L.Z.

LEINTZ GATZAGA > PROIEKTUA

Ur deposituaren lanak aurten

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Gatzagain inguruan egingo duten ur deposituaren lanak aurten hasiko dituzte. Hala uste du, behintzat, Eusebio Villar alkateak, nahiz eta atzeratuta dagoen lanak esleitzea. Esleipen horren oinarriak idazten dabilza orain adituak eta hilabeteko epean

oinarriak onartu, lanen deialdia egin eta esleituta egongo direla uste du Villarrek. Landagipuzkoa egitasmoaren bitartez aurrera eroango den proiektua denez, Etorlur enpresa dabil kontua bideratzen. "Lanak ere aurten hasiko dituzte eta sei bat hilabete iraungo dute. Kontuan hartu-

ta negua dagoela tartean eta atzerapenen bat eragin dezakeela eguraldiak, maiatz ingururako egongo dela bukatuta depositua uste dugu", dio.

SANEAMENDU HODIAK

Arlabango plan berezia egin ahal izateko ur depositua behar-beha-

ELGETA > FESTA

Gazteak pozik daude Sagardo Egunak emandakoarekin

L.Z. > ELGETA

Aurreko zapatuan egindako Sagardo egunaren bueltan balorazio positiboa egin dute gazte-txetik. "Eskerrak eman nahi dizkiegu jaia kolorez janzten lagundu ziguten denei; tabernari, epaimahaikideei, tortilla lehiaketan parte hartu zutenei, tortilla pintxoak jan zituztenei, plazara bertaratu zirenei, triki bertso poteoan parte hartu zutenei, txitxiburduntzian egon zirenei, kontzertutara etorri zirenei... Aurten ere, auzolanaz herri guztiarendako jai egun bat egitea eta denon artean gozatzea lortu dugu".

Tortilla lehiaketa

SAILKAPENA (puntuak)

1. Juñsua	30
2. Lazkaberis	29
3. Fly	28
4. Pintxerok	23
5. Poxpolinak	23
6. Elgetako e. abertzalia	22
7. Txupi pirulixa	22
8. On egin	20
9. Pannis	20
10. Piperrak	18
11. The Ibarlus	17
12. El Guetto	17
13. Millonarixuak	17
14. 90.120	14

TORTILLA ORIGINALENA

1. On egin

> ATHLETIC

Intxortako Lehoiak lagunarteak batzar orokorra egingo du gaur, barikua, Bolatoki tabernan

19:30ean elkartuko dira egoitza duten Bolatoki tabernan. Hainbat gai aztertuko dituzte, tartean lagunartearen aurkezpen ekitaldia, 2010-2011 denboraldiko irteera eta Gabonetako loteria. Bazkideei parte hartzeko deia egin diete.

> HERRIXA DANTZAN

Hileroko hitzorduekin hasiko dira inguruko dantza zaleak; lehena domekarako egin dute

Uda ostean etzi, domeka, emango diete hasiera ikasturte berriari Herrixa Dantzan ekimeneko saioei. Dantza zaleek 19:00etan dute hitzordua Espaloian. Dantzarako toki gehiago izango da aurten antzokiko eszenatokia ere dantzarako baliatuko dute-eta.

> ALDARRIKAPENA

Jose Luis Elkororen aldeko martxa bihar 16:30ak aldera iritsiko da Herriko plazara

Bergarako alkate ohiaren askatasuna eskatzeko Mugituko da taldeak bihar antolatuko duen Hondarribia-Bergara kirol martxa Elgetatik igaroko da. Oxel Erostarbe alkateak martxa horretan parte hartzera gonbidatu ditu elgetarrak.

> SUTEA

Hektarea eta erdi erre zituen eguaztenean Goimendi auzoan sortutako suak

Suak 12 urteko pinudia erre zuen Azula ondoko lursail batean. Mendikoi nekazaritza garapenerako bulegotik azaldu dute 14:45ean jaso zutela abisua eta 17:00ak arte ez zutela sua kontrolatu. Itzal-keta lana gogorra izan zen; 22:00etan lortu zuten guztiz itzaltzea.

rezkoa da. Izan ere, Arlaban inguruan ur arazoak izaten dituzte, batez ere uda sasoiak. Herri txikiak laguntzea helburu duen Landagipuzkoa egitasmoa eskara egin zuen Udalak eta onartu egin diote proiektua. Behin depositua egindakoan, herriko ur depositutik eroango dute ura bertara. Lanok saneamendu hodiak jartzeko aprobetxatuko dituzte.

Proiektuak 618.000 euroko kostua dauka eta Aldundiak 450.000 euroekin lagunduko du finantzaketa.

> KZGUNEAN

Astelehenetan etorriko da dinamizatzailea

Aitor Madrid dinamizatzailea hemendik aurrera astelehenetan etorriko da Gatzagako KZgunera. Hain zuzen, astelehenean, hilak 27 (16:00-20:00) egongo da. Orain arte legez, herritarren zalantzak argitu eta hainbat ikastaro eskainiko dizkie 16 urtetik gorako gatzagarrei.

GOLFA > GIPUZKOAKO TXAPELKETA

Mikel Galdos, maila profesionallean Gipuzkoako onena

Astelehenean jokatu zuen Andoaingo Goiburu zelaian txapelketa

"Ez nuen txapelketa ona egin, baina besteek ere huts egin zuten"

XABIER URTZELAI > ARETXABALETA
Aste osoan Frantzia jokatzeko ibili ostean -Alps Tourrean- astelehenean Mikel Galdos golf jokalarari atxabaltarra zuzenean joan zen Andoainera, Goiburu golf zelaian Gipuzkoako txapelketa zegoen-eta jokoa. Entrenamen-

du saiorik egin barik hasi zuen txapelketa, eta, hala ere, Gipuzkoako profesional onena izan zen: "Zelaia ez zegoen egoera batera onen, eta egia da jokalariguztiekin akats askotxo egin genituela. Nik zelaiaren *pare*-tik hiru kolpe gora amaitu nuen, eta ez

da emaitza batere ona. Baina besteak okerrago ibili ziren".

Txapelketan Angel Rosilloren kontra berdinduta amaitu zuen, baina azken txanpan lan hobea egin izana erabakigarria izan zen lehen postua eskuratze-ko eta, bide batez, euskal zirkuituko lehen postura igotzeko.



Mikel Galdos, kolpea ematen.

GOIENKARIA

ESANAK

"Zelaia txarto zegoen, eta, egia esan, ez nuen txapelketa ona egin, baina besteak okerrago ibili ziren"

Mikel Galdos > Golf jokalarari profesionala

"Etxean egun batzuk egin eta martitzenean Murtziara noa, Espainiako txapelketara"

AKATS GUTXIAGO EGINDA

Galdosek txapelketako lehenengo itzulian ez zuen joko ikusgarririk egin. Askoz hobeto ibili zen Rosillo, lehenengo bederatzi zuloetan *birdie*-ak eginda. Pedro Ericen nafarrak ere beste horrenbeste egin zuen 8. eta 9. zuloetan, eta gerturatu egin zitzaion Rosillori. Galdosek ikusgarri jokatu ez, baina aukerekin jarraitzen zuen,

akatsik egin barik. Hurrengo zuloetan egindako *out*-ek auktara barik utzi zuten Ericen. 17. zuloan *birdie*-a egin zuen Aretxabaletoak, eta *bogey* bat 18.ean.

Egindako kolpe kopuruarekin (73) Galdosek ez zuen irabazterik espero, baina, esan bezala, kontrarioek barkatu egin zuten; Rosillok ez zuen bigarren itzuli onik egin (14. zuloan *out* bat eta 17.ean *put* motzean hutsegitea). Kolpe horiekin txapelketa irabazteko Rosillo derrigortuta zegoen

18.ean *birdie* egitera, eta ez zuen lortu. Kolpetara berdinduta, azken saioan hobeto ibiltzeagatik irabazi zuen Galdosek.

HURRENGO HITZORDUA ARABAN

Aretxabaletoak batera eta bestera dabil aurten: "Martitzenean Murtziara noa, Espainiako txapelketara. Euskadiko zirkuituko hurrengo saioa, berriz, Izkin izango da, urriaren 4an". Eta Aretxabaletoak lehenengo postua du defendatzeko.

Debagoieneko PROFESIONAL LIBERALAK

ABOKATUAK

BERNARDINO MAIZTEGI

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

JUAN ANTONIO SIERRA

Bergara / Irizar 2
T: 943 76 03 35

LIA ALTUNA / BEGOÑA LASAGABASTER

Arrasate / Iturriotz 15, 1 A
T: 943 79 98 86
F: 943 77 01 08
altu-lasa@conet.es

RAFAEL ARANBURU

Bergara / Irizar 5
T: 943 76 10 81

ROSA BEITIA / ATXEN MUNGIA / NAIARA MENDIBIL

Aretxabaleta / Basabe ind. f-0-10-pab.
T: 943 71 21 12
zenbaki@zenbaki.es

AHOLKULARITZAK

AIERDI AHOLKULARITZA

Bergara / Artekale 1
T: 943 76 03 50

ANDRA MARI AHOLKULARITZA

aretxabaleta / Andra Mari auzunea 3
T/F: 943 79 29 26
andrama@arrakis.es

ASEGI AHOLKULARIAK

ARRASATE / Otalora Lizentziaduna 4
T: 943 71 25 49
F: 943 71 17 79
asegi@asegim.com

TBG AHOLKULARITZA

BERGARA / Matxiategi 36
T: 943 76 90 83

ZENBAKI AHOLKULARIAK

ARETXABALETA / Basabe ind. F-0-10 pab.
T: 943 71 21 12
F: 943 71 22 68
zenbaki@zenbaki.es

ARKITEKTO TEKNIKOAK

JESUS LASKURAIN PEREZ

BERGARA / Zurradero 4
T: 943 76 53 53

ETXE ADMINISTRAZIOAK

URIBESALGO ADMINISTRAZIOAK

ARRASATE / Otalora 16, solairuartea esk.
T: 943 79 51 25
F: 943 71 19 85
uribesalgo@telefonica.net

PROKURADOREAK

JOSE M. BARRIOLA ETXEBERRIA

DONOSTIA / Easo 57-3 eskuma
T: 943 45 27 26 / 656 41 55 49

FUTBOLA > OHOREZKO ERREGIONALA

Bergarak ez du nahi etxeko bigarren aukeran kale egin

Mahoneroek Tolosaren bisita izango dute bihar eta Mondrak Ordiziarena, 16:30ean

X.U. > BERGARA

Ohorezko erreginaleko hirugarren jardunaldia jokatu dute asteburuan, eta Bergarak etxean izango du, bigarren astez, lehenengo puntuak batzeko aukera. Maiztegiren mutilek 1-2 galdu zuten joan den zapatuan Berioaren kontra eta bihar kontrario gogorra izango dute aurrean: dagoeneko lau puntu batu dituen Tolosa (16:30).

Mondrak ere etxean jokatu du, eta Iban Rodriguezen

taldeak bi partidu baino ez ditu behar izan onena eta txarrena erakusteko. Mojategin txarrena erakutsi zuten Ordiziaren kontra (0-2), eta hori aldatzen ahaleginduko dira bihar (16:00) etxeko zaleen aurrean.

Aloña ere etxetik kanpora ibili da ondoen, Oiartzunen zelaian hiru puntu batu zituzten-eta. Domekan (16:30), Ondarroako Aurrera taldea hartuko dute.

ARETXABALETA KANPOAN

Azkenik, liga oso txukun hasi dute Oiartzun eta Aretxabaleta izango dira zein baino zein gehiago bihar Karla Lekuona futbol zelaian (16:15), Oiartzunen. Biek ala biek dituzte lau puntu.



Arrasate Kanpanzarren eta Durangoren arteko norgehiagokako une bat, iaz.

GOIENKARIA

ERRUGBIA > EUSKADIKO TXAPELKETA

"Zenbat garen jakin arte ez dugu helburu zehatzik jarriko"

Igor Isasiren mutilek Irunen hasiko dute liga bihar, taldean zenbat izango diren zehatz jakin barik

XABIER URTZELAI > ARRASATE

Arrasate Kanpanzar errugbi taldeak bihar (16:30) hasiko du liga, Irunen: "Iaz igoera fasea jokatu zuen taldea da Irungoa, eta urtero mugaren beste aldean leku barik geratu diren jokalariek hartzen dituzte, eta, noski, nahiz eta Iparraldeko taldeetan lekurik ez izan, gure ligan jokatzeko maila oneko jokalariek izaten dira", adierazi digu Igor Isasik.

Denboraldi-aurrean Arrasateko entrenatzaileak gertutik jarraitu du ligako lehen kontrarioa: "Joan den astean Eibarren kontra jokatu zuen Irunek; 26-24 galdu zuten, baina kontuan izan behar da Eibar iaz ohorezko B mailan egon zela. Joko zakarra egin ohi duen taldea da Irungoa, baina kategoria honetan urte batetik bestera gauzak asko aldatzen dira".

JOKALARI GUTXIREKIN

Arrasate Kanpanzar taldeak, oraingo, hamahiru fitxa ditu denboraldiari aurre egiteko: "Iaz fitxa gehiago genituen, baina ez ziren errealak, jendea ez zelako entrenamenduetara etortzen. Orain, daudenek konpromisoa erakutsi dute". Arrasateko ordezkarik kopuru horrekin, Isasi Durangotik etorriko den laguntzaren zain dago: "Durangoko entrenatzaile Aratz Gallastegik esan dit oraindik ez dituela jokalarik guztiak eskura, oporretan edo lan kontuengatik oporretan daudelako batzuk. Eurek zapatuan dute ohorezko ligan partidua, eta ea zenbat etor daitezkeen gurekin."

HELBURUAK, AURRERAGO

Isasik oraindik ez du taldearen aurtengo helburua zehaztu: "22 jokalarik baditugu igoera fasea begiz jota izango dugu, baina 17 baldin bagara, helburu hori ez da erreal izango".



Bergarako bi jokalarik, aurreko denboraldian, gola egin berri.

GOIENKARIA

> ESKUBALOIA

Emakumezkoen goi mailako partidua izango da astelehenean Oñatin

Astelehenean, hilak 27, puntako eskubaloia partidua egongo da ikusgai Zubikoako kiroldegian.

19:00etan hasita Donostiako Bera Bera taldea eta Santandertik etorriko den Marina park taldea izango dira zein baino zein gehiago, lagunarteko partiduan. Bi talde horiek ohorezko ligan jokatzeko dute.

> SASKIBALOIA

Emakumezkoen Euskal kopako lehen fasea, gaur eta bihar, Eskoriatzan

Eskoriatza kirol elkarteak emakumezkoen lau saskibaloia talde onak batuko ditu Euskal koparen beste edizio batean. Hala, asteburuan lehenengo fasea jokatu dute, eta azaroan finala.

Gaur, egubakoitza (19:30) Ibaizabal eta Irlandesas taldeek jokatu dute, eta zapatuan (19:30) Irlandesas taldeak eta EHUK.

2. Fasea

1. Fasea BUKATUTA

2. FASEA SALMENTAN

San Lorentzo auzoa

BERGARA

“ **1 eta 2 logelako etxebizitzak, garaje eta trastelekuak.**

3 logelako duplexak ”

Eraikitzailea

INGESLAN
CONSTRUCCIONES

ER ICNet ER

Sustatzailea

ORMAK

Argibidea eta Salmenta

943 424 430

www.ormak.es

132.000€-tik

aurrera

Atera etekina txartelari!

Abantailaz
betetako kluba!

Goiena
kluba

Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldiarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.

Deskontu bereziak



BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)

- Laser depilazioa: hanka osoa + izterondoak
- **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- **-%20** elikagai-intolerantzia proban.
- **-%10** mikropigmentazioan: begietan, ezpainenetan edo bekainenetan.
- **-%10** fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.



RENAULT AUTOBERRI

ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA

- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

ARRASATE/OÑATI

- Sukalde osoa erositako, etxetresna elektriko bat opari.



BIDAGAK

BERGARA/ARRASATE

- **-%5** pakete konbinatueta 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).



ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) ARRASATE

- **-%2** gasolindegian erregaia erositako.
- **-%2** dendako produktuetan.



ARRASATE/OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkidearentzat)

- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.

Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01



ARETXABALETA

- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

CLINICA DENTAL BERGARA

BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)

- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.



AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

DONOSTIA

- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).



ARRAÑAGA AUTOESKOLA

BERGARA

- **-%15** inskripzioa ordaintzean.



ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

DONOSTIA

- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.

Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: kluba@goiena.com



> **SAN MIGELAK**
Oñatiko eta Aretxabaletako jaietako egitarau osoa > 32



> **KOOLTUR**
Kultura elkarte berria sortu dute Arrasaten. Bihar aurkezpena > 33

> **OIER KORTABARRIA**
Espeleologia eta musika ditu gustuko oñatiarrak. Herriko trikitxaranga josten du eta jaietan txantxikua noiz jaitsi zain egongo da > 47



Lazkano bergararraren lanak Bilboko Arte Eder Museoan

HIRU HILABETE

Urriaren 4tik 2011ko urtarrilaren 16ra arte egongo da ikusgai

ARKITEKTURA

'De la arquitectura a la naturaleza' jarri dio izenburua

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Jesus Mari Lazkano (Bergara, 1960) margolariak *De la arquitectura a la naturaleza* delako erakusketa jarriko du ikusgai Bilboko Arte Eder Museoan. Urriaren 4tik 2011ko urtarrilaren 16ra arte ikus ahaliko dira Lazkanoren 76 lan. Horietatik 54 tamaina handiko eta ertaineko margolanak dira: 34 lan 1999 eta 2006. urteen artean egin zituen eta beste 20ak berriagoak dira, 2009. urtean egindakoak. 54 lan horien gai nagusia Arte Eder Museoa bera da. "Arte Eder Museoa eta biok elkarrekin hazi gara. Antzerako garapena izan dugu. Elkarrekin maitemindu egin gara, eta orain da momentua trukea egiteko. Bilbon ikasi dudana guztia museoari buruzko margolanetan ikus daiteke", esan digu Jesus Mari Lazkanok.

BI URTEKO LANA

Bi urte eman ditu margolari bergararrak Bilboko erakusketa prestatzen. "Lan mardula" izan dela esan digu, baina gustura geratu dela: "Pinturan hasi nintzanean arkitektura nuen oinarri. Garai hartako margoak ikusi ahaliko dira. Bilakaera baten ondorioz, arkitektura naturarekin ordezkatu dut. Hasierako lanetan eraikinak ziren protagonista. Azkeneko lanetan, natura, zuhaitzak, zerua... dira nagusi. Bilakaera hori da erakutsi gura dudana, eta hori erakutsi ahal izateko bi urteko lana egin dut. Lan mardula izan da, baina gustura nago emaitzarekin. Ea, bada, ikusleak erakusketaren izenburuak dioen bilakaera ikusteko gai diren".



Homenaje de Duero lanean arkitektura eta natura nahastuta daude. J.M. LAZKANO

Artelanekin batera 2008an egindako 28 zirriborro jarriko ditu ikusgai, erakusketaren osagarri moduan. "Erakusketarako aukeratu ditudan koadroetan, ez da islatzen lan bakoitza egiteko bizi izan dudana. Sentimendu guztiak margolanetan batzea oso zaila da. Hori horrela, alor pedagogikoa lantzeko gela berezi bat jarriko dugu margolan batzuen zirriborroekin. 28 lan egiteko

DATUA

76

MARGOLAN

Horiek dira margolari bergararrak Bilboko Arte Eder Museoan jarriko dituen lanak. Horietako 54 tamaina handiko eta ertaineko margolanak dira.



Giacometti delako margolanetan natura da protagonista.

JESUS MARI LAZKANO

jarraitu dudana prozesua erakutsi nahiko nuke. Estudioan bizi izandakoa, alegia", esan digu.

Bestalde, irudiz jantzitako katalogo bat jarriko du, margolan bakoitzaren gaineko testu batekin. "Lan bakoitzaren gaineko informazioa laburbildu dut. Hain justu ere, margolan bakoitzaren gaineko zertzeladak", dio Lazkanok.

BILAKAERA

Jesus Mari Lazkanok Bilboko Arte Ederren Fakultatean egin zuen karrera. Ikasketak bukatu ondoren, fakultatean bertan hasi zen lanean, pintura departamentuan. Orduan bateratu zituen irakaskuntza eta pintura: errealismoan oinarritutako margolanak egiten hasi zen. Asko zaintzen du teknika, eta eskuz margotutako lanek argazkiak dirudite.

1984. urtetik aurrera, ukitu berezia eman zion errealismoari. Ametsezko paisaiak margotzen hasi zen. Jatorri askotariko elementuak bata bestearen ondoren jarrita paisaia bereziak sortu zituen.

1988. urtean New Yorken egonaldia egin zuen, eta arkitekturako hainbat elementu hartu zituen oinarri: zubiak, metroa, portuetako azpiegiturak eta zentral termikoak. 1998an Italiara egindako bidaiaren ondoren Erromarekin maitemindu zen, eta orduan hona presentzia handia izan du hark Lazkanoren lanetan.



GOIENKARIA

Jesus Mari Lazkano > Margolaria

"Bizi naizen tokia hartzen dut eredu moduan lanak egiteko"

M.B. > BERGARA

Bergaran jaio arren Artean bizi da Lazkano azken urteotan. Urdaibai ibarreko hainbat ukitu aurki daitezke haren lanetan. Bergarari buruzko erreferentzia gutxi daude.

Bergara oso gutxitan etortzen zarela esan diguzu.

Bai, hala da. Bergaran jaio nintzen, baina oso gutxitan joaten naiz.

Horregatik ez duzu haren erreferentzia askorik zure lanetan?

Margolanak egiteko orduan bizi naizen tokia hartzen ditut eredu. Urdaibai oso aberatsa da, eta horrek inspiratzen nau. Bergaran geratu izan banintz, Debagoieneko erreferentziak hartuko nituzkeen. Dena den, Urdaibairi buruzko margolan osoak ez ditut egin. Pintura batzuetan toki edo txoko batzuk erabili ditut.

Tradizio handia du Bergarak pintura munduan. Nola ikusten da kanpotik?

Harrobiarekin lan handia egin dute. Ume askok pintura eskolak hartzen dituzte, baina gero, aurrera egitea oso zaila da. Hiriburuetara salto egitea beharrezkoa da, azpiegitura gehiago daudelako Bilbon edo Donostian, esaterako.

Hemen dira San Migelak!

OÑATI

Irailak 17-26

18:00-20:00 Migel Angel Arzuagaren MARGO erakusketa, kultura etxean.

Egubakoitza, 24

Egun osoan zehar, BARRAKAK, euro baten truke.
19:00 Txosnetako KARPAREN irekiera.
20:00 Presoen eskubideen aldeko ELKARRETARATZEA plazan.

Zapatua, 25

Goiz eta arratsalde, Azkoagainen, II. San Migel zazpiko TXAPELKETA.
17:00 Antton tabernako plazatxoan, II. San Migel MUS txapelketa.
18:00 Zubikoa kiroldegian, 33. San Migel ESKUBALOI txapelketa. Mutilen senior maila.
18:00 Haurren DANBORRADA, musika bandak lagunduta.
Jarraian, BURUHANDIAK eta ERRALDOIAK.
21:30 Rock kontzertuak txosnetan.

Domeka, 26

Goizean, ageriko VIII. MARGO lehiaketa. Sari banaketa, kultura etxean, 14:30ean.
09:00 TXISTULARIEN goiz-eresia.
10:30 Santa Lutzia zelaian, 51. nazioarteko ARTZAIN-TXAKURREN trebetasun lehiaketa.
11:00 MUSIKA BANDAREN kalejira.
12:00-16:30 AUTO KLASIKOEN kalejira eta ondoren unibertsitate aurrealdean erakusketa.
13:00 Foru plazan MUSIKA BANDAREN kontzertua.
16:00 BOLA-JOKO txapelketa San Martinen.
17:30 PILOTA txapelketa. Finalerdiak.
18:00 San Martinen, ARKU TIROKETA.
18:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN konpartsak kaleetan.

Irailak 27-urriak 12

18:00-20:00 Ageriko VIII. MARGO LEHIAKETAKO eta margo ikastaroetako ikasleen lanak ikusgai izango dira kultura etxeko

erakusketa gelan. Asteleheneetik domekara dago zabalik.

Astelehena, 27

BARRAKAK euro 1 kostako dira egun osoan zehar.

Irailak 28-urriak 4

Oñati begi bistan ARGAZKI ERAKUSKETA plazako arkupeetan jarriko dute ikusgai. San Migel jaien amaieran lan guztiak zozkatuko dira.

Martitzena, 28

18:30 Foru plazan, HIPO ETA TOMAX pailazoan eskutik BELDURREN ETXEA ikuskizuna.
19:00 TRIKIXARANGA
20:00 TXANTXIKUAREN jaitsiera eta PINTXO dastatzea
20:15 Foru plazan, JOSELU ANAIAK taldearekin dantzaldia.
23:00 Herriko kaleetan zehar eta Oñatiko Musika Bandak lagundurik DANBORRADA NAGUSIA. Amaiera

Foru plazan izango da, danborradaren martxa eta San Migelen ereserkia jota.
Ondoren, Foru plazan dantzaldia JOSELU ANAIAK taldearekin.
00:00 Euskal presoaren aldeko MANIFESTAZIOA.

Eguaztena, 29

SAN MIGEL EGUNA
09:00 Txistularien GOIZ-ERESIA.
10:00 Txopekua tiro zelaian herri mailako PLATER TIROKETA.
11:45 UDALBATZA udaletxetik parrokiara joango da txistularien *Alkate soñua*-rekin lagunduta.
12:00 San Migel Parrokian ELKARMEZA nagusia, parrokiako koruak abestuta.
12:00 Musika Bandaren KALEJIRA.
12:00-14:00 Etxaluzen, HAUR PARKEA. Eguraldi txarra egingo balu, kiroldegian.
13:00 Foru plazan, Oñatiko MUSIKA BANDAK eskainitako kontzertua.
14:00 HERRI-BABAJANA txosnagunean.
17:00-20:00 Etxaluzen, HAUR PARKEA. Eguraldi txarra egingo balu, kiroldegian.
17:30 PILOTA txapelketako finala.
18:00 Unibertsitate aurrealdean, 'LIZARGARATEKO TXAMAO' herri antzerkia.
19:00 Foru plazan, L'EXPLORATEUR taldearen kale antzerkia.
22:00 OÑATIKO TALDEEN kontzertuak.
23:00 Foru plazan, DAMBA taldearen eskutik askotariko musika estiloen kontzertua.

Eguena, 30

11:00 Haur eta gaztetxoentzat PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK plazan.



Txantxikuaren jaitsiera. GOIENKARIA

11:00-13:00 2-8 urte bitarteko haurrentzat TXANTXI BIRI ludoteka ibiltaria Portuko plazatxoan.
12:00 TXISTU-BERTSO-POTEOA
13:00 Foru plazan, ALMA LATINA taldearen kontzertua.
14:00 BAZKARI feminista txosnagunean.
16:30-17:00 Foru plazan, PONEYAK ETA ADARDUN ANIMALIAK.
17:00 SOKAMUTURRA Foru plazan.
17:00 ANTZERKIA: *Ogiyik ekarri etzun semia*.
18:00 Transmaribollo KALEJIRA.
18:30 Kaleetan zehar, GARIBALDI talde mexikarraren kalejira.
20:15-21:30 Plazan, GARIBALDI talde mexikarraren kontzertua.
21:00 Musika KONTZERTUAK txosnetan.

Egubakoitza, 1

19:00 KALEBLOCK popularra.
21:00 HERRI-AFARIA.
21:30 Kale KONTZERTUA.
22:30 Zubikoa pilotalekuan BERTSO JAIALDIA. Unai Iturriaga, Maialen Lujanbio, Sebastian Lizaso, Miren Amuritz, Amets Artzallus eta Jon Maia bertsoariak parte hartuko dute horretan.



Martitzenean danborrada egingo dute.

GOIENKARIA

ARETXABAETA

Egubakoitza, 24

18:00 Erretiratuei eskainitako LUNCHA eta DANTZALDIA, Basotxon.
18:00 Malas Compañias antzerki taldeak OILASKOETXEA delako KALE ANIMAZIOA egingo du.
18:00-00:00 Udaletxe zaharrean, gazte ekimenaren TURBOTABERNA eta TONBOLA.
19:00 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIEKIN batera BURUHANDIAK irtengo dira.
22:30 SCAM, CRISIS, NEALTA FOLA eta MATXINBRADA taldeen KONTZERTUA Arlutzeko kantxan.

Zapatua, 25

10:00 DIANA, txistulariekin.
Goiz osoan zehar, Tril emakume taldeak antolatuta, TALO TXOSNA egongo da Pagaldai tabernan.

Egun osoan zehar, TURBOTABERNA udaletxe zaharrean.

10:00-14:00 ARTISAU FERIA eta XVI. AZOKA BIOLOGIKOA izango dira Durana kalean.
11:30 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIEK kaleak animatuko dituzte euren musikarekin.
12:45 TXALAPARTA Durana kalean.
13:00 ZANPANTZARRAK Durana kalean.
14:30 HERRI BAZKARIA izango da Herriko Plazan.
17:00 Leizarra musika eskolako TRIKITILARIAK kaleetan barrena.
19:00 LARRIN-DANTZA egingo dute Durana kalean.
19:30 BERTSOLARIEN emanaldia Herriko Plazan: SEBASTIAN LIZASO, IGOR ELORTZA, JON MAIA, IRATXE IBARRA eta ESTITXU AROTZENA.

22:30 DANTZARI MUSIKA TALDEAK emanaldia egingo du Herriko Plazan.
23:30 BOLO TXAPELKETA jokatuko da, honako sariekin:
1. saria: 100 euro, garaikorra eta txapela.
2. saria: 70 euro.
3. saria: 50 euro.
4. saria: 30 euro.
00:00-03:00 Borondatezko ALKOHOL PROBA Durana kalean.

Domeka, 26

11:00 DIANA, Basauriko Haizedoinduak taldearekin.
13:00 HERRI KIROLAK Herriko Plazan.
1. atala: aizkolariak (Ernesto Ezpeleta Bihurri, Hodei Ezpeleta, Jesus Gisasola Zelai II.a, Ioritz Gisasola Zelai III.a);



Taloak ez dira faltako bihar.

GOIENKARIA

Iparraldeko jokoak (Karlos Aretxabaleta); harri-jasotzailea (Joseba Ostolatza).
2. atala: norgehiagoka
3. atala: motozerra erabiliz irudi bat egitea.
16:00 XVIII. SAN MIGEL MUS TXAPELKETA Herriko Plazan. Izenematea 15:15etik 15:45era, 20 eurotan.

16:00 Arlutz Xake Elkartearen eskutik III. SAN MIGEL SUB 16 XAKE TXAPELKETA Herriko Plazan.
19:00 ARETXABAETA ABESBATZA Herriko Plazan. P. Jose Arrue konpositore aretxabaletarra hil zela 50 bete direla-eta omenaldia jasoko du. Horrez gain, euskal kantutegiko eta munduko abestiak.

KONTZERTUA > AURKEZPENA

Iraganeko kutsua duen jaia, jaio berri den elkarte batendako: Kooltur Ekintza

Arrasaten urteetan kulturgingintzan jardundakoez sortu dute elkarte berria: bihar aurkeztuko dute jendaurrean, kontzertu batekin

J.BEREZIARTUA/ A.EZKIBEL > ARRASATE
Beste elkarte bat sortu da Arrasaten, askotariko kultura ekitaldiak antolatu eta aurrera ateratzeko asmoz. Herrian hainbat urtez kulturgingintzan jardun duten lagunek osatzen dute taldea eta bihar aurkeztuko dute gaztetxean. Aurkezpenerako, herrian oso arrakastatsua izan den jaialdi formatu bat berreskuratuko dute: herriko hainbat taldek hamarkada oso bateko musika zuzenean joko dute, hain zuzen. Orain dela urte batzuk, 70eko hamarkadako bi jaialdi egin zituzten; orain, 80ko musikak hartuko du erreleboa. Festa ziurtatuta dago.

URTE HASIERA EZKERO LANEAN
Orain dela zortzi hilabete hasi ziren lanean elkarte berriko kideak. "Kulturgingintzan ibilitakoak gara eta beti izan dugu zerbait egiteko grina", adierazi digu Haritz Zubiate elkartearen kideak. Zortzi lagun dira elkartearen lanean hasi berri direnak.

Elkarte berriaren helburua Arrasaten dagoen kultura eskaintza hobetzea da, dagoena errespetatuz. Adierazi digute eurek elkarte moduan antolatuko dituztela ekitaldiak, baina "ateak zabalik" dituztela elkarlanerako.



2003 urtean, 70eko jaialdiak antolatu zituzten Arrasaten. Biharko jaia 22:00etan hasiko da.

GOIENKARIA

SOINU EKIPOA EROSI DUTE

Kooltur Ekintza elkartekoen ustez, alde zaharrean ekitaldiak egiteko dagoen leku aproposena gaztetxea da. Gainera, iraganeko gaztetxe mugimenduan parte hartutakoak dira hainbat kide eta nolabaiteko lotura dute gaztetxe-ko ideologiarekin. "Gaztetxeari ikusten genion gabezia bakarria musika ekipoa falta zen", azaldu du Zubiatek. Hala, AGAKO-rekin batera soinu ekipoa erostea erabaki dute, eta zapatuko kontzertuak balioko du gastuak ordaintzeko.

BIHARKO JAIAN BOST TALDE

Bost taldek hartuko dute parte jaialdian: Anger Duhalde eta

KOOLTUR EKINTZA

Azarotik aurrera, Kooltur egunenak

Elkarte berriak Kooltur egunenak antolatuko ditu azarotik aurrera eguenero. Lehenengo jaialdia azaroaren 4an izango da: Hertzainak taldeko Gari musikari ezaguna izango da gaztetxe-ko agertokian.

"Astero zerbait antolatzeko ideia geneukan buruan eta uste dugu eguna egun polita izan daitekeela. Unibertsitateko ikasle asko egoten da eta kalean ere giro polita egoten da", azaldu du Haritz Zubiatek. Hurrengo eguna laneguna dela kontuan hartuta, antolatuko dituzten ekitaldi guztiak 22:00etatik 23:30era izango dira. Ekitaldiak izan daitezke: kontzertuak, poesia emanaldiak, antzerkiak... Denetarik.

Hapa Hapa, Edukazio SKAxa, Ain_80, The Convicts eta May Stardust. Baldintza bakarra da 80ko abestiak jotzea. Kontzertuen hasieran eta taldeen artean, herrian aski ezagunak diren bi historikok musika jarriko dute: *Yul* eta *Txitxo*-k, hain zuzen. 22:00etan hasiko da festa eta sarre-ra lau euro ordaindu beharko da. 80ko hamarkadako itxurak darmanak euro bateko deskontua izango du jaialdian.



MOISES AZPIAZU dantza taldea
BERGARA

2010-2011 DANTZA IKASTURTEA urriaren 4an hasiko da



GURASO BILERAK

- Irailaren 27an 17:30ean 6 eta 7 urteko umeen gurasoak
- Irailaren 27an 18:30ean 8, 9 eta 10 urteko umeen gurasoak
- Irailaren 28an 17:30ean 10 urtetik aurrerako umeen gurasoak

Bilerak Aranzadi Ikastolako psikomotrizitate gelan izango dira.

> MUSIKA

Oñatiko txosnagunean kontzertua eskainiko du bihar Estricallak, herriko jaiak berotzen hasteko

Txosna batzordeak kontzertua antolatu du biharko, zapatua, San Migel jaiak berotzen hasteko. Estricalla, Flyshit, Martis Causa eta Black River taldeek joko dute txosnagunean. Kontzertua 22:00etan hasiko da. Estricalla izango da kontzertuko talde nagusia. Corazon de Sapo eta Kuraia taldeetan ibilitako Fernando abeslaria da taldeko arima. Sei abestiz osatutako diskoa atera dute: *Gimnasia revolucionaria* izeneko lana, hain zuzen.

> ZINEA

Mari Asun Pagoaga aktorearen '80 egunen' filmak Film Commission saria jaso du Donostiako zinemaldian

Donostiako zinemaldiak saria utzi du gurean ere. Hain zuzen, Mari Asun Pagoaga arrasatearrak parte hartzen duen *80 egunen* filma saritu dute. Donostiako Film Commission saria da irabazi dutena. Seigarren aldia da sari hori ematen dutena, eta lehenengo aldia euskal produkzio batek saria irabazten duena.

Donostiako turismo zinegotzi Enrique Ramosek esan du Donostiako balore urbanistiko eta kulturalak egoki islatzen dituelako eman diotela saria Jon Garañano eta Jose Mari Goenagaren filmari.

Oier Kortabarria > Espeleologia eta musikaria

"Koban, sekula inor egon ez den lurra zapaltzeak asko gogobetetzen nau"

Naturak eta musikak biltzen ditu Oier Kortabariaren zaletasunak. Orain buru-belarri dabil Oñatiko kobazuloak ezagutzen -700 baino gehiago dira katalogatuta daudenak-; eroso sentitzen da beste askok izua sentitzen duten zirrikituetan. Hori bai, datorren astean herriko jaiak datoz, eta astebetetz bada ere albo batera utziko du koba, taberna zuloan dena emateko.

JOKIN BEREZIARTUA > OÑATI

Aste bukaeretan Ona tabernan lan eginda, ondo ezagutzen du Oier Kortabariak (Oñati, 1989) tabernaren estresa. Orain, baina, jaiak datoz eta beste aldean egotea egokitu zaio. Bere bi pasioez egon gara harekin berbetan: espeleologia eta musika.

Espeleologia duzu zaletasun. Noiz eta nola ezagutu zenuen?

Lagun batzuekin batera Aloña Mendi Espeleologia taldeak antolatu zuen herritarrendako irteera batera joan nintzen, 2007ko azaroan-edo. Asko gustatu zitzaidan eta taldekoekin berba egin ostean hasi nintzen mundu hori ezagutzen.

Zer da kobazuloak eskaini eta ematen dizuna?

Hasteko, kuriositate handia. Gainera, inork sekula zapaldu ez duen leku bat zapaltzea zaila da gaur egun, eta kobazuloak hori ematen dit. Horrek asko gogobetetzen nau. Oso gustura eta eroso sentitzen naiz kobazuloan.

Nora joaten zarete normalean?

Oñatin bertan nahiko lan dugu. Gainera, Arrasateko taldearekin batera dihardugu eta eurei ere laguntzen saiatzen gara. Arantzazun, Araotzen eta Aizkorrin, esaterako, lan askotxo dugu.



Ez dugu kanpora joateko beharrik; izan ere, Oñatin bakarrik 700 kobazulo baino gehiago ezagutzen ditugu katalogatuta daudenak. Eta beste asko aurkitu barik egon daitezke. Hori inork ez daki, aurkitzen diren arte...

Haitzulo barruan zein izaten da lan metodologia?

Lehenik eta behin, esploratu egiten dugu eta horrek denbora luzea hartzen du. Gerora etortzen dira topografia eta gainontzeko neurketak. Horrez gain, urak kobazulo horretan zer-nolako eragina duen ere aztertu ohi dugu. Askotan lan astuna izaten da, baina interesgarria ere bai, aldi berean. Ez hori bakarrik: atzetik etor daitekeenarendako lan aberasgarria da.

Orain bertan zein haitzulotan ari zarete?

Ubaon ari gara, Aloña mendia- ren azpian. Aste bukaera honetan inguru horretan dagoen kobazulo bateko sifoi batetik [kobazuloan urez beteta dagoen pasabidea] pasatzea lortu gura dugu taldean dugun urpekari baten bitartez. Izan ere, helburu konplikatu da, oxigenoz eta uretan ondo mugi-



JOKIN BEREZIARTUA

PERTSONALA

Herria: Oñati. **Adina:** 21 urte. **Ikasketak:** Goi mailako produkzio bidezko zikloa. **Zaletasunak:** Espeleologia, musika eta lagunekin ibiltzea. **Film bat:** *Crepusculo*, Catherine Hardwicke zuzendariarena. **Musika talde bat:** Aramaioko Gorroto taldea. **Kan-**

tu bat: Latzen taldearen *Torturaren artea*. **Liburu bat:** *La cruz de El Dorado*, Cesar Mallorqui idazlearena. **Bisitatuak:** *lekurik politena:* Britainia. **Amets bat:** Oñatin bertan kobazulo garrantzitsu bat nik neuk aurkitzea. **Bizi izateko herri bat:** Oñati.

tzen dakien batek egin behar du. Ea, bada, asteburu honetan helburua betetzea lortzen dugun!

Zer egin behar da Aloña Mendi Espeleologia taldean izena emateko?

Mundu berezia da kobazuloa, ikusi dugu nola asko burua sartu baina di-da baten kanpora irte ten diren. Nora zoazen argi duzula sartu behar duzu kobazuloan, eta hori argi izatea eskatzen diogu taldean izena eman gura duenari. Horrez gain, taldearekin konpromisoa izatea ere eskatzen dugu. Haiendako, ateak zabal-zabalik ditugu.

Musika da beste zutabe bat zure bizitzan. Egun, Oñatiko Trikitxaranga jotzen duzu, ezta?

San Migel jaietako Txantxi-kuaren jaitzieran urtebete egingo dugu. Iazko jaietan egin genuen debuta eta aurten taldeko kideok afari bat egingo dugu eta horren ostean parranda, urtebete bete dugula ospatzeko. Baina ez dugu saio berezirik egingo.

Trikitxaranga gain, bi musika taldetan jo izan duzu. Zein taldetan?

Contra Ley eta Lucrecia ziren taldeen izenak. Lehen taldean punk-rocka egiten genuen eta bigarren proiektuan heavy doinuak ere lantzen genituen. Finean, aurrera egin ez zuten bi proiektu izan ziren.

Punk-rocketik heavy-rockera; hori iragana da. Eta orain?

Orain ska talde bat aurrera atera guran gabilta. Zazpi edo zortzi lagunek osatzen dugu taldea, baina lasai gabilta, ez dago inongo presarik: oraingo, asmoa da datorren urteko jaietarako taldea gertu izatea.

Nola ikusten duzu Oñatiko musikaren egoera?

Oñatin musika talde asko dago, ez da harrobirik falta. Talde asko ez dira aurrera irtengo, baina mugimendu handia dago. Ia astero kontzertuak egiteko adina talde dago. Pentsa, Errekalde auzoko lokaletan 23 bat talde daude, eta, horiez gain, lokal pribatu- tuetan beste talde batzuk daude.

Amaitzeko, kobazuloa ez bada mendira joaten zara. Naturarekin harreman handia, ala?

Astean behin-edo joaten naiz mendira, deskonektatzeko. Txakurra hartu eta buelta eman, ondo etortzen da.



GOIENKARIA

San Migel jaiak luze eta zabal 'Magazinea'-n

San Migel jaiak datorren astean *Magazinea*-n: Aretxabaletakoak astelehenetan eta Oñatikoak eguaztenean. Oñatiko danborrada, Aretxabaletako feria... Jaietako ohiko irudiak, kaleko inkestak, e.a.

GOITB, 'Goiena magazinea'

> Astelehena, 19:45
> Eguaztena, 19:45



GOIENKARIA

Tertulia, Monika Belastegik gidatuta

Goiena Magazinea-n tertulia saioa estreinatu zuten aurrekoan eta datorren astean gaurkotatuzko jendarteko gaiak izango dituzte berbera gai Monika Belastegik gidatutako solasaldian.

GOITB, 'Goiena magazinea, tertulia'

> Eguaztena, 20:45.

astea GOITBn

Egubakoitza, 24	Zapatua, 25	Domeka, 26	Astelehena, 27	Martitzena, 28	Eguaztena, 29	Eguena, 30
13:15 Marrazki bizidunak.	08:00 Marrazki bizidunak.	08:00 Barrebusa.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.	13:15 Marrazki bizidunak.
13:45 Kantari.	10:30 Barrebusa.	09:00 Marrazki bizidunak.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.	13:45 Kantari.
14:15 Onein.	11:30 28 Klip.	11:30 Gernikako jaiak.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Onein.	14:15 Eltze beroa.	14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.	12:00 Erloklip.	12:30 Goiena Magazinea, tertulia.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.	14:45 Berriak.
15:15 Ur eta lur.	12:30 Goiena Magazinea.	13:30 Bermeoko jaiak.	15:15 Erloklip.	15:10 Harmailatik.	15:10 Iragana gogoratu.	15:15 Gipuzkoakultura.
15:45 Erloklip.	13:30 Eltze beroa.	14:00 Onein.	15:45 Bermeoko jaiak.	15:50 Gernikako jaiak.	15:50 Onein.	15:45 Goiena Magazinea, tertulia.
16:15 Herriz-herriz: Ezkurra.	14:00 Animalia.	14:30 Goiena Magazinea.	16:15 28 Klip.	16:20 Erloklip.	16:20 28 Klip.	16:45 Berriak.
16:45 Berriak.	14:30 Barrebusa.	15:30 Gipuzkoa Kultura.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	16:45 Berriak.	17:15 Marrazki bizidunak.
17:15 Marrazki bizidunak.	15:30 Marrazki bizidunak.	16:00 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:10 Marrazki bizidunak.	17:15 Marrazki bizidunak.	17:35 Harmailatik.
18:00 Harmailatik.	17:45 Eskuokin.	18:00 Eskuokin.	17:45 28 Klip.	17:35 Herriz-herriz: Ezkurra.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.
18:45 Berriak.	18:00 Ur eta lur.	18:15 Barrebusa.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:15 Marrazki bizidunak.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.
19:15 Kantari.	18:30 Gipuzkoa Kultura.	19:15 Goiena Magazinea, tertulia.	18:45 Berriak.	18:45 Berriak.	19:15 Marrazki bizidunak.	19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Goiena Magazinea.	19:00 Gernikako jaiak.	20:15 Harmailatik.	19:15 Kantari.	19:15 Kantari.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.
20:45 Gipuzkoa kultura.	19:30 Animalia.	20:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	19:45 Goiena Magazinea.	20:45 Iragana gogoratu.	20:45 Animalia.
21:15 Goiena Magazinea.	20:00 Goiena Magazinea.	21:45 Gipuzkoakultura.	20:45 Harmailatik.	20:45 Harmailatik.	21:15 Goiena Magazinea.	21:15 Goiena Magazinea.
22:15 Zaldi lasterketa.	21:00 Ikusmira.	22:15 Animalia.	21:30 Goiena Magazinea.	22:30 Iragana gogoratu.	22:15 Goiena Magazinea, tertulia.	22:15 Gipuzkoakultura.
22:45 Zaldi probak.	21:45 Goiena Magazinea, tertulia.	23:00 Kulturzulo.	22:30 Harmailatik.	23:00 28 Klip.	23:15 Goiena Magazinea.	22:45 Esatea libre.
23:45 Goiena Magazinea.	22:45 Gipuzkoa kultura.	23:15 Jazz jaialdia.	23:00 Gipuzkoakultura.	23:30 Goiena Magazinea.	00:15 Jazz jaialdia.	23:45 Goiena Magazinea.
00:45 Emisio amaiera.	23:15 Harmailatik.	23:45 Emisio amaiera.	23:30 Goiena Magazinea.	00:30 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.	00:45 Emisio amaiera.
	00:15 28 Klip.		00:30 Emisio amaiera.			
	00:45 Emisio amaiera.					

arrasate irratia

FM 107.7

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratu.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratu.

Astelehenetik egubakoitzera

10:00-12:00 Igo Autobusera!

> Albistegia
> Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
> Astelehenetan Kirolak
> Ilunpean (elkarrizketa, Euskal Herriko pertsona ezagun batekin)
> Udal Gazte Bulegoa
> Sexologia Zerbitzua
> Astearen erreparoa (Goienkariarekin)
> Eguneko eta asteko protagonistekin, elkarrizketak
> Zozketak (egubakoitzean)
> Zorion agurrak (parte hartzeko: 943 25 05 05 (irratia@goiena.com edo goiena.net atarian, irratiko bloga))
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Musika
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 22:00: Errepikapenak

guardiako farmaziak

ARRASATE

Zapatua, 25	Amezua	Santa Marina 32	943 79 09 74
Domeka, 26	Español	Araba 14	943 79 18 65
Astelehena, 27	Ruiz	Nafarroa etorbidea 1	943 79 14 09
Martitzena, 28	Etxeberria	Zarugalde 42	943 77 16 30
Eguaztena, 29	Alberto Azkoaga	Ferrerias 1	943 79 15 16
Eguena, 30	M. Fca. Azkoaga	Iturriotz 17	943 79 79 99
Egubakoitza, 1	Fernandez	Maisu Aranberri	943 79 22 26

BERGARA

Zapatua, 25	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Domeka, 26	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74
Astelehena, 27	Zabala	Barrenkalea 25	943 76 16 87
Martitzena, 28	Guallar	San Antonio 5	943 76 11 05
Eguaztena, 29	Estella	Matxiategi 5	943 76 19 63
Eguena, 30	Mozos	Iparragirre 2	943 76 12 15
Egubakoitza, 1	Urrutikoetxea	Oxirondo 4	943 76 11 74

OÑATI

Zapatua, 25	Juldain	Kale barria 6	943 78 11 28
Domeka, 26	Juldain	Kale barria 6	943 78 11 28
Astelehena, 27	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Martitzena, 28	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguaztena, 29	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Eguena, 30	Anduaga	San Lorentzo 3	943 78 21 16
Egubakoitza, 1	Juldain	Kale barria 6	943 78 11 28

ARETXABALETA

Zapatua, 25	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Domeka, 26	Anitua	Belorrieta auzoa 1	943 08 11 43
Astelehena, 27	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Martitzena, 28	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguaztena, 29	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Eguena, 30	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99
Egubakoitza, 1	Juan Fraile	Herriko Plaza 10	943 79 21 99

Guardiako farmazien eskuko telefonoetarako 2010eko egutegia. Bidali FARMA 25600 zenbakira. Gehienezko kostua 1,39 € + WAP deskarga kostua, operadorearen arabera, Altiria TICek kudeatuta (www.altiria.es).

herritarrek galdezka

KILOMETROAK

"Kilometroak jaira joateko autobusak antolatuko dituzte bailaran?", galdetzen digu antzular batek.

Ikastolen alde antolatzen diren jaietarako autobusak antolatzen dituzte ibarreko ikastolek. Aurten, kilometroak jaiari dagokionez, eta lehenengo aldiz, Debagunek ere antolatu ditu, "jendearen eskaerari" erantzunez, AED elkartetik aditzera eman dutenez. Hortaz, urriaren 3an Lezon ospatuko den Kilometroak jaira joateko, ikastolatan ez ezik, ibarreko euskara elkarteetan ere eman daiteke izena autobuserako.

BERGARAKO TAO ZERBITZUA

Bergarar batek haxe galdetu digu: "Kruz Gallastegi kalean zergatik ez dago TAO zerbitzurik?".


Bergarako Udaltzaingotik aditzera eman dutenez, TAO zerbitzua erdiko kaleetan ezartzea erabaki dute. Horretarako, kontuan hartu dute zenbat auto, garaje, biztanle eta aparkaleku plaza dauden. Kale batzuk TAO barik utzi dituzte, komenigarria delako kale batzuk aparkaleku librearekin lagatzea; Kruz Gallastegin, esaterako.

Egiguzu galdera eta geuk egingo diogu dagiokionari.

- Telefonoz: 943 25 05 05 • Faxez: 943 25 05 12
- Goienkaria. Irizar jauregia. Barrenkalea 33. 20570 Bergara.
- Posta elektronikoz: goienkaria@goiena.com


eguraldia

DEBAGOIENEAN



Zapatua, 29

Zerua estalita egongo da eta, tarteka, euri zaparradak bota ditza. Tenperaturak behera egingo du eta haizea iparretik ibiliko da. Giro lainotu eta freskoa.



Domeka, 30

Ildo beretik jarraituko du domekan ere. Euria egiteko probabilitatea txikiagoa izango da eta egitekotan ez du askorik botako. Tenperaturak behera.

EUSKAL HERRIAN

Udazkena freskoa etorri zaigu, iparreko haizearen eraginez. Zenbat eta hegoalderako garbiago eta zenbat eta iparralderago, euria egiteko arrisku handiagoa.





Aramaioko **Julio Axpe** eta **Martina Altuna** 1960ko irailaren 24an ezkondu ziren Barajuenen. Bihar urrezko ezteiak ospatu dituzte etxeokekin batera. "Zorionak, bikote. Urte askotan orain bezain zoriotu izan zaitezte", diote etxeok.

Bergarako **Luis Mari Elkoroirik** eta **Maria Dolores Pujanak** urrezko ezteiak bete zituzten atzo. Hori ospatzeko bazkaria egingo dute Etxe Aundi jatetxean. Etxeok mezua utzi diete: "Zorionak elkarrekin daramatzazuen urteengatik. Patxo asko!".



Arrasateko **Manuel Rodriguez** eta Otxandioko **Zoraida de Sancha** 1985eko irailaren 7an ezkondu ziren Otxandion. Bihar ospatuko dituzte zilarrezko ezteiak familiaren laguntzarekin. "Zorionak, bikote. Ea bada, ondo pasatzen dugun elkarrekin".



Aretxabaletako **Aitzol Gallastegi** eta Aramaioko **Olaia Arana** bihar ezkondu dira Aramaioko Andra Mari elizan. Bazkaria Zelai Zabal jatetxean egingo dute. Familiakoen eta lagunren partetik, "zorionak. Argentinan GPS beharrik ez izatea espero dugu".



Ander Barbarias eta **Iruñe Mateo** bihar ezkondu dira Loiolako santutegian. Familiakoen mezua bidali diete: "Zorionak, bikote. Ondo pasatu biharko eguna eta ondo ibili eztei-bidaian. Patxo asko, guztion partetik".



Aretxabaletako **Josu Herrasti** eta Igeldoko **Mainer Balda** irailaren 18an ezkondu ziren. Egun ederra pasa zuten familiakoen eta koadrilakoenekin. Euren partetik: "Zorionak eta patxo handi bat. Ondo pasa ezazue Etiopian".

hildakoak

- Gregorio Arexolaleiba Oianguren. Oñatin, irailaren 16an. 83 urte.
- Pilar Arregi Dorronsoro. Arrasaten, irailaren 17an, 85 urte..
- Esperanza Carrasco Iglesias. Aretxabaletan, irailaren 18an. 85 urte.
- Bittoriano Kortabarria Agirre. Oñatin, irailaren 19an. 88 urte.
- Juan Mari Oregi Arregi. Arrasaten, irailaren 22an. 72 urte.
- Agustin Davila Sanchez. Arrasaten, irailaren 22an. 38 urte.

ESKELAK

GOIENKARIAn eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatoz ordezkari batara.

Eskelaren prezioa: 122.50 euro.

Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAn, bietan, argitaratuz gero, **163 euro.**

GOIENKARIA: astero, 34.000 irakurle (CIES) Gipuzkoan.



ESKER ONA

Mertxe Etxebarria Axpe

Arrasaten hil zen 2010eko irailaren 15ean, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunera etorritakoei eta samin-agurrak bidali dizkiguzuenoi, eskerrik asko sendikoen izenean.

Gure bihotzetan egongo zara betirako.



Etxekoak,
Arrasaten, 2010eko irailaren 24an.

ESKER ONA

Pilar Arregi Dorronsoro

Arrasaten hil zen 2010eko irailaren 17an, 85 urte zituela.

Gurekin egon zaretenoi, eskerrik asko, seme-alaben izenean.

Ama, ama, isiltasunean joan zara zuri gustatzen zizaitzun bezala, emakume dotorea.

Pribilegioa izan da zu gure ama izatea gero arte, ama, etu mila milioi esker.



Arrasaten, 2010eko irailaren 24an.

OROIGARRIA

Agustin Davila Sanchez

Ikastolako gurasoa

Arrasaten hil zen, 2010eko irailaren 22an.

Ez agurrik, ez adiorik, gero arte bakarrik.

Arizmendi Ikastola



Arizmendi ikastolako guraso eta langileak.
Leintz bailaran, 2010eko irailaren 24an.

URTEURRENA

Natividad Urrutia Valdes

2009ko irailaren 24an hil zen, 77 urte zituela.

Lehen urteurreneko meza zapatuan, irailaren 25ean, 19:00etan, Arrasateko San Frantzisko elizan ospatuko da.

Garai goxo eta garai latzetan beti izango zara gure bihotzetan.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko etxeokoen izenean.

URTEURRENA

Jose Maria Jauregi Mardaraz

Olabarri baserrikoa

Lehen urteurreneko meza domekan, irailaren 26an, 12:00etan, Osintxuko Santu Martirien elizan ospatuko da.



Elizkizunera joango zaretenoi, alde zurretik eskerrik asko familiakoen partetik.

Babeslea:

Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

Beilatokia
Etengabeko zerbitzua
Lore koroak
Eskelak
Tramite guztien bideratzea



Amilaga 39, Bergara Tel./Faxa: 943 76 12 99
e-posta: euskalduna@harrespil.net

Irailak 24-30

LEIRE KORTABARRIA

Zuon ekitaldien berri iragartzeko, bidali informazioa eguazteneko eguerdia baino lehen.
Posta elektronikoa: kultura@goiena.com
Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 13

Erakusketa



OÑATI

> Miguel Angel Arzuaga zenaren margoak ikusteko aukera asteburuan

Miguel Angel Arzuaga (1925-1960) margolari eta argazkilaria zenaren lanen erakusketa dago. Zapatua eta domeka dira azken egunak. Kultura etxean dago (18:00-20:00). Argazkian, Arzuagaren margolan bat.

Antzerkia



BERGARA

> 'On egin, mon amour' delako kale antzerkia egingo dute Fraiskozurin

Teatro Salitre & Teatro Mutante taldeek adin guztietako ikusleendako egoki den *On egin, mon amour* delako antzezlan egingo dute bihar, zapatua, 19:00etan. Jakiak sukalde-triziklo baten prestatzen dituen *chef*-a da protagonista.

Ikuskizuna



OÑATI

> Artzain-txakur txapeldunak lanean ikusteko aukera ezin hobea

Euskal Herriko, Kataluniako, Espainiako eta Frantziako hamabi artzainek eta euren txakur txapeldunek hartuko dute parte 51. nazioarteko artzain-txakur txapelketan, etzi, domeka, Santa Lutzia-ko kanpan (10:30).

OÑATI

> Jaiak berotzen hasteko, Estricallaren kontzertua

San Migelen hasieran, kontzertu bikaina izango da txosna gunean, 22:00etan: Kuraia eta Corazon del Sapo taldeko kideek osatutako Estricalla taldeak emanaldia egingo du. Flyshit, Martis Causa eta Black Riverrek ere joko dute.

Bihar, zapatua, txosnagunean, 22:00etan.

BERGARA

> Bost taldek punk kontzertua egingo dute gaztetxean

Punk kontzertua egingo dute honako taldeek: Patinazo de Neurona, Matxinbrada, Krisis, No hay Solucion eta Klabo Oxidado. Sarrera 2 euro da.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 21:30ean.

ARRASATE

> 80ko hamarkadako jaiak egingo dute Kooltur aurkezteko

Kooltur ekintza elkarteak sortu dute AGAKOko hainbat gaztek, eta euren lehenengo ekintza da 80ko hamarkadako jaiak. Arrasateko bost taldek joko dute: Anger Duhalde eta Hapa Hapa, The Convicts, Edukazio SKAxa (Bad Manners covers), Ain_80 eta May Stardust. Yulek eta Txixok musika ipiniko dute.

Sarrera 4 euro da, eta mozorrotuta joaten direnendako, 3 euro.

Bihar, zapatua, gaztetxean, 22:00etan.

Ospakizunak

ESKORIATZA

> Omendu egingo dituzte 65 urtetik gorakoak

Eskoriatzako 65 urtetik gorako herritarrak omenduko dituzte: 11:00etatik 12:30era salda-jana izango dute; 12:30ean, meza; eta 14:00etan, bazkaria pilotalekuan; bukatzeko, dantzaldia eta opariak.

Etzi, domeka.

BERGARA

> III. Ikastola Eguna ospatuko dute Aranzadikoek

III. Ikastola Eguna ospatuko dute Aranzadi Ikastolan. Honako ekintzak izango dituzte: Kilometroak zaharren ibilaldia (11:00), haur tailerrak (12:00), bazkaria (14:30), herri jokoak (16:00), plazako dantzak (17:30) eta musika (19:00).

Bihar, zapatua, Aranzadin.

BERGARA

> San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozarren

San Migel jaiak ospatuko dituzte Angiozar auzoan. Honako ekintzak antolatu dituzte: gaur, egubakoitza, jai hasiera (19:00), danborrada; patata tortilla txapelketa (21:00), mus txapelketa (22:00); bihar, zapatua, umeendako jolasak (17:00), arku tiroketa Elizpean (17:30), briska txapelketa Pagomendin (18:00), patin-hockey partidua pilotalekuan (18:00), buruhandiak (19:00), sardina-jana eta omenaldia Anselmo Vegari eta Rufino Muñoz (21:30); eta etzi, domeka, meza (11:00), dultzaineroak, erraldoiak eta buruhandiak (12:00), pilota partidua (13:00), herri jolasak (17:00) eta zezentxoak (20:00).

Martitzenean, San Migel eguna.

ARRASATE

> San Migel jaiak ospatuko dituzte Garagartzan

Honako ospakizunak izango dituzte, beste batzuen artean: gaur, egubakoitza, jai hasiera (19:30), trikitaliak (19:30-22:00) eta dantzaldia (22:00); bihar, zapatua, gaztetxoaren futbol partidua (10:30), meza (12:00), umeendako herri-kirolak (12:00-14:00), umeen futbol partidua (16:00-18:30), Gorriti eta bere animaliak (18:30-20:30) eta dantzaldia (22:00); etzi, domeka, segway eta roller ibilgailuak (11:00-14:00), meza

(11:00), auzotarren esker ona bizilagun berezi bati (14:00), auzo bazkaria (14:30) eta erromeria segidan.

Egubakoitzean eta zapatuan buzkantzak egongo dira auzo etxean, 19:00etan hasita.

Musika

ESKORIATZA

> Iruñeko Memo taldeak punk rock emanaldia egingo du

Aitzorrotz kultura elkarteak antolatuta, Iruñeko Memo taldeak kontzertua egingo du.

PROPOSAMENA



ARETXABAETA

> Artisan ferian eta azoka ekologikoan 51 postu izango dira, produktuekin eta pintxoekin

Aretxabaleako san migeletako ekitaldi jendetsuenetarikoa bat da artisau feria eta azoka ekologikoa; bigarrenak 16. aldia du aurten. Artisan ferian 30 postu izango dira, denetarikoa produktuekin: ezti, turroia, otarreak, zeramika, larrua, bitxiak, oiha... Azoka ekologikoan beste 21 salmenta postu izango dira, barazki, gazta, ogi, haragi, marmelada, olio eta ardoarekin. Pintxo ekologikoak ere emango dituzte.

Bihar, zapatua, Herriko Plazan eta Durana kalean, 10:00etatik 14:00etara.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA

MUSEO BAT BAINO ASKOZ ERE GEHIAGO...

ZINEMA (HAURREI ZUZENDUTAKO ANIMAZIOA!)

Donostiako Zinemaldian, haurrek ere zinemaz gozatzeko aukera izango dute. Zientziaren kutxaGuneak, ZINEMA izeneko animazio honetan, marrazki biziak nola egiten diren ulertzen lagunduko die haurrei, eskulan baten bidez.

- Larunbata, irailak 25, 12:00etan.
- Igandea, irailak 26, 16:00etan.



Informazio gehiago: www.miramón.org edota 943 01 24 78



Miramón-Donostia Tel.: 943 01 24 78
www.miramón.org

Orduetgia
Astelehenera itxita.
Asterartetik ostiralera 10:00-19:00.
Asteburu eta jai-egunetan 11:00-19:00

Jacuzzi eta 'tupper' artean

IKASLEEN ETXEAK Gipuzkoa, Bizkaia eta Nafarroatik etorritako bost neska Eskoriatzan bizi dira elkarrekin

ANTOLAKETA Etxera iritsi berriak diren arren, laster etxeko lanak banatzeko taulatxoak egin beharko dute

LUXUZKO ETXEA Ikasleen etxeetan ohikoa ez bada ere, Eskoriatzako honetan jacuzzia era badute

ARRITXU BARRUSO > ESKORIATZA
Maialen Lekeitiokoa da; Eider, donostiarra; etxeko bigarren Eider (Madina) iruindarra da; eta Itziar, berriz, Itziarkoa -bosgarren lagun bat ere falta da argazkian: Carlota, elgoibartarra-. Euskal Herriko hiru lurraldetatik etorritako neska horiek Eskoriatzako San Juan kalean egin dute topo. Mondragon Unibertsitateko Huheziko Fakultateko ikasleak dira eta etxe berean bizi dira.

JACUZZI ETA GUZTI
Unibertsitateko ikasleen etxeak ilun samarrak izan ohi dira. Altzairu zaharrak izaten dituzte eta aukera asko izaten dira logelan, oheburuan, gurutze bat topatzeko. Bada, boskote horrena esan daiteke luxuzko ikasleen etxea dela. Hiru logela, egongela, sukaldaria eta bi komun ditu etxebizitzak. Komunetako baten, gainera, jacuzzia era badute. Azterketasasoiaren beraz, estresa kendu eta erlaxatzeko bainutxo bat hartzeko aukera izango dute.

GARBIKETA LANEN TAULA
Astelehenean hasi zituzten unibertsitateko eskolak eta etxera iritsi berriak dira, baina laster etxeko lanak banatzeko taula famatua egin beharko dute. "Bai. Oraindik ez dugu astirik izan eta ikusten duzuen moduan hozkailuaren atean ez dago taulatxorik, baina aste honetan antolatu beharko dugu garbiketa nola egin. Txandaka izango da seguruena", kontatu digu Itziarrek. Komuna garbitzea da gutxien gustatzen zaiena, eta, egia esan, jacuzzi handia garbitzen nahiko lan izango dute.

ETXKO JANARI GOZOA
Etxeko lanak antolatuta, sukaldari lanak antolatzea geratzen da: "Sukaldean guztiok aritzen gara. Lehenengo datorrena hasten da bazkaria prestatzen eta ondoren datozenak lagundu egiten dute". Eta sukaldean amaren janari gozoa ere ez da falta izaten: "Domeketan etxetik janaria ekartzen dugu askotan". Nola ez. Amatxoren *tupper* preziatuak.



ELKARBIZITZA Itziar Irizar, Eider Madina, Eider Etxebeste eta Maialen Kaltzakorta etxe berean bizi dira, Eskoriatzan. A.B

ahobero

"Etxerik gabekoak zailagoa egiten dute kaleak garbi edukitzea"

Ana Botella > Madrilgo Udaleko Ingurumen ordezkarria

Botellak beste behin ere argi utzi du nolakoa den. Oposizioak askotan salatu izan du hiri-buruko zenbait gune oso zikinak daudela. Asteon, Madrilgo etxerik gabekoak hartzeko dituzten puntuak erakutsi ditu eta hitz hauekin erantzun dio oposizioari. Bada, etxerik gabekoak baino gehiago zikintzen dute, askotan, etxea dutenek.

iturri onetik

Amaia Txintxurreta izango da Oñatiko danborradako kantineren zuzendaria

Datorren martitzenean, irailak 28, danborrada egingo dute Oñatin San Miguel jaiei hasiera emateko. Urtero ikusmina sortzen da herrian, kantineren zuzendari lanak nork egingo dituen jakiteko. Bada, aurten Goiena Telebistako aurkezle Amaia Txintxurretak zuzenduko ditu danborradako neskek. "Pozik baina urduri" dagoela azaldu digu, badakielako oñatiarrak begira izango dituela.

piperrautsa

Mikel Irizar > 'www.goiena.net/blogak/piperrautsa'

Julia

Aukera izan nuen Zinemaldiaren asteleheneko saiora joateko, eta Donostia saria Julia Roberts eman ziotenean "han nintzen ni" esan ahal izateko. Eta ikusitakoak zer pentsa dezente eman dit.

Bat. Egunotan sortzen dena histeria iruditzen zait, bada jendea egunean hiru eta lau filma ikusten dituen, aldiro ilara luzean itxoin ondoren. Bi. Famatuak buru artean ikusteko grina ere ez dut ondo ulertzen, zer eta bere izena builaka esateko. Hiru. Julia bera nahiko petarda ibili omen zen, esan didate ekitaldia ordu erdi berandu bere kasketaz hasi zela. Lau. Filma erabat aspergarria da. Eta bost. Madrilgo *la princesa del pueblo* deitzen dioten horrekin asteon antolatu duten zirkoaren ondoan, benetan oso ezberdina iruditzen zaizue Donostiako?

ai, ene!



I-poda lapurtuko dizuten beldur bazara...

Zorro horrekin I-poda ondo izkurtuan geratuko da eta kasete edo zinta zahar bat entzuten ari zarela pentsatuko dute guztiok.

www.funnybin.tumblr.com

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43

OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

